

# Goienkaria

2009ko azaroaren 6a > Egubakoitza > IX. urtea > 396. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ikasle Eguna alaia, baikorra eta positiboa izan dadila nahi dugu"

**Ainhoa Mendibil**  
Ikasle Abertzaleak  
Antolakundekoa > 09



## ARRASATE

Erdigunea Piztu ekimenak ekintzak antolatuko ditu gazteendako > 15

## BERGARA

Artekaleak itxita jarraituko du azaro bukaerara arte > 19

## ESKORIATZA

Kutsu frankista duten ikurrak kendu egingo dituzte kaleetatik > 28

## KIROLA

Ehunka debagoiendar domekan Behobia-Donostian > 34

**BERTSOLARITZA** > TXAPELKETA NAGUSIA

## Bertsozaleek bete egingo dute Bergarako aretoa finalaurrekoan

**1.350 BERTSOZALE** Bihar da saioa, 17:30ean, Labegaraietako kiroldegian; 1.350 lagunendako lekua du eta bete egingo da

**SARRERAK** Aurrez saltzen jarritako guztiak martitzenerako salduta zeuden arren, leihatilan 250 salduko dituzte, 16:00etan

**BERTSOLARIAK** Gaztelumendi, Paia, Lujanbio, Mendiluze, Martin eta Lekuek jardungo dute lehen finalaurrekoan > 37

**OÑATI** > ONDAREA

## Lehen Arantzazu eguna etzi

Arantzazu jendeari hurbiltzeko jaia da; Nestor Basterretxea etorriko da eta kriptia berritua aurkeztu > 13

## Hiltegiak zerbitzu publiko izaten segituko du, udalek kudeatuta

Debagoieneko hiltegirako beste kudeaketa eredu bat aurkezten dihardu egunotan sektoreari eta ordezkari politikoei Mankomunitateak. Horren arabera, hiltegiak %100ean zerbitzu publiko izaten jarraituko du, eta enpresa moduan kudeatuko da; kudeatzaileak Debagoieneko zazpi udal izango dira, guztiak Elgetakoa izan ezik. Era berean, sektoreari ahal edo nahi duen neurrian parte hartzeko atea zabaltzen diote, eta baita hiltegia erabiltzen duten Debagoienetik kanpoko beste udal batzuei ere. > 02-03



**HEMENGOA** Zubillagako hiltegiako arduraduna, Jose Luis Mena, behia han hil dutela erakusten duen ziurtagiria seinalatzen.

LEIRE KORTABARRIA

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07  
Iritzia > 08  
Elkarrizketa > 09  
Gutunak > 10  
Herriak > 13-33  
Kirola > 34-36  
Kultura > 38-39  
Sailkatuak > 40  
Gazteak > 42  
Telebista-Irratia > 43  
Zerbitzuak > 44  
Berri-zakua > 45  
Eskelak > 45  
Non-zer > 46-47

**EKONOMIA** > ENPLEGUA

## Langabeziak behera egin du bailaran

Urrikoa urteko bigarren datu onena da; %10,44ko tasa, irailakoa baino 0,41 puntu txikiagoa > 06

**JENDARTEA** > INGURUMENA

## Olioa birziklatzeko ekimena

Eskoriatzan, erabilitako landare-olioa biltzeko esperientzia aitzindaria jarriko dute martxan laster. Olio batatu eta tratamendu baten bitartez zikinkeria guztia kendu ondoren, biodiesela egiteko erabiliko dute. > 04

**ION** ZORUAK  
LEIHOAK  
ATEAK  
HORMA ARMAIRUAK  
leioak

**ESKAITZA: DIPROCA REMOVE PLANA**



6300 Modeloa Haritzezko egurra  
6 ate (2 ate beiradun eta 4 ate itsu)  
Marco berria  
Matelux kristalak  
Kromozko Rosetak  
Eskulana

**Orain  
1850€**

**BEZ BARNE**



**12 HILABETETAN ORDAINTEZKO AURKERA, INTERES BARIK**

Telleria 4 - 11 Pab. • Aramaioko bidea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 35

Posta elektronikoa: [ion.a@euskalnet.net](mailto:ion.a@euskalnet.net)

[www.ventaion.com](http://www.ventaion.com)

Olaguibel 51  
01003 GASTEIZ  
Tel./Faxa: 945 26 71 73

Posta elektronikoa: [ion.v@euskalnet.net](mailto:ion.v@euskalnet.net)



LEHEN SEKTOREA &gt; OKELA

# Hiltegia elkarte publiko batek kudeatuko du, ibarreko zazpi udalek osatuta

**ONIRITZIA** Mankomunitateak gertu dauka kudeaketa eredu proposamena, eta oraingoaz, alde guztien oinarritzko oniritzia du

**PUBLIKOA** Hiltegiak %100ean zerbitzu publiko izaten jarraituko du, eta udalen kudeaketak eragingarriago izatea ekarriko dio

LEIRE KORTABARRIA &gt; OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak aire berriak ekarri gura ditu bailarako hiltegiara, eta horretarako kudeaketa proposamen bat aurkezten dihardu egunotan. Ez bakarrik aurkezten, baizik eta, orain arte behintzat, inplikaturakoen –harakinak, baserritarrak...– oniritzia jasotzen. Sektorereaz gain, ordezkari politikoei ere aurkezten dihardu plana Mankomunitateak, eta badirudi horiengandik ere aldeko jarrera izango duela; xehetasun guztietan ez bada, bai, behintzat, oinarritzko planteamenduan. Gogoratu behar da alderdi guztiek erakutsi izan dutela azken urteotan

hiltegi eredu jakin baten aldeko jarrera. Horrenbestez, 2004 ezkeroko aro bat itxi eta etorkizuneko erronkei begira jarri ahal izango da Zubillagako hiltegia.

Ziklo aldaketa hori denon adostasuna –oinarritzko planteamenduan, behintzat– daukan proiektu batekin egingo da, eta ardatzean daukana hiltegiak %100ean zerbitzu publiko izaten jarraitzeak; kudeaketa publiko izan dezala, Debagoieneko zazpi udal –guztia Elgeta izan ezik, hango sektoreak ez zuelako hiltegia erabiltzeko interesik; baina oraingo proposamena herritarrei aurkeztuko die Udalak– akziodun edo kudeatzaile direla; eta

enpresa gisa lan egin dezala. Orain, 2004ko eztabaida hasi aurretik bezala, Zubillagako hiltegia zerbitzu publiko da, eta Mankomunitateak kudeatzen du; proposamen hori indarrean jartzen denean, udalak izango dira kudeatzaileak. Horrek ateak zabaltzen ditu Debagoienetik kanpoko beste udal batzuk ere sartzeko –hiltegia Debabarreneko, Urola Garaiko eta Araba aldeko herrietakoek ere erabiltzen dutelako–, eta sektoreak ere parte hartzeko edo ahal duen neurrian laguntzeko aukera izango du.

Beste ondorio garrantzitsu bat azkartasuna izango da; gaur egun, erabakiek luze jotzen dute



Debagoieneko hiltegiako arduraduna, hozkailu-ganberan, asteon hildako piezak begiratzen.

–bi hilabete, batzuetan–, eta, udalak izanda agenteak, dinamika azkarragoa izango da. Horrekin batera, zerbitzua sarriago emateko asmoa dago. Gaur egun, astelehenetan eta egubakoitzetan bakarrik hiltzen da ganadua.

Adostasunak lortzen dabil orain Mankomunitatea, Hiltegiaren batzordeko presidente Pedro Iturberen eskutik. Dena ondo bidean, otsailean jarriko dute indarrean kudeaketa berria.

#### HARAGIAN ERAGITEKO BOKAZIOA

Horrekin, Zubillagako hiltegiak rol aktiboa hartu nahi du okelaren ekoizpen eta salmenta ziklo osoan. Pedro Iturbek honela dio:

"Haragiaren munduan dagoen maila bakoitzean eragin izan nahi genuke: haragiaren ekoizpenean, baserritarrari bere lana ondo ordaintzea, faenatu tradizionalaren bitartez; haragiaren salmentan, harakinei laguntzea, hain interesgarriak ez diren abelburuen piezak merkatuan txertatuz; kontsumitzaileengan, ohiturak moldatu eta bertako haragia exijitzeko eta kontsumitzeko pausoa eman beharra daukagu". Iturberen hitzetan, hiltegiaren bidez, Debagoienak aukera dauka "haragiaren merkatuan aktore garrantzitsu izateko". "Ezin dugu jarraitu euskal haragiaren ekoizpenak gora noiz egingo duen esperoan".

## HISTORIA

### Desadostasunek malkartutako aroa, amaiera bidean

2004. URTEA

#### > HILTEGIA ITXI?

Mankomunitateak hiltegia itxi nahi zuela jakin zen. Hiltegia Bizirik plataforma sortu zuten abeltzainek, harakinek-eta; mobilizazioak hasi zituzten.

2004KO UZTAILA

#### > PRIBATIZATZEAREN ALDEKO KORRONTEA JAURLARITZATIK

Pribatizatzearen aldeko korrontea zeukan Eusko Jaurlaritzak, eta Bilbon EAE osorako hiltegi bakarra egitea, pribatua hura. Azkenean, Debagoieneko udal bakoitzari eman zitzaion hitza: osokoa bakoitzak erabaki behar zuen zer egin nahi zuen. Udalek erabaki zuten beste urtebetez zabalik jarrai zezan

hiltegiak, eta epe horretan ikustea ze aukera zituen etorkizunerako. Bideragarritasun plana egin zuen Mankomunitateak.

2005EKO MAIATZA

#### > ENPRESA MISTOAREN ALDE

Bideragarritasun planak hiru aukera zabaldu zituen: gestio publiko, pribatua edo mistoa. Mankomunitatearen Gobernu Batzarrak azken horren alde egin zuen: Mankomunitateak eta sektoreak egindako gestioa. Hiltegia Bizirik ez zegoen ados: eskatzen zuen zerbitzua publiko izan zedila, eta enpresa eran kudeatua. PSE-EE, Aralar, PP eta EB-Berdeak taldeek ere ez zuten egokitzen jo erabakia. Bai sektoreak, bai alderdi politikoei, eskaera batzuk egin zituzten: inbertsio programa bat; kudeatzaile propioa; ganaduzaleekin kontaktzea; eta ustiaketa txikien iraupena ziurtatzeko neurriak.



2004ko mobilizazio bat.

ARTXIBOA

2005EKO UZTAILA

#### > HASIERAKORA ITZULERA

Mankomunitateak erabaki zuen hiltegiak zerbitzu publiko izaten jarraitzea, eta Mankomunitateak hartzea ardura guztia, auzia hasi aurretik bezala.



2005eko Mankomunitateko ordezkariak, orduko alkateak.

ARTXIBOA



Asmo berriak azaltzen arduradunak, iaz.

ARTXIBOA

2006-2007

#### > KUDEAKETA HOBE BATEN ESKE

Ika-mikek jarraitu egin zuten, eta Hiltegia Bizirik-ek salatu zuen "kudeaketa txarra" egiten zebilela Mankomunitatea. Hark, berriz, ukatu egin zuen hori.

2008KO UZTAILA

#### > ARO BERRI BAT

Mankomunitateko arduradunek jakinarazi zuten sozietate publiko eratu nahi zutela, Udalek osatuta. "Ilusioz" betetako epe bat hasi zen, arduradunen esanetan.





LEIRE KORTABARRIA

#### HEMENGOA BABESTU

Proposamen horrekin, 2008. urtean batzorde horrek aurkeztutako asmo bat gorpuzten da. Urte hartako uztailean dagoeneko jakinarazi zituen Iturbek zuzendutako batzordeak hiltegiarekiko zituen asmoak. Neurri handi baten, Durangoko Erralde Hiltegiaren ereduaren inspiratutako plangintza zen; Durangokoa bere errautsetatik berpiztu zuten erabiltzaileek, elkarte publiko bat sortuta, eta 2004an itxitako hiltegia berriz ireki zuten.

Mankomunitateak bere egiten zituen azkenean sektoreak eta alderdi politiko gehienek urtean egindako eskaerak, hala nola

hiltegiak bere kudeatzaile propio eta independenteak izan zitzala, inbertsio eta bideragarritasun plan bat egin zedila, langile azpikontratatuaren egoera finka zedila, instalazioak zaindu eta berritu zitezela, eta sektorearen parte-hartzea ziurta zedila, erakunde publikoen bitartez. Era berean, erabiltzaileenganako hurbiltasun eredu bat babesten zuen Mankomunitateak, eta hori funtsezko helburu bat da arduradunendako eta sektorearendako: hemengo baserriar eta harakinei zerbitzu ematea, eta, Hiltegia Bizirik plataformako kideen esanetan, "hemengo ganadua bakarrik sar dadila; kanpoko ganadua badator,

dagoeneko hilda etor dadila". Ordezkarri politikoei ere argi daukate hiltegiak bokazio hori dela: gertutasuna.

#### ETORKIZUNERAKO HAUSNARKETA

Zubillagarako dauden egitasmoak aurrera eramanda, hiltegia gertuago egongo da etorkizunean Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan haragiaren sektoreak eutsi beharreko erronkei eusteko. Izan ere, bai sektorea, bai agintariak bat datoz arloak berregituraketa bat behar duela.

Une honetan, EAEn eredu desberdin askotako hiltegiak daude, bai kudeaketa aldetik, bai juridikoki; eta, Euskadin gero eta ganadu-esplotazio txikiagoak egoteak berrantolaketa batera behar-tzen du: Gipuzkoan dauden lau hiltegiak –Donostia, Tolosa, Zestoia eta Oñati– indarrak batzea, alegia. Oñatiko alkate Lurdes Idoiak dioen moduan, "gutxienez Gipuzkoako hiltegiak batera funtzionatu dezaten, kostuak txikitzeko eta sinergiak handitzeko". Iritzi berekoa da Hiltegia Bizirik plataformako kide eta harakin Jon Leturia: "Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du bere jarrera zein den azaldu, baina, nire iritziz, Euskadin hiltegiekin elkarte bat-edo osatu beharko litzateke, elkarren artean lehiatu ez daitezela eta zerbitzu bateratua eman dezaten: adibidez, Bizkaian pare bat hiltegi, han zerbitzu eman dezaten; Zubillagakoak zerbitzu eman diezaioke Arabari ere... Bestetik, ados jar daitezela egun desberdinetan irekitzeko edo ixteko".

Zubillagako hiltegiaren zerbitzua gertukoagoa eta errentagarriago izan dadin lortzea da orain gako; eta, batez ere, hemengo sektorea eta kontsumitzaileak asebate ditzala.

Pedro Iturbe > Hiltegiako batzordeburua

## "Berehalakoan, zerbitzu bera emango dugu, garraioan aldaketa txikiren batekin"

**ARRITXU BARRUSO / L.K. > ARRASATE Mankomunitatean hiltegiaren ardura duen batzordearen burua da Pedro Iturbe. Kudeaketa eredu berria otsailean hasi nahi du.**

**Gaur egun, ze zerbitzu ematen du hiltegiak?**

Agintaldi hasieran bezala, zerbitzu bat eskaintzen die harakinei, baserriarrei eta, neurri baten, kontsumitzaileei ere bai; baserriarrek aberea hiltegiara eramaten du, eta hiltegiak hil eta harategietara bideratzen ditu kanalak. Hiltegiek tasa batzuk dituzte, kiloka, eta garraioa ere barruan dago.

**Bere egunean egin zen bideragarritasun azterketak ematen zituen aukeretatik, eredu publikoaren alde egin duzue, ezta?**

Han lau egitura juridiko planteatzen ziren: lehenengoa litzateke hiltegia ixtea; bigarrena, Mankomunitate moduan edo beste elkarlaneko egitura baten bidez kudeatzea; hirugarrena, eredu mistoa edo elkarte pribatu batek bideratzea, elkarte misto batek; eta laugarrena, abere hiltegia kontzesio administratibo bidez hirugarren baten esku uztea. Guk garrantzizkoa ikusten genuen %100ean publiko izatea, ulertzen dugun neurrian zerbitzu publikoa dela eta berebiziko garrantzia duela gure eskualdean, eta erakundeek hori bermatu behar genuela. Beste gauza bat da etorkizunean izango diren eztabaidekin, behar bada beste eredu batzuk (mistoa...) planteatu ahal izango direla, baina proposamen gisa %100ean publiko den eredu baten alde lan egingo digu.

Guk ikusten genuen hiltegi zerbitzua ematea positiboa zela, baina akaso aurrerapauso batzuk eman behar zirela, eta Mankomunitate ikusten genuen oso mugatua zela aurrerapauso horiek ematea. Beste hiltegi batzuen ereduak kontuan hartu genituen, eta, adibide bat jarrita, denok futbol zelai berean jokatzeko aukera planteatzen genuen: hainbat hiltegi daude, hainbat egitura juridiko... eta ikusten genuen Oñati hankamotz geratzen zela.

**Enpresa hori udalek osatuko dute?**

Gure asmoa da gaur egun Mankomunitatea osatzen dugun eta hiltegia babesten dugun udalek –Elgeta kanpo geratuko litzateke–


martxan jartzea, prozedura errazte aldera, baina hainbat harreman bideratu dira beste hainbat herrirekin, eta ikusten genuen, eurak ere onuradun ziren neurrian, euren babesa garrantzitsua zela hiltegiarendako.

**Kudeaketa sistema horrek ze aldaketa ekarriko ditu berehalako batean?**

Berehalakoan, zerbitzu bera ematen jarraituko dugu. Lehenengo hilabeteetan, harakinak banaketa diseinuaren gainean aldaketa txikiren bat ikus dezake, baina ez da traumatikoa izango. Harakinekin izan genuen batzarrean, haiek ez zuten inongo eragozpenik ikusi.

**Langileekin zer gertatuko da?**

Lehen 13 langile zeuden, eta etorkizunean planteatzen dugu bi gutxiago izan daitezela; batez ere, lehen aipatutako garraio eta banaketari begira. Administrazio langileek, arduradunak, abere-hiltzaileek... kopuru berean jarraituko lukete.



ARRITXU BARRUSO

**Orain, asmo hauek proposamen bat dira. Zeintzuk izango dira hurrengo pausoak?**

Beharrezkoa zen udalez udal informazioa mahai gainean jartzea, eztabaidatzea... eta datorren astean bukatuko dugu hori, Oñatiko Udaleko zinegotzi guztiarekin egonda, eta epe motzera borondateak batu nahi ditugu. Asko eztabaidatu da, etenaldia ere egon da 2008tik hona, baina bakoitzak apustuak egiteko garaia iritsi da: eredu berri bat beharrezkoa da, eta Oñatiko hiltegia ere bai. Horrek ez du esan nahi beste bide batzuk jorratu behar ez direnik.

Data jakin bat jarri beharko bagenu... otsailerako ea martxan jarri daitekeen eredu berria.

**"Hiltegi zerbitzua ematea positiboa zen, baina aurrerapausoak eman behar ziren"**

**"Asmoa da gaur egun hiltegia babesten dugun hemengo udalek prozedura hastea"**

**"Hiltegiaren 13 langile zeuden, eta proposatzen dugu etorkizunean bi gutxiago egotea"**

**"Data jakin bat jarri beharko bagenu, ea otsailerako martxan jarri daitekeen eredu berria"**

#### LABUR

## Ia 30 urte bertako abeltzainak zerbitzatzeko

#### > SOKO HAMARKADAN SORTUA

Debagoieneko hiltegia, Zubillagan (Oñati), 1983an ireki zen. 9.500 m<sup>2</sup> hartzen ditu. Instalazioak hasierakoak dira eta, arduradun eta erabiltzaileen esanetan, ondo daude oraindik. Urtero, ahal den neurrian, berrikuntzak egiten dituzte.

#### > ARABARAINO HEDATZEN DA BERE ESPARRUA

Debagoieneko herriez gain, Debabarrenekoek, Urola Garaikoek (Zumarraga, Urretxu, Legazpi...) eta Aramaiok eta Arabako beste batzuek erabiltzen dute. Batez beste, 160.000 biztanle eta 150 saltoki zerbitzatzeko ditu. Baina hiltegiak zerbitzu ematen dio etortzen den orori. Gehiena hemengo ganadua da, Gipuzkoa, Bizkaia edo Arabako abeltzainena.

#### > HILERO, 400 BURU

Gaur egun, batez beste, hilean 350-400 behi buru hiltzen dituzte Zubillagan. Abenduan, arkume sasoiak hasten denean, eta apirilera arte, 5.000-8.000 buru bitartean hilko dituzte. Arduradunek diote 2002tik hona jaisten joan dela orotariko batez bestekoa. Bideragarri izan dadin, hilero 560 bat buru hil beharko litzukete Zubillagako hiltegian.

#### > SAKRIFIKATU ETA OKELA BANATU

Sakrifizio-hiltegia da Oñatikoa; hau da, abeltzainak ganadua eramaten du, han hil egiten da, eta banaketa ere hiltegiak egiten du. Ganadua saldu edo erosi, ordea, ez dute egiten.



MANKOMUNITATEA &gt; INGURUMENA

# Erabilitako landare-olioa batzen hasiko dira Eskoriatzan

Mankomunitateak eta Ecogras enpresak adostu dute esperientzia aitzindaria egiteko proiektua

Edukiontzia jarriko dituzte kalean; hala, edozein ordu eta egunetan eraman ahalko da olioia

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA  
Eskoriatzan, erabilitako landare-olioa biltzeko esperientzia aitzindaria jarriko dute martxan las-ter. Mankomunitateak Donostiako Ecogras Recuperacion y Reciclado enpresarekin adostuta proiektua da aipatutakoa.

Eskoriatzako kaleetan jarriko dituzte edukiontzia; herritarrek etxeko olioia ontzietan batu eta edukiontzietara eraman beharko dute. Hilabete barru jarriko dituzte edukiontzia.

**ARRASATEKOAREN ANTZERAKOA**  
Eskoriatzan jarriko duten sistema Arrasaten dagoen sistemaren oso antzerakoa da. "Arrasatekoak pote berezi bat behar du. Oso antzerako sistema izango da, baina ez dauka zertan pote berezia izan, etxean dugun edozein potek

balioko digu", azaldu du Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak eta Mankomunitateko Ingurumen arduradunak. Berezi-tasun horregatik, hain zuzen, izango da esperientzia pilotua, aitzindaria. Plastikozko zein kristalezko poteak erabiltzeko aukera egongo dela gaineratu digu.

ESANAK

**"Arrasaten dagoen sistemaren oso antzerakoa izango da; baina ez da pote berezirik behar, edozeinek balio du"**

Pedro Lasagabaster > Eskoriatzako alkatea

## INFORMAZIOA BANATUKO DUTE

Edukiontzia jarri bitartean, informazioa banatuko dute Eskoriatzan. Horren harira, Mikel Jaio Mankomunitateko Ingurumen teknikariak azaldu digu inbutuak banatuko dituztela; guztira, 2.000. Eskoriatzako etxe bakoitzean inbutu bat hartzeko aukera egongo da. "Inbutua presatuta dago ur botila edo freskagarri botiletarako. Uztai bidez inbutua botilara lotzen da; modu horretan, olioia arazo barik pasa daiteke zartaginetik ontzira", azaldu digu Jaio. Sistema horrekin, gainera, etxeko ontziak berriro erabiltzeko aukera dago.

DATUA

4

EDUKIONTZI

Oraindik guztiz zehaztu barik dagoen arren, alkateak esan digu Goiko kalean, Intxaurtxueta-San Pedron, erdialdean eta Dorletan jarriko direla edukiontzia.

Bi dira esperientzia horren helburuak: batetik, erabilitako olioia sukaldeko harraskan behera botatzea ekidin gura da; eta, bestetik, olioia birziklatu gura da. "Harraskatik botatzen duguna errekarra doa zuzenean, eta horrek asko kutsatzen du. Araztegiak dauden tokietan, ura garbitu egiten da, baina olioia hondakin bihurtzen da", dio Jaio.

## BIODIESELA EGINGO DUTE

Ecogras enpresak olioia bilduko du eta tratamendu baten bitartez zikinkeria guztia kendu ondoren, Bionor enpresara eraman dute han biodiesela egiteko.

MANKOMUNITATEAK, TASA ALDAKETA

## Epeleko zabortegiko tasak %1 igoko dituzte

Mankomunitateak erabaki du Epeleko zabortegia erabiltzen dutenei tasak igotzea; hain zuzen, onartutako iguera %1ekoa da. Hau da, Epeleko zabortegia erabiltzen duten enpresek 2010ean orain arte baino %1 gehiago ordaindu beharko dute. Hori da urriaren 21ean egindako Mankomunitatearen bileran jasotakoa eta onartutakoa.

Debagoiena eskualdeko enpresendako da Epeleko zabortegia. Industrian edo eraikuntzan sortutako hondakinak batzen dituzte, hondakin arriskutsutzat katalogatu gabeak.



Olioia edukiontzian sartzen. A.E.

Ecogras enpresak emango duen zerbitzua doakoa izango da. Urtebete inguru iraungo du esperientziak. Balioko du alderatzeko ze sistema den egokiena: orain arteko biltzea sistema -puntu berdea-, Arrasateko edukiontzia sistema edo Eskoriatzan probatu behar duten sistema.

**% 10 eko  
DESKONTUA\***

**AURREALDEKO  
KOLPEEN KONPONKETETAN**

**RENAULT ZERBITZUAK. ETORRI ETXERA.**

\* Eskaintza baliagarria 2009/12/31 arte, aurrealdeko kolpeen ondorioz kaltetutako pieza guztien konponketan (aurreko kolpe-leungailuak, aurreko hegatalak, faro-optikak, kalandra eta aurreko kapota)

**% 50 eko DESKONTUA  
BIGARREN PNEUMATIKOAN\***

**MUNTATZEA ETA GURPILAK OREKATZEA BARNE**

**BIDEA ERRAZTU EGITEN DIZUGU.**

**GUZTIZ!  
DOAN!** **14 PUNTU  
GARRANTZITSUEN  
AZTERKETA\*\***

**BESTE BARIK, GOZATU BIDEAZ**

Jatorrizko pieza **RENAULT**  
RENAULT espiritua

\* Eskaintza baliagarria abenduaren 5era arte. Good Year, Michelin, Dunlop, Continental, Pirelli eta Bridgestone pneumatikoetan.  
\*\* 14 puntu garrantzitsuen azterketa oparitutako dizugu.

**GOODYEAR** **MICHELIN** **DUNLOP** **CONTINENTAL** **PIRELLI** **BRIDGESTONE**

# RENAULT ZERBITZUAK

## AUTOBERRI

San Andres auzoa 8  
ARRASATE  
943 71 24 72





> HEZKUNTZA

**UNEDek ikasturtearen irekiera ekitaldia egingo du gaur**

Bergarako UNEDek ikasturte akademikoaren irekiera ekitaldian egingo du gaur, 19:00etan, Bergarako udal-etxeko batzar aretoan. Daniel Innerarity filosofoak egingo du irekierako hitzaldia.

Era berean ekitaldian parte hartuko dute, besteak beste, Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanok; Bergarako alkate Agurne Barrusok; eta UNED-Bergarako Ikastetxe Elkartuko zuzendari Juan Jose Alvarezek.

> KANPAINA

**Janari bilteta egingo dute Arrasateko Eroskin gaur eta bihar**

Gipuzkoako Janari Bankuak eta Eroski Fundazioak antolatuta, janaria biltzeko kanpaina egingo dute aste bukieran Arrasateko Hiper Eroskin. Hain zuzen ere, gaur eta bihar janaria batzen egongo dira Gipuzkoako Janari Bankuko boluntarioak denda zabalik dagoen orduetan (10:00etatik 22:00etara).

Aurreko urteotan 7.748 kilo janari bildu dituzte Arrasateko Hiper Eroskin.

> JENDARTEA

**G+20 proiektuaren gaineko bilerak gazteekin Bergaran**

G+20 proiektuaren barruan arreta berezia eskaini gura diete gazteei. Horretarako, G+20/gazteak 500 azpi-proiektua sortu du Foru Aldundiak. Eskualdeka bilerak egingo dituzte, eta Debagoienekoak Bergaran egingo dituzte gaur eta azaroaren 20ean, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Bilera horietan, 19-24 urte arteko gazteek parte hartuko dute. Besteak beste, etorkizuneko Gipuzkoa nola ikusten duten galdetuko diete.

> ZERBITZUAK

**Autobus bereziak Arantzazura haur kantarien saiorako**

Easo, Montserrat eta El Escorial eskolanietakako haur kantariak azaroaren 14an egingo duten kontzertura joan gura dutenentzako autobus zerbitzu berezia jarriko dute. Lehen 09:30ean irtengo da Oñatitik, eta orduro egingo du Arantzazurako bidea. Azkena 14:30ean irtengo da.

Aldiz, Arantzazutik Oñatirako bidea egingo duen lehen autobusa 10:00etan irtengo da eta azkena, berriz, 15:00etan.



Jone Rodriguez antzuolarra, Cesar Larrea bergararra eta Esther Castañeira eskoriatzarra, 400 euroko sariekin.

GOIENKARIA

INGURUMENA > 'ONTZIEK BIZITZA LUZEA DUTE'

**Birziklapen kanpainako 400 euroko sariak banatu dituzte**

Cesar Larrea bergararrak, Jone Rodriguez antzuolarrak eta Esther Castañeira eskoriatzarrek 400 euroko txeke bana irabazi dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Edukiontzia horiaren erabilera bultzatzeko Debagoieneko Mankomunitateak egin duen *Ontziek bizitza luzea dute* izeneko kanpainako sariak banatu zituzten martitzen. Hain zuzen ere, Cesar Larrea bergararrak, Jone Rodriguez antzuolarrak eta Esther Castañeira eskoriatzarrek 400 euroko txeke bana jaso zuten lehia-ketan parte hartzeagatik.

Hirurek pozik jaso zituzten sariak Debagoieneko Mankomunitateko arduradunen eskutik, eta oraindik dirua zertan gastatuko duten ez dakitela esan zuten. Dena den, jakin badakite bailarako denda edo zerbitzuetan gastatu beharko dutela dirua.

EDUKIONTZI HORIA

Esther Castañeirak esan zigun birziklapenaren gaiarekin kontzientziatuta dagoela: "Etxean guztia birziklatzen dugu, eta gauza bakoitza bere edukiontzira botatzen dugu. Dena den, halako kanpainak beharrezkoak dira".

Mankomunitateak edukiontzia horia gutxi erabiltzen zelako jarri zuen kanpaina martxan, baina Jone Rodriguezek esan zuen aurretik ezagutzen zuela: "Nik erabiltzen nuen. Birziklatzeko ohitura dugu etxean".

%19 GAINDITZEA

*Ontziek bizitza luzea dute* kanpainaren lehiaketan 1.500 lagunek hartu dute parte, erdiak Interne-

tez erantzun zuten eta beste erdiak galdeketa paperean bete-ta. Ia 1.200 lagunek erantzun zituzten galdera guztiak zuzen. Mankomunitateko arduradunak pozik zeuden erantzunarekin. Dena den, euren benetako erronka da edukiontzia erabilera bultzatzea. "Horira bota beharreko ontzien %19 birziklatzen ditugu. Kopuru hori gainditzea da gure helburua".

GOITB-KO LEHIAKETA

Bestalde, birziklapen kanpainaren barruan diru-sariak banatu dituzte GOITBn. Urriaren 7an, 14an, 21ean eta 28an egin dute lehiaketa *Goiena* magazinean, eta 600 euro banatu dituzte.

ESANAK

**"Ez nuen txeketa espero; oraindik ez dakit zertan gastatuko ditudan 400 euroak"**

Esther Castañeira > Irabazlea

**"Edukiontzia horia ezagutzen nuen aurretik, baina halako kanpainak beharrezkoak dira"**

Jone Rodriguez > Irabazlea

**"%19 birziklatzen dugu edukiontzia horian; kopuru hori igotzea da gure erronka nagusia"**

Cristina Iraolagoitia > Mankomunitatea



MIREIA BIKUÑA

**Dentibusean doako azterketak egiteko azken aukera gaur**

Ahoko minbiziaren hautemate goiztiarraren kanpainaren barruan Dentibusa dago Bergarako Fraiskozuri plazan. Gaur da azken eguna doako azterketak egiteko, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara.

Bi dentista daude autobusean errebisioak egiten. Ahoaren egoera zein den begiratu ondoren, egin beharreko konponketen berri eman eta hortzak garbitzeko produktu sorta banatzen dute. Dentibusko arduradunak pozik daude ekimenak herritarren artean izan duen erantzunarekin.



# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Urriko irabazleak

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

XABIER LETE  
IKUSTEKO SARRERAK



M. Angeles Arriolabengoa Unzueta  
(Aramaio)

KAMISETA



Ramon Eraña Gallastegi  
(Aretxabaleta)

BERNARDO ATXAGAREN  
LIBURUA



Iñaki Gantxegi Bergara  
(Bergara)

MP3 BAT



Marilu Orueta Biain  
(Oñati)

## SARI NAGUSIA

### IRAILA-AZAROA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

#### ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270  
Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3  
Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoak
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatuak.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

#### EKONOMIA > ENPLEGUA

# Langabeziak behera egin du, Euskal Herrian ez bezala

Urrikoa urteko bigarren datu onena da ibarrean: %10,44ko tasa, irailekoa baino 0,41 txikiagoa

#### LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Langabeziak jaisten jarraitzen du Debagoiengan, eta urriko datua urteko bigarren onena da: %10,44 da langabezia tasa, INEMen arabera (3.237 langabe). Orain arte, urteko datu onena urtarrilekoa da: %10,03 (3.108). Irailtik urrira, 0,41 puntu jaitsi da tasa hori.

Herririk herri, denetarik izan da, baina gehienetan ere jaitsi egin da langabezia. Nabarmena da Eskoriatzaren kasua: han 20 langabe gutxiago dago (-%0,96); eta Oñatin, 38 gutxiago (-%0,7). Langabeziak nabarmen egin du behera Arrasaten ere: 62 langabe gutxiago INEMen izena emanda (-%0,53), eta Aretxabaletan: 16 langabe gutxiago (-%0,46).

Lanik gabe zeudenen kopuruak behera egin du ere Elgetan (bat gutxiago, -%0,20) eta Leintz Gatzagan (bat gutxiago, -%0,75). Aldiz, igo egin da Antzuolan (zazpi langabe gehiago, +%0,77) eta Bergaran (lau langabe gehiago, +%0,06).

#### HEGOALDEAN, %2,23 GORA

Debagoieneko datuak ez du bat egiten esparru zabalagoetako datuekin. Hala, Hego Euskal Herrian, 164.326 langaberekin bukatu da urria, eta zifra hori irailekoa baino altuagoa da, 3.581 langabetan; %2,23ko portzentaje-igoerarekin, eta, oro har, biztanleria aktiboaren %12,1 dago orain langabezian lau lurraldeetan. Nafarroan izan

da igoera handiena urrian barrena: 1.384 langabe gehiago utzi ditu hilabete horrek, irailean baino %3,71 gehiago.

Datua askoz leunagoa, baina halere txarra da Gipuzkoan: irailarekiko igoera %1,3koa izan da (486 langabe gehiago), eta urria 37.685 langaberekin bukatu du.

Espanian, langabezia tasa %2,67 igo da, eta 3.808.353 langabe daude orain.

#### EZKER BATUA-BERDEEN KANPAINA

Langabeziarekin arduratuta, Ezker Batua-Berdeek, hileroko, herri bakoitzeko langabezia datuak dituzten kartelak jarriko dituzte. Euskadi osoan egingo dute hala, eta Debagoiengan ere bai. Asmoa da jendea kontzientziatzea eta herritarrak langabeziari aurre egitera animatzea. Isabel Salud debagoiendarrak, Ezker Batuko Presidentziaren bozeramaileak hauxe esan du: "Eraso-jarrera hartu gura genuen, atentzia deitza eta jendea estimulatzea: sindikatuak, alderdi politikoak eta herritarrak, denok antolatuta behar gara langabezia ez dadin gehiago igo".

### Langabezia herrika

| HERRIA         | LANGABEAK    | ALDEA*      | TASA         | ALDEA*        |
|----------------|--------------|-------------|--------------|---------------|
| Antzuola       | 97           | +7          | %10,66       | +%0,77        |
| Aretxabaleta   | 352          | -16         | %10,91       | -%0,46        |
| Arrasate       | 1.373        | -62         | %11,87       | -%0,53        |
| Bergara        | 723          | +4          | %10,08       | +%0,06        |
| Elgeta         | 40           | -1          | %8,13        | -%0,2         |
| Eskoriatza     | 246          | -20         | %11,83       | -%0,96        |
| Leintz Gatzaga | 12           | -1          | %9,02        | -%0,75        |
| Oñati          | 294          | -38         | %7,29        | -%0,7         |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>3.237</b> | <b>-126</b> | <b>3.237</b> | <b>-%0,41</b> |

\*Irailarekiko

ITURRIA: INEM

#### KOMUNIKABIDEAK > HITZARMENA

## GOITBk badauka emititzeko erakunde baimena, Lurreko Telebista Digital formatuan

Urte askoan legeztatu bako egoeran izan eta gero, azkenean baimen administratiboa du kateak, hitzarmena sinatuta asteen

#### L.K. > ARRASATE

Hainbeste urtean legeztatu barik emititzen ibili eta gero, aurrerantzean legeak errekonozitutako lekua eta erakunde publikoen baimena du GOITBk; hain zuzen, Lurreko Telebista Digital formatuan emititzeko baimena. Hori ziurtatzen duen kontratu administratiboa sinatu zuten eguztenezan Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregik eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Patxi Elolak. Kontratu horrek bermatzen du GOITBk datozen 10 urteotan emititu ahal izango duela.



Patxi Elola (Eusko Jaurlaritzak) eta Inazio Arregi (GOITB).

JULEN IRIONDO

#### EZINBESTEKO PAUSOA

Kontratu hori beharrezkoa zen GOITBk legez emititu dezan, kontratu hartuta itzalaldi analogikoa abenduaren 31n izango dela Debagoiengan.

Tokiko Lurreko Telebista Digitalaren lehiaketan, Debagoiengan emititzeko baimena lortu zuten gainerako hiru kateek ere sinatu behar dute kontratu bera.





Taxi gidariak Bergarako taxi geltoki berrian, Ibargarai kalean, egunean.

ENEKO AZKARATE

GARRAIOA > TAXIAK

## Taxi gidariak proposatu dute tarifarik ez igotzea 2010ean

Eskatu dute tarifa berezi bat ezartzea, garestiagoa, egun eta ordu berezietan

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Herri barruko taxi tarifak ez dira igoko datorren urtean. Hala proposatu du, behinik behin, Gipuzkoako Taxi Elkarteak eta hala onartzen dabilta egunotan ibarreko udalean. Udalei dagokie taxi tarifak zehaztea herri barruetan.

Taxi Elkartetik adierazi dute ekonomia krisiagatik eta krisiak Kontsumo Indizeen Prezioan "gorabeherak sortu" dituelako, 2010. urterako "oraingo prezioei eustea" proposatzen dutela eta hala aditzera eman diete ibarreko udalei. Bi tarifa motatan proposatzen dute eustea prezioei: batetik, 1 Tarifan; hau da, lanegunetan 07:00etatik 22:00etara. Bestetik, 2 Tarifan; hau da, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara eta

07:00etatik 22:00etara, zapatu, domeka eta jaiegunetan. 1 Tarifan hauek izango dira prezioak: gutxieneko tarifa, 3,1294 euro; egindako kilometroko, 0,9803 euro, eta zain egondako ordu bakoitzeko, 18,7223 euro. 2 Tarifan, ostera: gutxieneko tarifa, 3,1294 euro; egindako kilometroko, 1,5636, eta zain egondako orduko, 29,4314.

ESANAK

**"Tarifa berriak nahi ditugu ordutegi istilutsuenetarako"**

Emiliano Fernandez > Gipuzkoako Taxi Elkarteko presidentea

BESTE TARIFA BEREZI BAT

Taxien Elkartean beste tarifa berri bat proposatu dute: 5 Tarifa. Eta hori da Debagoieneko udalaren eztabaida sortu duena. Esaterako, Bergarako, Aretxabaletako eta Antzuolako udalek ez dute onartu eta ez da onartuko gehienetan. 5 Tarifan prezio hauek proposatu dituzte Gipuzkoako Taxien Elkartekoek: gutxieneko tarifa, 3,9118 euro; egindako kilometroko, 1,9545 euro, eta zain egindako orduko, 36,7892 euro. 5 Tarifa proposatzen dute gauez, jaiegun bezperetan eta jaiegunetan; hau da, "ordutegi bereziki istilutsu eta zergapekoetan", elkarteko presidente Emiliano Fernandez berbatan.

Gipuzkoako Taxilarien Elkartek proposatu dio Jaurlaritzari 6 Tarifa ere ezartzea; hau da, 5 Tarifaren kasuetan, baina herri edo hiri artekoetan aplikatzeko.

HEZKUNTZA > IKASLE EGUNA

## Arkatzak zorroztu eta "geroa marraztera" doaz ikasleak bihar Arrasaten

Ikasle Abertzaleak Antolakundearen eskutik, jai giroak eta aldarrikapenak bat Ikasle Egunean

E.A. > ARRASATE

Ikasleek geroa marraztera doazela aldarrikatu nahi dute Ikasle Abertzaleak Antolakundeak bihar, zapatua, Arrasaten egingo den Ikasle Egunean. Izan ere, jaia eta aldarrikapena, biak uztartu nahi dituzte eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: topaketak, manifestazioa eta ekitaldia; baina baita beste modu

batekoak ere, ludikoagoak: bazkaria, rock kontzertuak, antzerkia eta batukada.

MUren fakultatean, Goi Eskola Politeknikoan egingo dituzte topaketak, goizez: IAren ikuspuntutik euskal ikasleen erronken, eguneroko arazoaren eta aldarrikapenaren gainean jardungo dute: besteak beste, Bologna, Euskal Hezkuntza Nazionala, euska-

raren presentzia unibertsitatean, euskal curriculum, euskal ikasle mugimendua... Ikasleei zuzenduta daude topaketa horiek. Horretaz gain, manifestazioa eta ekitaldia ere egingo dituzte arratsalde-iluntzean, Seber Altubetik aterata.

3.000 LAGUN

Baina, esan bezala, jai giroan ospatu nahi dute Ikasle Eguna IAkoek eta ikasleekin ez ezik, edozein herritarrekin ospatu ere. Hala, trikiti-kalejira, herri bazkaria, antzerkia eta rock kontzertuak izango dira. Azken hori gauez, unibertsitatean, horretarako propio jarriko duten karpan. Des-Kontrol arrasatearrak izango dira izarrak eta Ikasle Egunerako egin duten abestia, *Geroa marraztera goaz* -Itziar Amuritzaren bertsolariaren hitzekin-,

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

## Hezkuntza eta politika ez dira nahastu behar

Hezkuntza sisteman aldaketak iragarri dituzte Jaurlaritzako agintariek. Sare publikoan gazteleraz ikasleko aukera haur guztiek izan dezaten bermatu nahi dute. Erabaki benetan harrigarria; batik bat, Nafarroan ere, Jaurlaritzan dauden agintari berdinak egonda, hezkuntza sisteman euskara ez bultzatzeko argudioetako bat denean matrikulazio falta. Hori horrela, euskaraz ikasteko eskaera gutxi dagoen tokietan, ez dago euskaraz ikasteko aukerarik, sare publikoan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, ikasketak gazteleraz egiteko eskaerak asko murriztu dira. Debagoienean, esate baterako, zenbat eskari egon daitezke A ereduaren ikasleko? Baina Nafarroan ez bezala, Jaurlaritzako agintariek eskari gutxi horiek bermatzea erabaki dute. Horrek hezkuntza sisteman gastu publikoa areagotzea ekarriko du, baina euskararen kasuan ez bezala, guztia da gutxi gazteleraz bultzatzea denean helburua.

Hezkuntza ez ei da politikarekin nahastu behar, ez ei da zuzen eta etikoa, baina desagertu egingo da Euskal Herria hitza kontzeptu politiko gisa testu liburuetatik. Hortaz, kontuz ibili beharko dute ikasleek aurrerantzean, Euskal Herria erabiltzen badute gutxiegi jarriko diete eta irakasleek. Hori bai, orain demokratik daude agintean eta nazionalista sektarioak oposizioan.

**> EAEko aurrekontuen harira, Hezkuntzak diru gutxiago izango du euskalduntzeko, nahiz eta diru gehiago jasoko duen. Sailaren aurrekontua %4,5 haziko da, baina hainbat alorrekin indarra galduko dute: hezkuntza sistema euskalduntzeko programa %8,3 jaitsi da.**

**> Txapelketa Nagusiko finalerdia jokatu da bihar Bergaran. 1.400 bat pertsona espero dira. Bukatu eta gero, herenak besterik ez bada ere, herrian geratzeko hautua egiten badu, azenolako giroa egongo den! Zorionak, Bergarako Udalarri, gestioagatik.**

## Egitaraua

**10:30** Ikasle topaketak unibertsitatean.  
**10:30** Umeendako jolasak; taloak eta barra; erakusketak eta ikasle-denda, Seber Altubean.  
**13:30** Triki-kalejira, ikasle topaketetatik bazkaria.  
**14:00** Bazkaria, Seber Altubean.  
**17:00** Kale giroan: antzerkia; Ikasle Musika maratonia, Taupa tabernan eta gaztetxean; batukada, kalean barrena...  
**18:00** Mirande Kabareta Kulturatan.  
**19:30** Manifestazioa Seber Altube plazatik abiatuta; amaieran, ekitaldia.  
**22:00** Kontzertuak Unibertsitatean: Des-Kontrol, KOP, Zea Mays, Esne Beltza; erromeria, Beste Bat taldearekin; Radio Afu...

estreinatuko dute, besteak beste. Haiekin batera izango dira Esne Beltza eta Zea Mays, beste batzuen artean.

Antolatzaileek 3.000 bat lagun batu nahi dituzte aurten Arrasaten Ikasle Egunean. "Ikasle eskubide urraketa guztien erantzulei marra gorriak jartzen dizkiegu fakultate eta eskoletan. Eta marra gorriak markatzeaz gain, geroa ere marraztu behar dugula esaten dugu", diote antolatzaileek. Hala, bada, etorkizuna arkatzeekin marrazten hasiko dira bihar, zapatua, Arrasaten; jai giroan, baina aldarrikapenak ahaztu barik.

Iaz 20 urte bete zituen IAK eta duela 11 urte hasi ziren antolatzen Ikasle Eguna, "ikasle topaleku izateko" asmoz: "urtean barrena ikastetxeetan egiten dugun borroka kalera ateratzeko".





zabalik

Manu Arregi

## Agora

lusioarekin joan nintzen Amenabarren pelikula berria ikustera. Kritika onak irakurri nituen filmari buruz, astronomiaren nire mundutik bereziki. Zinera bidean autoan nindoala, pozik nengoen, datozen urteetan ikastolako astronomiako klaseetan jarriko nuen pelikula ikusi behar nuelako. *Furia de Titanes*, *Apollo 13* eta *Contact* ikusten ditugu urtero. Ez dut inoiz *Agora* ipiniko.

Einsteinek zera esan zuen behin: "Bi gauza besterik ez da infinituak, unibertsoa eta giza burugabekeria. Eta lehenengoari buruz ez nago ziur". Giza burugabekeria da *Agora*. Eta benetan infinitua izatera heldu daitekeela erakusten du.

Pelikula oso egokia da nire filosofiako lankideei jartzeko edota etikako klaseetan eztabaidatzeko. Baina ez du astronomiaz hitz egiten neuk espero nuen bezala. Carl Saganen hipotesi bati heltzen dio Amenabarrek: Alexandriako liburutegia galdu izan ez balitz, agian orain gizakia Marten bizi izaten egongo zela, edota izarretara bidaiatzen. Hala ere, gehiegizkoa da Hipatiak Keplerren planeten orbiten elipseak eta Galileoren inertzia aurreratu zituenarekin jokatzea.

Zinearen hizkuntza ondo maneiatzen du Amenabarrek. Gaiztoek beltzez janzten dute zenbat eta gaiztoagoak, ilunago eta kolore argiekin onak. Eta Hipatia da film osoan agertzen den emakumezko bakarra. Puntu ahulak ere baditu. Hipatiak maitemintzen diren pertsonaiak interpretatzen dituzten aktore biek lan kaxkarra egiten dute. 55 milioi euro edukita, ez dut ulertzen nola irudikatzen den hain txarto zerua, planetario merke batetik hartutakoa dirudi. Eta Hipatiaren hilketa makillatzearen zergatia ez dut ulertzen. Baina filma gustatu edo ez, eztabaida biziak sortzen dituen pelikula da, gutxitan gertatzen den bezala. Eta burmuina martxan jartzen duena. Ez dela gutxi.

usteak uste

Mireia Bikuña

## Eskola kirolaren egoera Oñatin

Badira bi ikasturte eskola kirola barrutik ezagutzea tokatu zaidana. 9 urteko alabaren partiduetara joatea egokitu zait talde arduradun moduan. Iaz partidu guztiak kiroldegian jokatu genituen, baina aurten futboleko lehiak Azkoagainen jokatzeko gabilta. Batean zein bestean eskola kiroleko arduradunen lana azpimarratuko nahiko nuke. Azalpenak emateko gertu daude beti, eta norgehiagokak garaiz hasten dituzte. Neska-mutikoek ere biziki eskertzen dute eurekiko duten ardura. Horrela jarrai dezatela!

**"Pelikula egokia da etika klaseetan eztabaidatzeko, baina astronomiaz ez du berba egiten nik uste bezala"**

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

## Proposamen estrategikoa sarean

Pello Urzelai  
www.berria.info/blogak/pello

Txostena sarean eskuragarri jarri du ezker abertzaleak, [www.ezkerabertzalea.info](http://www.ezkerabertzalea.info) webgunean. Fase politikoaren eta estrategiaren argipena izenburuko txostenak ezker abertzalearen estrategia berriaren oinarriak jasotzen ditu. Txostenaren helburu nagusia "aldaketa politikoa gauzatzeko estrategia eraginkorra diseinatzea da".

Estrategia eraginkor honek ziklo berri bat ireki beharko luke, non Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko konfrontazioa "soilik bide demokratiko hutsetatik garatuko den". Horrela azaldu du Rufi Etxeberriak apustuaren zentzua, *Gara* eskaintako elkarrizketan. (...)

Askapen prozesuaren ibilbidea eta egungo abagunearen ezaugarri nagusiak aztertuta, egungo fasea "aldaketa politikoaren fasetzat" jo du ezker abertzaleak aipatutako

txostenaren. Horri begira, estrategia independentistaren diseinua jasotzen du txostenak, eta, horrekin batera, prozesu demokratikoa gauzatzeko proposamena. Txostenaren arabera, prozesu demokratikoaren helburua «aldaketa politikoa gauzatzea, eta horretarako, beharrezko indar metaketa eta indar harremanak mamitzea da". Proposamen hau bide politikoen aldeko apustu bat da.

Txostenean ez dago aipamen zehatzik ETaren inguruan, baina aipatutako elkarrizketan Rufi Etxeberriak ez du saihestu ETaren zereginari buruzko galdera. "ETAk erantzukizun handia du ziklo politiko berri bat ireki ahal izateko baldintzak sortzeko garaian eta, aldi berean, horrek marko demokratiko baten aldeko indar metaketa eragin ahal dezan".

Prozesu demokratikoa gauzatzeko lau urrats proposatzen ditu txostenak. Ezker abertzalea berrosatzea Herritar Batasunaren inguruan, independentisten bilgunea osatzea, herri harresi bat eraikitzea, gaur egungo salbuespen egoeraren salaketa eta irtenbide demokratikoaren aldarrikapena egiteko. Eta negoziazio frontea berreraikitzea.

koplak

Eñaut Uriarte

## Bertso txapelketa Bergaran

Bertso txapelketa hara aurrera doianez bada bertso on mordoz beteko jaku zapatu hontan Bergara.

Dragon kana martxan dago final laurdenak akabo semifinalen erronda orain Bergaran hastear dago.

Nahiz ta hau izan lehena hementxe jokatzeko dena esan dezaket berau dogula tokatu zeiken onena.

Zeren aurten txapelketa doia sorpresas beteta edizio hontan bertsoen maila oso altua da eta.

Jon Martin Gaztelumendi Mendiluze edo Fredi Maialen, Etxaun nor gerauko dan lehena ez dago argi.

Eta lekua aibala ez al da txikia, ala? Nik neuk uste dot gente mordua kanpua gerauko dala.

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berebizar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

**Publizitatea** Arretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaArretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**



Ikasle Abertzalekoak jo eta ke dabilta zapatuan Arrasaten egingo den Ikasle Eguna antolatzen. Ikasleen artean dabilta dena antolatzen. 20 bat lagun. Baina egunean bertan 200 izango dira lanean. "2.500 edo 3.000 lagun elkartuko bagina, oso pozik geratuko ginateke", diosku Ainhoa Mendibil IAko bozeramaileak. Aldarrikapen eguna jai giroan ere ospatu nahi dute.

Ainhoa Mendibil > Ikasle Abertzaleak (IA) Antolakundeko bozeramailea

# "Ikasle Eguna alai, baikorra eta positiboa izan dadila nahi dugu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Ainhoa Mendibil elgoibartarra da Ikasle Abertzaleak Antolakundearen bozeramailea. Kazetaritza ikasten dihardu Leioan, azken kurtsoa, eta, IAko buru izateaz gain, Ikasle Egunaren antolaketan buru-belarri aritzeko astia ere badu.

## Zer da Ikasle Eguna?

Ikasleon topalekua. Antolatzen dugu, urtean barrena ikas-tetxeetan egiten dugun borroka kalera ateratzeko.

## Zeren alde dihardu IAk?

Bologna prozesuaren inguruan, batez ere. Egun, badakigu Bologna prozesuak zela eragiten digun, dagoeneko aplikatzen hasi dira-eta: derrigorrezko klaseak, erabiltzen duen metodologia, eduki edo hizkuntza aldetik ekarriko dituen aldaketak... Badakigu zer eskubide urraketa dakarren, eta aurre egin nahi diogu.

## Zer dauka txarra Bolognak?

Dena margotu digute oso polit. Iraultza pedagogiko moduan saldu digute. Egungo hezkuntza sistemak iraultza behar du, bai Bolognaren aurretik eta baita Bologna aplikatu ostean ere. Baina konbergentzia nondik eta zertara datorren ikusita, garbi ikusten dugu iraultza pedagogikoa izan beharrean, homogeneizatzearen beste ondorio bat dela. Munduko Merkataritza Elkarteak zehaztu zuen 2010. urterako zerbitzu publikoak pribatizatu behar zirela eta Bologna prozesua da hezkuntza pribatizatzeko modu bat.

## Bologna ezberdintasunaren edo berezitasunaren kalterako doala uste duzue?

Bai, sakonean hori da, hezkuntza sistema homogeneizatzea bultzatzen duen prozesua. Ez diogu zentzurik ikusten Europa osoan ikasgai berdinak emateari. Horretaz gain, gaur egun euskal unibertsitatean, ustez Euskal Herriko Unibertsitatea delako horretan, euskarak daukan leku eskasa ikusita, zalantza eta beldurra ematen digu Bolognak euskarari ekarriko dioenak. Ingelesa izango bada lehen hizkuntza, non geratuko da euskara? Hirugarren hizkuntza moduan? Gainera, egungo hezkuntza sistemak ikasleon eskubideak urratzen baldin baditu eta kritiko izateko aukera gutxi ematen badigu, Bolognak okertu egingo du egoera. Ikaslea bihurtuko da langile huts, unibertsitate



Ainhoa Mendibil elgoibartarra, Arrasaten, joan den astean.

ENEKO AZKARATE

lanera doan ikaslea. Kreditu sistema berria ezarriko da, eta, sistema horren ondorioz, ikasleok astean 38-40 orduko lan jarduna izango dugu.

## Unibertsitateetik kanpo ere badiharduzue lanean?

Bai. Bigarren Hezkuntzan eta batxilergoan urtetik urtera geroago eta dekretu gehiago ateratzen dihardute, eta, esaterako, ikasleon greba eskubidea ukatu egingen da dekretu horietan. Atzerapauso eta eskubide urraketak etengabeak dira. 14 edo 16 urteko ikasle bati eskatzen zaio sekulako erantzukizuna une batzuetan, eta, oster, gurasoen sinadura behar dute greba egiteko. Ikasleak gero eta umeago bihurtzeko ahaleginen aurka dihardugu; adin horietan eskoletan kartelak jartzeko eskubidea ere aldarrikatzen dugu; ikasle gelak ere bai... Bestalde, inguru batzuetan, Iruñean edo Bilbon, ikastetxee-

BOLOGNA

**"Iraultza pedagogikoa izan beharrean, homogeneizatzearen beste ondorio bat da"**

IKASLE EGUNA

**"Marra gorriak markatzeaz gain, geroa ere marraztu behar dugu Ikasle Egunean"**

HEZKUNTZA SISTEMA NAZIONALA

**"Euskal Herriak badauka bere hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea"**

tan polizia gero eta sarriago sartzten da eskoletara eta ikastetxe kanpoaldeetan miaketak egiten dituzte, gero eta kamera gehiago daude... Kontrol horren aurka gaude.

## Zelan ospatu nahi duzue aurtentzen Ikasle Eguna?

Jai giroan. Egunero burumakur egonda ez dugu ezer lortuko. Egun alai, baikor eta positiboa izan dadila nahi dugu, eta, horregatik, eskaintza erakargarria egin dugu, bai ikasleondako, baina baita ikasle izateari aspaldi laga ziotenendako ere. Herri eta jai giroan opatu nahi dugu eguna, gure aldarrikapenak ahaztu barik. Edozein herritar izan daiteke ongietorria.

## Zenbat lagun espero duzue zapatuan Arrasaten?

Iaz 20 urte bete zituen IAk eta 4.000 lagunetik gora elkartu ginen; aurtentzen, jende asko barik,

lelo baten inguruan batuko den jendea nahi dugu eta 2.500 edo 3.000 lagun elkartuko bagina, oso pozik geratuko ginateke.

## Zer aldarrikatuko duzue aurtentzen nagusiki Ikasle Egunean?

Geroa marraztera goazela. Hori da jaiaren lelo nagusia eta hori ulertzeko azaldu behar da aurtengo ikasturte hasieran abian jarri genuen kanpaina. *Markatu marra gorriak* da kanpaina horren leloa. Ikasleon eskubide urraketa guztien erantzulei marra gorriak jartzen dizkiegu fakultate eta eskoletan. Eta marra gorriak markatzeaz gain, geroa ere marraztu behar dugula esaten dugu. Herria eraikitzen gabiltza: hezkuntza sistema nazionalaren aldeko mugimendua, euskal curriculum, euskal unibertsitatea, eskolak euskalduntzeko izugarritzko ahalegina... Hori guztia eraikitzen jarraitu behar dugu eta horregatik goaz marraztera geroa Arrasaten.

## Gune bati Hezkuntza Sistema Nazionalai izena jarri diozue. Zer da, IAren ustez, Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala?

Ukatu zaigun eta dagokigun zerbait. Herri bat gara eta Euskal Herriak badauka bere hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea, herri horrek daukan eduki eta hizkuntza garatzeko tresna. Poliki-poliki lortuko duguna.

## Arrasateko ze lekutan egingo duzue Ikasle Eguna?

Goizeko ikasle topaketak unibertsitatean izango dira, baina Hezkuntza Sistema Nazionalaren gunea Seber Altuben izango da, eta baita bazkaria ere. Arratsaldean, hainbat eskaintza izango da: kabareta Kulturaten, batukada herrian barrena eta ikasle musika maratoia Taupa tabernan eta gaztetxean. Maratoi horretan parte hartuko dute gure webgunean izena eman duten ikasle osatutako taldeek.

## Ikasle Egunerako kantua Des-Kontrol talde arrasatearrak egin du. Zelakoa da?

Des-Kontrol taldearen ohiko abestia da. Bestalde, mezua da geroa marraztera goazela, baina atzetik doazen besteak ahaztu barik: marra gorriak, dekretuak, Bologna... Abestiak kontatzen du Ane eta Peru badoazela Arrasatera, amantal arrosa eta urdina erantzi, arkatzak zorrotzu eta geroa geure kolorez marraztera.



## Oñatiko Arranoa margotzea ahaztu egin zaizue?

Andoni Igartua  
Oñati

Joan zen larunbatean, Kalebarritik behera nindoala, sorpresa eraman nuen. Kaleko pareta guztietan Oñatiko presoen aurpegiak ageri ziren margotuak. Bata bestearen atzetik. Plazako zutabeak ere pintadez josiak.

Graffiti hauen arrastoa jarraitzen ari nintzela, bat-batean, ikusi nuen arrastoa egiten zela Etxeberrira jatetxearen parean. 10 bat metro ezer margotu gabe, justu Arrano taberna dagoen tokia. Ezta bere ondoan dagoen portalean, non, ze kuriosoa, Oñatiko ezker abertzaleak bere bulegoa duen.

Hori bai, portaletik aurrera, beherantz pintadak berriz agertzen ziren eta Arrano parean dagoen Galartza farmaziako paretak graffiti egileek fusilatu egin zituzten beraien obrekin.

"Baina zer dira ba lau pintada gatazka nazional bati buruz ari garenean?", esango du batek baino gehiagok. Iritziak iritzi, beti pentsatu izan dut etxeetako paretetan pintadak egitea goian bizi direnekiko errespetu falta handia dela.

Ez nekiena zen pintadak egiten duten horiek beraien ere berdina pentsatzen zutenik. Hori bai, dirudienez errespetua bakarrik beraien sokakoak direnei zor zaie. Besteak, izorratu daitezela.

## Baserri puntatik..., historixak

Idoia Azkarate  
Antzuola

Ez dakit norbaiti interesatzen zaizkion baserriko gorabeherak, arazoak, zailtasunak, pozak eta satisfaziñuak. Gu saiatuko ga gure esperientzia kontatzen eta nahi duenak..., jaso dezala hordagoa.

Guk ardiak ditugu, gure zelaietan eta mendian bazkatzan diren ardiak. Urtero izaten ditugu komeriak txakur jendearekin, urtero ardiran bat hilda edo bi edo hiru eta hainbat desagertu, kume hil...

Aurtengo udazken hasieran, ardiak etxera ekarri eta zenbatu ondoren lau ardi falta zirela konturatu giñen. Kantina aldera abiatu eta han ikusten ditugu, bi ardi hilda, bat kontenedore gainian eta bestea errepedearen bestaldean itxituraren kontra. Udaltzainei deitu genien eta hauek txakurtegiko arduradunari.

Txakur bat hantxe zegoen, kontenedore gaineko ardi jaten, zirudienez eta bertako beste baserriar batzuek esanda, txakur bat baino gehiago omen ziren arditan ari zirenak aurreko gauean.

Gauza da txakur bat bertan ari zela ardi jaten, bakarrik, nagusi gabe eta iñor ez zela gai ezer egiteko, txakurtegioko saiatu zen bereganatzen, udaltzainak ez ziren kapazak izan ezer egiteko, ba omen zeukaten animaliak lokartzeko indiziñoren bat, baina kadukatua omen zegoen, eta beraien kompetentzia ez omen zen.

Gauzak horrela, Ertzaintzari deitu genion. Haiek denuntzia bat jarri behar zela esan ziguten, lan danak utzi eta basera jun, denuntzia sartu, berriz etxera. Handik ordu batzuetara, azaltzen dira ertzainok, bertan zegoen oraindik txakurra, ardi bapo jaten eta zer esango ertzainek eta... beraien kompetentzia ere ez zela txakur hori akabatzea... Ja, ja, ja, barre egiten dugu negar ez egiteagatik.

Han gelditu ginen ardi hilda, txakurra ardi jaten eta gu kriston tonto aurpegixakin. Gure artaldian 2 hildako, 2 zauritu, 4 desagertu e.a. ditugu. Eta nori inporta zaio benetan artzain bati suertatzen zaizkion desgrazia hauek? Inori.

Mendian gero eta txakur jende gehiago dabil, solte, eta gainera txakur jabe askok ardiak edota animalia talde bat ikusten dutenean txakurra xaxatu egiten du, jolasa bailitza. Ez dakite animaliek zein estres sufritzen duten horrelako tratu bat jasaten dutenean, eta zer esanik ez ernai (umea egiteko) badaude.

Gertaera hauen aurrean eta arduradunek duten inoperantzia ikusita, galdera bat luzatu nahi genuke: txakur hauek ardiei eraso egin beharrean pertsona bati eraso eginez gero, zein izango ote zen erantzuna? Inoperantzia berdinarekin jokatu ote zuten? Nor da benetan gai hauen aurrean arduraduna? Sentsibilizazio kanpaina bat eskatuko genuke, mendian kartel informatiboak jarritz eta autoritateak behar diren materialez osatuz.

Lehenengo sektorean bizi garenon aldeko apustu serioa eginez, mendian animaliak bazka daitezela eta artzaintzak

biziraun dezan gure lurraldean, bide batez kaleko jendeak ere izan dezan mendiaz gozatzeko aukera.

Bestalde, artzaintzatik bizi garenontzat sasoi politikak dira hauek, garo biltzea, txori migrazioak, basoetako kolore anitz bezain ederrak eta, nola ez, garai honetako egunsenti zoragarriak.

## Ikastolak, kezkatuta, hezkuntzako eztabaidaren politizazioa dela-eta

Xabier Oleaga  
(Ikastolen Elkartearen izenean)  
Donostia

Ikastolen Elkarteak kezka dakusa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saitetik sustatuta sortutako eztabaida politikoa, hezkuntza gaietan aurreko Gobernuaren zenbait dekreturi egindako aldaketak direla eta.

Oraindik ez daukagu iritzi landu bat egindako eraldaketen edukari buruz, ez dugulako astirik izan irakurketa lausotua burutzeko, taldeko kontraste nahikorekin. Baina hasteko guztiz desegokia deritzogu Hezkuntza Sailak hezkuntzako aldaketak janzteko harilkatu duen diskurtso politikoari.

Errebantxa eta jario inkisiziozalea liskar politikoa-ri dagozkio eta ez hezkuntzako eztabaidari. Ez dute gogoeta kolektibo eraikitzailea elikatzen eta bai ordea zurrumbilo desorekatzailez betetzen

hezkuntzako komunikazio-bidea. Hitz gutxitan, sailburuaren adierazpenek denetarik daukate egokitasuna izan ezik, eztabaida osasuntsua sustatze aldera. Hezkuntza komunitateak beste zerbait merezi du.

Hezkuntza eredu bezala ikastola hautatzen duten familiei ordea lasaitasuna helarazi nahi diegu. Alde batetik Euskarak jarraituko du izaten gure ikastoletako hizkuntza behikularra, jatorriz izan den bezala. Ikastolek hizkuntza alorrean daukaten planteamendua, eleaniztasuna, Europako aurreratuen artean dago. Emaitzek ere hala azaleratzen dute.

Beste alde batetik, Euskal Herria kontzeptuak, bere izaera europarrean, mugaz gaindikotan, erreferente integral bezala jarraituko du gure curriculumean (hizkuntzaz, lurraldez, kulturaz zein soziologiaz; historikoki zein gaur eguneko neurri). Hitz gutxitan, lurralde baten gainean kokatutako gizartea iraganen bezala orainaldian ere, beste konplikaziorik gabe. Portzietan, hau ere curriculum proiektu konpartitua jarraiki, hezkuntza gaietan herri honetan erdietsi den kontsensurik zabalarenekin hain zuzen ere.

Hezkuntza sailburuak egunotan egindako adierazpenekiko ikuspegi kritikorekin batera diogu ikastolen eskua luzatuta ere badagoela korapilo interesaturik gabe eztabaidatzeko bada. Hezkuntza sailak ahalbidetutako liskar hau hezkuntza komunitate osoari dagokio. Komunitate horretako kide bezala prest gaude edozein proposameneri buruz zibilizatu jarduteko. Baina horretarako beharrezkoa da neurri, lasaitasun eta distentsioko giroa sortzea.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com



IKUSI  
MAKUSI  
Umeen paradisia



**GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA  
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON  
SARTU DUGU BARRUAN.**

**gazte** kutxa

Aholkulari pertsonala,  
bizi-bizi eta aurrez aurre,  
behar duzun guztirako.

Telefono, bideokonferentzia  
edo txat bidez.

**10etatik 10etara**  
bezero izan nahiz ez  
**gazte**kutxa.net

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**





# Haur kantari onenak ikusteko sarrerak opari. Nahi?

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara, deitu 943 08 10 50 zenbakira eta  
**LORTU SARRERAK DOAN\***

**KULTUREN ARTEKO TOPAKETA**  
**Azaroaren 14an, larunbata. 12:00etan Arantzazuko Basilikan.**

Gaur egungo hiru Eskolania onenetakoen kontzertua: Easo Eskolania, Escorial Eskolania, Montserrat Eskolania.

Babeslea:



Antolatzailea:



Harpidedun egiteko:

943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

**Goienkaria**  
ASTELEHENEKO  
astelehenean, aste bukaera osoa

\* Pertsona bakoitzeko bi sarrera emango dira. Sarrerak agortu arte.



# Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-22 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27  
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> **BERGARA**  
Bizikletaz egindako bidaia baten ikus-entzunezkoa emango dute > **20**



> **OÑATI**  
Arkeologoak esango du kapera azpian aztarnarik dagoen > **27**



> **ELGETA**  
Autoek ezingo dute hainbat kaletan ibili datorren urtean hasita > **31**



> **LEINTZ GATZAGA**  
San Milixanera autobusean joateko eskatu du Udalak > **33**

OÑATI > ONDAREA

## I. Arantzazu Eguna izango da etzi, eta aurtengo izarra kriptak izango da

### GERTUTASUNA

Arantzazu jendeari hurbiltzeko jaia urtero egongo dute

### BIRMOLDAKETA

Kriptak eta Nestor Basterretxearen lana berriro egin dituzte

### INAUGURAZIOA

Domekan, berriro inauguratuko dute kriptak, artista han dela



Nestor Basterretxeak Arantzazuko kriptan egindako zenbait margolan; horien itxura berriro etzi aurkeztuko dute.



ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

### LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Arantzazu jendartearengana gerturatzeko eta jendartea, Arantzazura: helburu nagusi horrekin, I. Arantzazu Eguna antolatu du etzizko, domeka, Arantzazuko Adiskideak elkarteak. Urteroko hitzordu bihurtuko da, eta urtero Santutegiko ikuspegi edo balio bat azpimarratuko da.

Lehenengo urteko edizio honetako protagonistetako bat, baina, Arantzazuko kriptak berriro izango da. Egunotan, itxura berriaren misterioa gorde nahian, hedabideek ezin izan dute haren irudirik egin; izan ere, etzi aurkeztuko dute denon begitara kriptak berriro. Horretarako, hango murala egin zuen Nestor Basterretxe artista etorriko da Arantzazura.

Muralak 25 urte betetzen dituen honetan erabaki dute astindu bat ematea: "Ez zegoen bere une onenean: hezetasunarengatik, eta argiak ere ez zitzaizkigun gustatzen. Batez ere, argiak aldatu ditugu, eta aldaketa handia izan da. Bestalde, bankuak kendu ditugu, eta irudien arteko tarte hutsak bete ditugu. Bata-sun handiagoa du, askoz dotoreagoa da, askoz goxoagoa eta ikus-teko atsegina", dio Iñaki Beristain frantziskotarrak eta Arantzazuko Adiskideak elkar-teko kideak.

Beste arrazoi batzuk ere aintzat hartu dituzte: Basterretxeak eta frantziskotarrek adiskidetasun akordioa berriro sinatu izana, modu sinbolikoan amaitu zuena Barrenetxearen historiaren aldi bati; Oteizaren mendeurrena ere orain gutxi ospatu izana; eta Arantzazu osoa berriro eta sustapen prozesu baten erdian egotea. Kriptak berriro ahalbidetzeko, Arantzazuko Kriptak 25 Urte delako proiektuan indarrak batu zituzten Adiskideak.

Horrez gain, kriptaren balio historiko eta artistiko ukazina gogorarazten dute antolatzaileek, eta haren "interes orokorra", kon-

tuan hartuta Arantzazura 200.000-300.000 bisitari datozela urtero.

Azkenik, ospakizun horrekin hirugarren helburu bat bete gura dute: "Arantzazuri eskainitako eguna ospatzea, eta horren inguruan, festa-giroan, ehunka lagun biltzea eta hurrengo urteetan errepikatu dadin", diote Arantzazuko Adiskideak.

### HILEAN 5 EUROREN TRUKE

Ospakizun egun hori beste helburu bat betetzeko ere erabiliko dute Arantzazuko Adiskideak: hain zuzen ere, *adiskide* gehiago lortzeko. Iñaki Beristain frantziskotarrak dioen moduan, "Arantzazuk adiskide gehiago behar ditu". Horregatik, bazkide-tza kanpainari ekingo diote etziko festa egunaren berora, beste 500 bazkide edo *adiskide* bildu nahian, hilean 5 euro edo urtean 60 euro emanez laguntzeko gertu egongo direnak. Kanpaina horrek martxoaren 8ra arte iraungo du, eta, Adiskideen esanetan, "bere emaitza onaren eta egungo bazkideen kuoten mende egongo da horrelako egitasmoak etorkizunean bultzatzen jarraitzeko aukera izatea". Kanpainari bultzada berezia emateko, horretarako gertu dagoen jendeari eskatuko diote, norberak ahal duen neurrian, bazkide gehiago erakar ditzala elkartera.

Arantzazuko Adiskideak elkarteak modu honetara dago osatuta: 700 norbanako bazkide eta bost erakunde edo elkarte, horiek ere bazkide direnak: frantziskotarrak, Tau Fundazioa, Baketik, *Arantzazu* aldizkaria eta Edizio Frantziskotarrak argitaletxea. Bere helburua da Arantzazu eta jendartea elkarren hurbilean egon daitezela. Horretarako, urtero, bide horretatik doazen zenbait proiektu aukeratzeko dituzte elkarteak, bere bazkideen kuotek ahalbidetzen duten diruarekin. Hain zuzen ere, kriptak berriro izan da 2009rako Arantzazuko Adiskideak hartu zuten konpro-

### ESANAK

"Kriptak batasun handiagoa du, eta askoz dotoreago, goxoago eta atsegina dago"

"Kanpaina hasiko dugu, 'adiskideak' lortzeko; Arantzazuk behar ditu"

Iñaki Beristain > Frantziskotarra

miso nagusia: alde batetik, hura birmoldatzeko lanak diruz lagunduta; eta, bestetik, itxura berriaren aurkezpena eginez.

### SENTIMENDUA

Jendartearikiko gertutasun hori ezinbestekoa du Arantzazuk bere etorkizunerako; eta, Arantzazuko Adiskideen ordezkari Iñaki Beristainek dioen moduan, "mailak" daude jendartean Arantzazu sentitzen duen eran: "Oñatiarrek eta arrasatearrek, adibidez, oso bere sentitzen dute Arantzazu; hasieratik horrela izan da. Gipuzkoar askok ere horrela sentitzen dute". Beristainek onartzen du, Arantzazutik urrutuntzen doazen neurrian, ahulago dela sentimendu hori, eta "hurbiltasunak, ohiturek... eragina" dutela esaten du. Hala ere, "gaur egun, gipuzkoarrendako leku eredarria da Arantzazu", esaten du frantziskotarrak.

Bizkaian ere, nahiko indar duela esan ondoren, gaineratzen du "Arabian, lehen handiagoa" zela sentimendua, eta Nafarroan ere, "bereziki, euskal alderdian" bizi direnak gorde dutela gertutasun edo erreferentzialtasun zentzu hori.

"Lan handia dago egiteko", onartzen du Beristainek. "Behar bada, guk ez dugu komunikazio lan hori ondo egiten jakin; gehiago egin behar da", esaten du.

### Goizean goizetik hasita ekintzak

- 09:00 Gomiztegiko bide egokitutik ibilbidea.
- 10:00 Kriptako muralak bukatu zituztela 25 urte dira, eta birmoldaketa aurkeztuko dute.
- 11:00 Kriptaren berrinaugurazioa, Nestor Basterretxearekin.
- 12:00 Meza entzungo dute.
- 13:00 Trikitilarien eta bertsolarien emanaldia.
- 13:00 Herri bazkaria hotelean, aurrez izena eman dutenentzako.



EKONOMIA &gt; 2010EKO ORDENANTZA FISKALAK

# Udal ordezkari politikoak, datorren urteko zergak izoztearen alde

Hori bai, hainbat salbuespen ere badira: ura %3 igotzea eta AUKEA %2

Bestalde, zerga berri batzuk sartu dituzte; adibidez, Garagartzako ortuen gaineko zerga

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasatearrek zergetan datorren urtean aurtengo diru bera ordain dezaten gura dute Udaleko talde politikoek. Hala onartu zuten Ogasun batzordean (Hazienda).

Hori bai, salbuespen batzuk ere badira Ogasun batzordeak onartutako proposamenen. Nabarmenenak dira uraren %3ko igoera eta AUKEAko zerbitzuen %2ko igoera.

Kopurutan begiratzen badugu, uraren zerbitzuagatik ur kontagailuen araberako prezioa kobratuko dute. Normalena izaten da etxeetan 15 milimetroko kalibredun kontagailua izatea. Bada, horregatik ordaindu behar da 19,65 euro hiru hilero. Eta horri gehitu behar zaio kontsumoaren araberako tarifa. Hala, 50 m<sup>3</sup>-ra arteko kontsumoarengatik tarifa da 0,49 euro m<sup>3</sup> bakoitzeko; eta 500 m<sup>3</sup> kontsumoarengatik tarifa da 0,98 euro m<sup>3</sup> bakoitzeko.



Neska-mutiko batzuk tenisaren jokatzeko, AUKEAren instalazioetan.

GOIENKARIA

## Zergen gaineko hainbat datu

|                    |                        |
|--------------------|------------------------|
| Ura                | 19,65 euro hiru hilero |
| Zaborra            | 47,63 euro sei hilero  |
| Igerilekua         | 117,80 euro (helduak)  |
| Kiroldegia (plusa) | 176,65 euro            |
| Errausketa         | 295,80 euro            |
| Beilatokia         | 60 euro                |
| Ortuak             | 54 euro hiru hilero    |
| Ibilgailuak        | 2,2ko koefizientea     |

ITURRIA: OGASUN BATZORDEA

## HIRU EMENDAKIN

## Alternatiba-Zutik koalizioaren emendakinak

Alternatiba-Zutik koalizioak hiru emendakin aurkeztu dizkio ordenantza fiskalen proposamenari, eta emendakin onartu ezean, kontra bozkatuko duela iragarri du. Batean dio ortu publikoengatik hiru hilero 54 euro edo urteko 216 euro ordaintzea larregikoa dela. Era berean, uste dute langabe zein pentsiodunendako beharpenak ezarri beharko lituzketela, kiroldegian egiten duten moduan. Hala, proposatu du hiru hilero 36 euro kobratzea eta langabe eta pentsiodunek, berriz, hiru hilero 15 euro ordain dezatela.

Beste emendakin bat Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokio. Hori igotzea proposatu du koalizioak. Eta azkenik, plusbalioen gaineko zerga progresiboagoa egiteko eskaera ere egin dute, bidezkoagoa izan dadin.

## KIROLDEGIKO ZERBITZUAK

Bigarren salbuespenari dagokionez, berriz, %2ko igoera orokorra aplikatzeak honako prezioak ekarriko ditu kiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik: adibidez, abonua plus individualarengatik 176,65 euro, eta familiarrarengatik, 276,95 euro. Debagoieneko txartel individualarengatik 142,55 euro eta familiarrarengatik 198,70 euro. Eta udako abonua individualarengatik 58,90 euro eta familiarrarengatik 92,25 euro.

## HILERRIA ETA BESTE, BERDIN

Gainerako tasak bere horretan utzi gura dituzte. Adibidez, hilerriko zerbitzuena, zaborrarena, Ibilgailuen Gaineko Zergarena (zirkulazio zerga) edo Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergarena (IBIarena).

Beste salbuespen bat aipatzearen, zerga berriak sartu dituzte txostenean. Adibidez, Garagartzako ortuak erabiltzeagatik zerga (54 euro hiruhilero, 216 euro urtean). Alternatiba-Zutik ez dago horrekin ados eta emendakina aurkeztu du.

Beste zerga berri bat izango da telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabetza erabiltzearen kobratu gura dieten zerga.

Hori beraz, udal gobernua proposatu eta Ogasun Batzordeak onartutakoa EAJ, PSE, PP eta EAren aldeko eta Alternatiba-Zutik-en kontrako botekin (emendakinengatik). Aralar ez zen izan.

EKONOMIA &gt; HITZARMENA

# Fagorri salduko dio Udalak olio edukiontzien patente eskubidea

Hamaika edukiontzi berri ipiniko dituzte Arrasaten, eraginkorragoak

U.M. &gt; ARRASATE

Etxean erabiltako olioak batzeko edukiontziak komertzializatzeko enpresa sortu du Fagorrek: Eko3R. Izan ere, Arrasateko Udalak edukiontzi horien patentea lagako dio Fagorri 277.793 euroren truke. Atzoko (eguna) osoko bilkuran ziren lantzeako bi aldean arteko hitzarmena.

Eko3R enpresak lehenengo eta behin egingo duena da hamaika edukiontzi berri sortu, Arrasaten ipintzeko, gaur egun dauden zazpi edukiontzien orde. Oraingo edukiontziak baino eraginkorragoak izango dira berriak

eta oraingoak baino pote handiagoak onartuko ditu, 1,2 litrokoak. Guztira, 200 pote hartu ahal izango ditu edukiontzi bakoitzak.

Funtzionamenduari dagokionez, orain artekoen moduan funtzionatuko dute: hau da, herritarrek etxean erabili duten olio potea edukiontzian sartu beharko dute eta haren truke beste pote bat eskuratuko dute hurrengo baten ere olio era dezaten.

Hori bai, olio edukiontzien Arrasateko frogaldiko urteotan izan dituzten akatsak konpondu beharko ditu Eko3R enpresak, Udalak hala eskatuta.

## BOST URTERAKO AKORDIOA

Bost urterako hitzarmena da Udalaren eta Fagorren artekoa. Bost urteotan ordaindu beharko dizkio, beraz, Fagorrek Udalari 277.793 euroak. Baina ordainketa osoa ez dute dirutan egingo. Adibidez, Arrasaterako egingo dituzten 11 edukiontzi berriak doan emango dizkiote Udalari (bakoitzak 4.357,74 euro balio du); eta bost urteotan Eko3R arduratu da edukiontzi horietan utzitako olio batzeaz.

Zehaztu dute, baita ere, 19.450 pote emango dizkiotela Udalari: herritar bakoitzeko 0,75 pote (etxe



Edukiontzi berrien prototipoa, Eko3R enpresak egin duena.

EKO3R

etxe banatuko dute pote bat familiako), gehi edukiontzi bakoitzak izango dituen beste 200 pote.

Horrez gain, zehaztu dute Eko3R-k patentea atzerrian erregistratuko balu, Udalaren izenean egin beharko lukeela.

## URTERO 16.000 LITRO

2007an ipini zituzten zazpi olio edukiontziak Arrasaten; MUK, Saiolanek eta Udalak elkarrekin egindako proiektua da hori. Harrezkero, urtero batez beste 16.000 litro olio pasatxo batu dute.



**AISIALDIA** > ERDIALDEA

# Gazteendako ekimenak asteburuetan

Erdigunea Piztu izeneko ekimenaren barruan, hilero ekintzak egingo dituzte

Erdialdean gazte txokoa zabaldu bitartean landuko dute ekimen berritzaile hori

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Jakinekua da, eta adituek ere hala ikusi dute, gazteek euren aisialdia betetzeko aukera falta dutela sarri. Arrasateko Udalak ere ikusi du hori gertatzen dela, "aste bukaeran, erdialdean eta nerabe-erdi begira batez ere". Arkaitz Biainek, Gazte Saileko arduradunak esan du orain dela lau urte egingandako azterketa batek erakutsi zuela errealitate hori, eta guraso bazuere ere eskatuta dutela gazteendako gauzak antolatzea.

Hori horrela, Udalaren asmoa da Txatxilipurdirekin elkarlanean gazte txokoa zabaltzea, erdialdeari zerbitzua emateko.

Baina, oraingoz, gazte txoko hori proiektua besterik ez da eta udal iturriek diote "errealitate bihurtua ikusi arte denbora pasako" dela. Hala, bien bitartean, Erdigunea Piztu programa abiaraziko dute, "erdigunean eta aste bukaeretan antolatuko" dituzten ekintzen bitartez.

**AZAROAREN 14AN HASI**

Programaren estreinaldia azaroaren 14an egingo dute. *Altxorren bila erraldoia* antolatuko dute egun horretarako, eta baita kontzertu bat ere. Xehetasunak, baina, oraingoz ez dituzte helarazi.



Arrasateko hainbat gazte kalean, denbora pasa.

U.M.

Bai jakinarazi dutena da hurrengo hitzordua abenduaren 5erako egin dutela. *Mihiluze* lehiaketa eta ikuskizuna iragarri dituzte ordurako.

**NERABE GUZTIENDAKO EKIMENAK**

Erdigunea Piztu programaren ekintzetan parte har dezakete "12-17 urte bitarteko Arrasateko gazte guztiek", hala dio Lander Jua-

ristik, Txatxilipurdiko gazte txokoen arduradunak. Izan ere, programa berria gazte txokoetako eskaintzaren osagarria izango da: "Gazte txokoek astelehenetik zapatu goizera egiten dituzte ekimenak eta Erdigunea Piztun ekitaldiak beti egingo ditugu zapatu arratsaldeetan eta domeketan, gazteek aisialdirako denbora gehien dutenean".

## oharrak

IKASTAROA

**> Sendabelarrak, bihar**

Bedoña Batu elkartearen eskutik bihar, zapatua, sendabelarren ikastaroa egingo dute. Hitzordua da Bedoñako eskola etxean, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko: 630 05 91 98.

IKASTAROA

**> Bitxigintza eta fimoa bihar**

Bitxigintza ikasi eta fimoarekin eskulanak egiteko tailerra antolatu du Txatxilipurdik biharko, 13:30ean, Santa Marinako ludotekan. Haurrei eta helduei zuzendutako deialdia da. Izena ez da aldezturik eman behar.

IKASTAROA

**> Gizarte Trebetasunak**

Elkarteetan dihardutenendako edo boluntario izan gura dutenendako gizarte trebetasunak lantzeko ikastaroa antolatu du Udaleko Prebentzio Sailak. Izena eman behar da azaroaren 12a baino lehen. Azaroaren 17an, 18an eta 19an landuko dute gaia, Kulturaten.

KINTOAK

**> 1956koak, bihar**

Bihar joango dira Errioxara 1956an jaiotakoak. Izena eman dutenendako hitzordua egin dute 09:00etarako, Gari-  
baiko autobus geltokian.

## Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



MUSIKA &gt; GOIKOBALU ABESBATZA

# Ganbara Gazte, ospakizunekin bat

Oñatiko abesbatzak kontzertua emango du gaur Goikobaluren urteurren ospakizunen barruan, errepertorio "interesgarri" batekin



Oñatiko Ganbara Gazte abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur San Juan Bataiatzailea elizan (20:00).

GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Goikobalu abesbatzak aurrera segitzen du urteurren ospakizunekin. Goikobaluk 20 urte bete ditu; Goikobalu Txikik, berriz, 15 urte. Eta, noski, halako urteurrenek ospakizuna merezi dute; bate-tik, orain arteko ibilbideari omenaldia egiteko, eta, bestetik, halako ospakizunek eragin ohi duten taldearen indarberritzea aprobetxatuz, aurrera egiteko.

Hala, urteurreneko egitarauari erreparatuz, gaur izango da aste honetako hitzordua. Izan ere, Goikobaluk aspalditik bide-

lagun duen Oñatiko Ganbara Gazte abesbatza izango du gonbidatu. San Juan Bataiatzailea elizan da kontzertua, 20:00etan.

## "ERREPERTORIO INTERESGARRIA"

Aitor Biain Ganbara Gazte abesbatzako zuzendariak jakinarazi duenez, "oso pozik" daude Goikobaluren urteurreneko ospakizunetan esku hartuko dutelako. Kontzertua bi ataletan banatu dute:

lehen zatiak Elizako musika izango du oinarri, eta Biainek aurreratu duenez, "saio polifonikoa" izango da. Hots, denetarikoa erregistroak entzun ahalko dira. Kontzertuaren bigarren parte, aldiz, oso bestelakoa izango da. Hala deskribatu du Biainek: "Oh happy day formatua izango du; modernoa eta ezberdina izango da, eszenifikazio ikusgarriarekin". Horretarako "errepertorio interesgarria"

prestatu dutela gaineratu du gazte abesbatzako zuzendariak.

## BI KONTZERTU GEHIAGO

Datorren zapatarako, hilak 14, Errenteriako Orereta abesbatza gonbidatu du Goikobaluk. Eta azkenik, hilaren 20an helduko dira ospakizunak puntu gorenera: orduan, Goikobaluko talde guztiek batera egingo dute kantuan, estreinaldi eta guzti.

ERAKUSKETA &gt; ARGAZKILARITZA

# Ama lurrak aurten utzitako irudi onenak, Kulturaten

Gaur zabalduko dute 'Naturaren argazkilariak 2009' erakusketa

J.B. &gt; ARRASATE

Albiste pozgarria argazkilaritza maite dutenentako: gaur helduko da Arrasatera *Naturaren argazkilariak 2009* erakusketa.

Hala, Kulturateko klaustroan, naturak utzitako irudi ikusgarriak osatutako argazki bilduma izango da ikusgai. Guztira, 83 argazki ipiniko dituzte paneletan. Erakusketa hilabetez egongo da zabalik; abenduaren 6ra arte, hain justu. Hori bai, astelehenetan itxita egongo da. Honakoa da ordutegia: martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

## GOI MAILAKO ARGAZKILARITZA

Naturako argazkilaritza lehiaketa entzutetsuena da *Naturaren argazkilariak*. 1964an sortua, makina bat argazki jasotzen da urtero. Iaz, esaterako, 32.350 erretratu jaso zituzten, 82 herrialde ezberdinetatik. Datu hori nahikoa da erakusketarako aukeratzen diren argazkien kalitateaz konturatzeko; zalan-



Erakusketako argazki bat.

GOIENKARIA

tzaren bat duenak bisita dezala erakusketa.

## NATURAREN EDERTASUNA ISLATZEA

Lehiaketaren helburua da naturaren edertasuna jaso eta erakustea. Horretarako, mundu osoko argazkilari profesionalak eta zaleak dei egiten diete. Emaizta, esandako moduan, Kulturaten ikusgai abenduaren 6ra arte.

**"Alarmak isildu dira. A Gripea ia nabaritu gabe igaroko dugun susmoa denon ahotan dago"**

Horratx kazetari naizen alde-tik neure buruari egiten diodan galdera.

Azkenean, baina, badirudi uestezko izurritearen ondorioak uste baino txikiagoak izango direla. Mundu osoan 300 bat lagun hil dituen gaitortasuna pandemia moduan saldu badigute... Nola izendatuko dugu orduan urtero munduan malariagatik hiltzen diren 2-3 milioi pertsonen kasua? Edo gripearenak lehenengo munduari ere eragiten diolako hitz potoloak erabiltzea zilegi al da? Hilabeteak pasa dira, eta alarmak isildu. Pandemia joan zaigu; A Gripea ia guztiok nabaritu gabe igaroko dugun susmoa denon ahotan dago. Bihar ez gara oroituko sortutako nahaste-borraste guztiaz. Memoria laburra, hori bai hori izurria!



Otalora Lizentziaduna 21 • Arrasate • 943 79 66 60



## Zenbaki Aholkulariak



EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

### • Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penal: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

• **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • [www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

## ad Ibabe

### IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**Zaldibar**

**EMAITZAK**

|                                |      |
|--------------------------------|------|
| McAwenDauen-Dublin             | 4-5  |
| AT Celaya-Aldapa               | 4-4  |
| Betrayer-Katenabxio            | 2-1  |
| Steaua del Grifo-Fidel & Disc. | 3-13 |
| Abokajarro-Ekaintz             | 2-0  |
| Iriztu-Cipris                  | 2-2  |
| Iluntz-Lasagabaster            | 4-2  |
| Komando Alpartgat-Dribling     | 1-6  |

**PARTIDUAK**

|                                |  |                         |
|--------------------------------|--|-------------------------|
| <b>Azaroak 7, zapatua</b>      |  | <b>EPAILEAK</b>         |
| 10:30 Iriztu-Dribling          |  | <b>Iluntz</b>           |
| 11:30 Iluntz-Dublin            |  | <b>Iriztu</b>           |
| 12:30 Komando Alpartgat-Aldapa |  | <b>Dublin</b>           |
| 16:00 McAwenDa.-AT Celaya.     |  | <b>Fidel &amp; Disc</b> |
| 17:00 Betrayer-Fidel & Disc.   |  | <b>McAwenDauen</b>      |
| <b>Azaroak 8, domeka</b>       |  | <b>EPAILEAK</b>         |
| 10:30 Katenabxio-Ekaintz       |  | <b>Steaua del Grifo</b> |
| 11:30 Steaua del Grifo-Cipris  |  | <b>Katenabxio</b>       |
| 12:30 Abokajarro-Lasagabaster  |  | <b>Cipris</b>           |

**SAILKAPENA**

|                            | P | J |
|----------------------------|---|---|
| 1. Betrayer.....           | 6 | 2 |
| 2. Dublin.....             | 6 | 2 |
| 3. Dribling.....           | 6 | 2 |
| 4. Abokajarro.....         | 6 | 2 |
| 5. Cipris.....             | 4 | 2 |
| 6. Iriztu.....             | 4 | 2 |
| 7. Fidel & Disc.....       | 3 | 2 |
| 8. Iluntz.....             | 3 | 2 |
| 9. Ekaintz.....            | 3 | 2 |
| 10. McAwen Dauen.....      | 1 | 2 |
| 11. Lasagabaster.....      | 1 | 2 |
| 12. AT Celaya.....         | 1 | 2 |
| 13. Aldapa.....            | 1 | 2 |
| 14. Katenabxio.....        | 0 | 2 |
| 15. Komando Alpartgat..... | 0 | 2 |
| 16. Steaua del Grifo.....  | 0 | 2 |

**Atsedendialdiaren ostean, buelta lanera**

Txapelketa hasi eta berehala etorri da lehenengo atsedendialdia -joan den asteburuko-; horrenbestez, ea hemendik eta Gabonak arte taldeek txapelketako erritmoa hartzen duten. Betrayer, Dublin, Dribling eta Abokajarro gogor hasi dira, baina bi partidu jokatu ezin da ondorio handirik atera.

**Aurrekoek ez dute elkarren kontra jokatuko**

Sailkapenean aurrealdean dabilzan lau taldeek ez dute elkarren kontra jokatuko, baina adi zapatu goizeko lehenengo bi partiduekin. Hasteko, Iriztu eta Dribling zein baino zein gehiago, 10:30ean, eta ondoren Iluntz eta Dublin, 11:30ean. Dribling eta Dublin taldeek irabazten badute, zortzi punturekin jarraituko dute sailkapenean agintzen, baina Iluntz edo Iriztu ezustea eman dezaketen bi talde dira.

**Ordainketen gaineko oharra**

Joan den astean ere aurreratu genuen ordainketa guztiak eginda egon beharko dutela asteburuko jardunaldia baino lehen.

**FUTBOLA > JAIA**

**Gaur, Mondrako nesken omenezko jaia Kajoin**

Mondrak emakumezkoen omenezko jaia antolatu du gaurko, Kajoi tabernaren babesarekin

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
FBKB jaia (Futbola Bai, Kajoi Bebai) egingo dute gaur, egubakoitza, Kajoi tabernan. Jaiak balioko du Mondrak emakumezkoen taldea omentzeko, eta bultzadaxoa izango da Mondraren dako. Bultzada diogu, aurrekontua betetzeko zuzendaritzak antolatu duen ekitaldien barruan dagoelako gaurko jaialdia; Kajoi tabernak gaur batzen duen dirua klubarendako izango da.

Ekimen txalogarria da, Mondrako presidente Patxi de Andresek orain dela aste gutxi adierazi ziolako GOIENKARIAri gaur egun oso zaila dela babesleak topatzea, eta horrelako ekimenak egin behar dituztela. Dirua batze-



Mondrako neskek, denboraldi amaierako erretratuan.

GOIENKARIA

ko beste ekimen bat da, esaterako, *Bederatzitik Sei, Mondrako porrie* Arrasateko hainbat tabernatan bete daitekeen apustu orria.

Jaialdia 18:00etan hasiko dute, puzgarriekin eta hiruko futboleko torneoarekin. 19:00etan poker torneoa hasiko dute eta

23:00etan kontzertu akustikoa izango da: Mery May eta Ziggy and Koustic igoko dira taula gainera. Jaialdia amaitzeko, 03:00etan txokolate beroa banatuko dute tabernan. Mondrako neskek neurrian ibili beharko dute, Eibarren jokatuko dute-eta asteburuan.



ARIZMENDI

**Gauean egindako lehenengo krosa, arrakastatsua**

Joan den egubakoitzean I. Gaueko TAFYD krosa antolatu zuen Arizmendik, eta 54 korrikalariek hartu zuten esku. Korrikalariak txikiteoan zebiltzan arrasatearren animuak izan zituzten zazpi kilometroko zirkuituari aurre hobeto egiteko. Antolatzaile eta lasterkariak gustura geratu ziren lehenengo edizioak emandakoarekin, eta proba urtero egiteko asmoa erakutsi zuten. Argazkian, lasterketako azkarrenak, senior eta beteranotan. Ezkerretik hasita, Yolanda Arenatza (35:05), Marije Velasco (29:58), Ekaintz Osa (23:32) eta Alberto Ozaeta (26:44).

**SASKIBALOIA**

**Ointxe!-ko lau jokalariek selekzioan arituko dira**

Gipuzkoako selekzioarekin entrenatuko dira domekan

**X.U. > ARRASATE**

Mondragon Unibertsitateko gazte mailako Iker Barbero, Unai Barrena, Xabier Igoa eta Martxel Balantzategi Gipuzkoako selekzioarekin entrenatuko dira domekan. Hain justu, abenduaren 6an jokatuko duten Euskadiko txapelketa prestatzea da asmoa, eta Telmo Asurmendi aukeratu dute hautatzaile.

Hala, Asurmendik Ointxe!-ko lau jokalariek horiek aukeratu ditu datozen asteburuetan egingo dituzten entrenamendu saioetarako -lehen domekan, Donostiako Bentaberri kiroldegian-. Ointxe!-ko jokalariekin batera selekzioan izango dira Easo, Iraurgi, Hernani eta Athleticoko jokalaria.

**> KIROLDEGIA**

**Spinning hastapena hil honen hasieran jarriko dute abian**

Musakolako kiroldegian hainbat nobedade dituzte ikastaroen gainean. Batetik, azaroa hasieran hasiko dira spinning hastapenarekin, baina pilates hastapena azaroaren bigarren hamabostaldira arte atzeratu dute. Horrek esan gura du ikastaro horretan izena emateko epea ere luzatu egin dutela: azaroaren 15era arte, hain zuzen.

Pilates hastapeneko ikastaroak astelehenetan eta eguaztenetan emango dituzte, eta bi ordutegi daude aukeran, goizez eta arratsaldean. Goizekoa 10:15ean izango da eta arratsaldekoa, 20:30ean.

**UGARAN**  
Jatetxea

**Garagartza auzoa**  
Tel.: 943 79 76 58  
**ARRASATE**

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**IAMAIA ANTZOKIA**  
ARRASATE

**Gaur Azaroak 6**  
00:00etatik aurrera

**Iñigo**  
Bakarrizketa jantzia eta irrazionala



## txaloak eta txistuak



O.E.

## Harrizko lau eserleku jarri dituzte Eroski parean



Eroski pareko biribilgune ondoan eserlekuak jarri izana txalotu gura dituela esateko deitu du herritar batek erredakziora. "Kosta zaie gune horretako lanak txukuntzea, baina eserlekuak ikusita poztu egin naiz. Gainera, harrizkoak dira, mantentze-lan errazekoak", esan digu herritarrak. Lau eserleku jarri dituzte.

## bote prontuen

Alberto Matilla eta Karlos Gonzalez &gt; lamai taberna

## "Asteburua barrez hasteko modua eskaintzen dugu emanaldiekin"

OIHANA ELORTZA &gt; ARRASATE

Duela 10 urte hasi ziren Alberto eta Karlos antzerki emanaldiak eskaintzen euren tabernan. Otsailetik Aste Santura eta azarotik Gabonak bitartean, antzerkia ikusteko aukera egoten da lamain egu-bakoitzero, 00:00etan.

### Beti egun eta ordu berean dira emanaldiak?


Bai. Asteburua hasteko modu bat da. Emanaldi gehienak, gainera, umorezkoak dira eta asteburua barrez hasteko modua eskaini gura dugu, gaur egun barrea garesti dago-eta.

### Antzezlanak bakarrik?

Magia ikuskizunak ere ekartzen ditugu eta musika emanaldiren bat ere bai, inoiz. Formatu txikiko emanaldiak dira, gehienak bakarriketak.

### Egitaraua bezain fidelak dira ikusleak?

Badira hiru senar-emazte edadetu, adibidez, ez dutenak hutsik egiten. Aretxabaleta eta Berga-



ratik ere etortzen dira emanaldiak ikustera. Eta ohiko bezeroak ere bai, noski.

### Zeuek ere joaten zarete beste ikuskizun batzuk ikustera?

Hona ekartzen ditugun denak aurretik geuk ikusitakoak dira. Bestalde, Amaiara eta Espalaira, adibidez, maiz joaten gara.

### Zein da kafea hartzeko ordu onena?

Edozein. Euskaldunok oso kafezaleak gara eta momenturo dago norbait kafea hartzen.

### Gozoak ateratzen dituzue?

Egun, mila modu daude kafea hartzeko. Bezeroak exijitu egiten du, eta hori ona da.

# Gazte ikastaroak



## BITXIGINTZA

Dunixe Royoren eskutik  
Azaroaren 25etik abenduaren 16ra  
Eguaztenetan  
18:00-20:00  
Kulturaten



## DJEMBE (PERKUSIOA)

Karidia-ren eskutik  
Azaroaren 17tik abenduaren 15era  
Martitzenetan  
18:30-20:00  
Kulturaten



## TXARRI DANTZA

Lore Gazteak-en eskutik  
Azaroaren 20tik abenduaren 11ra  
Egubakoitzetan  
19:00-20:30

**Matrikula: 20 € / 12 € ikasle edo langabeentzat**  
**Izena emateko: Gazte Bulegoan 943 25 20 65**  
**[www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com)**





**JENDARTEA**

## Zabalik da II. pintxo lehiaketako izenematea

Herritarren parte-hartzea eskatu dute sarietako bat emateko

M.B. > BERGARA

Bergarako tabernariak pintxoak prestatzeko eta pintxo berriak sortzeko duten abilezia jendaurrean erakusteko asmoz, II. pintxo lehiaketa antolatu du Gure Ametsa elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Horrekin batera, pintxoak jateko ohitura bultzatzea eta herrian jai giroa sortzea ere badira ekimenaren helburuak.

Lehiaketa izango da azaroaren 13an, 14an eta 15ean eta parte hartzeko izena eman besterik ez dago –dagoeneko 8k eman dute izena–. Izenematea da hilaren 8a baino lehen, Gure Ametsa elkartearen edo 648 01 32 40 (Jesus) zembakian.

**PINTXOAK, EURO BATEN**

Osagaiak eta sukaldeko tresneria parte-hartzaile bakoitzak jarriko ditu eta pintxo bakarra aurkeztu ahal izango da. Bestalde, lehiaketa egunean lehiaketako pintxoak euro baten saldu beharko da: 12:00-14:30 eta 18:00-21:00 orduetartean –egubakoitzean soilik arratsaldean eta domekan, goizez.

Epaimahaia osatuko dute gastronomian adituak eta saria jasoko dute hiru pintxo onenek; plaka, hain justu. Bestalde, herritarren saria ere egongo da. Herritarren saria erabakitzeak kutzak jarriko dituzte tabernetan, eta baita botoa emateko eskuorriak ere. Bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du, eta, horregatik, izen-abizenak jarri beharko dira eskuorrian. Boto-emale guztien artean zozketa egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Sari-ematea izango da azaroaren 17an, 19:30ean, irabazle izan diren tabernetan.

**HIRIGINTZA > LANAK**

## Artekalea azaro bukaera arte egongo da itxita

Asteon bukatu badute ere galtzada-harriak konpontzen, finkatzeko hilabete beharko dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Artekalea eta Arruriaga kaleetako lanek uste baino luzeago jo dute. Arrazoia da solte zeuden galtzada-harri guztiak uste baino gehiago zirela. Hori horrela, hasiera baten kaleok urriaren 30erako zabaltzekoak baziren

ere, ez dituzte azaro bukaera arte irekiko eta itxita jarraituko dute ibilgailuendako, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Oñatiko Egaralur enpresak jardun du esandako lanak egiten, eta, Udaletik aurreratu dutenez, asteon bukatzekoak ziren solte

zeuden galtzada-harri multzoak konpontzen –betiere eguraldiaren arabera.

Hala eta guztiz ere, oraindik ez dituzte Artekalea eta Arruriaga irekiko, konpondu berri dituzten galtzada-harri guztiak ondo finkatu arte, Udaletik aurreratu dutenez. Izan ere, kaleok ibilgailuendako irekiz gero, galtzada-harriok ez liriteke ondo itsatsiko.



Egaralur enpresako langileak eguaztenean, Artekaleko galtzada-harriak konpontzen.

MONIKA BELASTEGI

**UDALA > ZERBITZUAK**

## Udalak salgai jarri ditu Ibargaraiko aparkalekuak

M.B. > BERGARA

Udalari Ibargarai kaleko 17. zenbakiaren sotoan geratzen zaizkion 10 garaje irekiak saltzeko baldintzak onartu ditu udalbatzak osoko bilkuran. Garaje irekiok bi prezio dituzte: 16.500 euro eta 21.500 euro. Eta enkantean parte-hartzeko derrigorrezkoa izango da, besteak beste, herriko zergen eta udal zergen ordaintzetan eguneratua egotea.

DATUA

**56**

GARAJE

56 garaje zituen Udalak esandako etxe blokean; 24 Ogasun Ministerioari eman zizkion Seminarioan egitekoak diren ordez eta gainontzekoak saldu egin ditu.

**INFORMAZIOA, BULEGO TEKNIKOAN**

Kontratazioaren gaineko espedientea, sotoaren planoak eta aparkalekuen deskribapena Bulego Teknikoan aztertu ahal izango dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 orduetartean. Eskariak ere leku berean aurkeztu beharko dira iragarkia argitaratu eta 30 eguneko epean.

Kontratazio mahai batek aztertuko du eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa eta onartutako eskatzaileen zerrenda argitaratuko dute Udaletxeko iragarki taulan.

Alegazio epearen ostean, behin betiko zerrenda onartuko dute eta zozketa irekia egin, notario aurrean.

**UDALA**

## Bakearen aldeko kartel berria

M.B. > BERGARA

Udaletxeko balkoian bakearen aldeko kartel berria jarri zuten onartu du udalbatzak osoko bilkuran, Udal Gobernu taldearen, EAren eta EAJren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoekin. 1997tik 2009ko irailaren 15era arte –ezezagun batzuek bota zuten arte– *Bakea behar dugu* testua zeraman kartela egon da. Bada, berriak honakoa eroango du: *Konponbidea, elkarriketa, Euskal Herria, hitza eta erabakia, bakea*.

Proposamena Gobernu Taldearena da, eta dio: "Euskal Herriak bakea behar duela argi izanda, bake hori lortzeko gakoak aldarrikatzea ezinbestekoa da. Euskal Herriak proiektu politiko guztiak defendatzea eta gauzatzea posible izango den eszenatoki demokratikoa behar duelako".

**GERTAKARIAK**

## Bolun 80 garajetan sartu dira

M.B. > BERGARA

Astelehenean goizaldean, ezezagun batzuek bi auto lapurtu zituzten –Volkswagen Passat eta Honda CR-V– eta 80 garajetan sartu Boluko Aranerrekale kalean. Ertzaintzaren datuen arabera, 03:00ak aldera sartu ziren gaizkileak; dirudienek, kaleko sarreratik, sarraila behartuta aurkitu zuten-eta. Garajeetako jabeak iritsi ahala joan ziren jabetzen gertatutakoaz eta batzuek sarraillariaren laguntza behar izan zuten garajera sartu ahal izateko. Bizilagun batzuek beste batzuek baino zorte handiagoa izan zuten, lapurrek hainbat autotan marrak ere egin zituzten-eta, besteak beste.



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



Argozkia Kiñu



EUSKARA &gt; JARDUN ELKARTEA

## Bizikletaz, familian nola bidaiatu ikus-entzunezkoan

M.B. &gt; BERGARA

Jardunen eskutik, *Ipar gazi-Hego geza* delako ikus-entzunezkoa ikusteko aukera egongo da etzi, domeka, 19:00etan, Zabalo-tegi aretoan. Mikel Bringas eta Rosa Lizasok Europan zehar bizikletaz egindako bidaiaren nondik norakoak jasotzen ditu. Eki eta Lur seme-alabekin batera, bi hilabetez, Rhin eta Danubio ibai gezen ingurutik Europa iparraldeko kostaldeko ur gazietara ibili ziren. Familia giroan bizikletaz bidaiatzeko esperientzia hurbiletik erakusten du eta, era berean, hausnartu egiten du bizikletaren mugiri

kortasunaren Europako eredu batzuen gainean, eta baita umeekin bidaiatzeko hainbat trikimailu eskaini ere.

### HITZALDIA

*Zer egin nire akatsek... delako hitzaldia* egingo du Jurgen Wolff Tandem fundazioko kideak hilaren 10ean, 19:00etan, kultura etxean. Batik bat, euskaraz berba egitean egiten diren akatsekiko beldurra, autozuzenketa... landuko ditu. Wolff 1988an etorri zen Euskal Herrira Alemaniatik. Euskara ikasi eta gaur egun hitzaldiak egiten ditu erabilera suspertzeko.



Bringas eta Lizaso, Eki eta Lur seme-alabekin, eta bizikletekin.

GOIENKARIA

### oharrak

KINTADA

#### > 1958an jaiotakoek afaria egingo dute Azpeitxi jatetxean

Azaroaren 14an egingo dute. Txartelak erosteko azken eguna da azaroaren 11, Usoa tabernan. Izena ematerakoan 25 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

#### > 1966an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelagan

Azaroaren 21ean egingo dute. Elkartzeko hitzordua egin dute 19:30erako, Ariznoa tabernan, eta afaria izango da

22:00etan. Izenematea da azaroaren 19ra arte, Ariznoan. Izena ematean aurreratu behar dira 10 euro.

HEZKUNTZA

#### > Miguel Altunako ikastaroetan lekua dago oraindik

Azaroaren 9an Automatismo Elektroteknikoak eta Bus EIB Muntaiia Domotikoak izeneko ikastaroak hasiko dira, 18:00etan. Bada, oraindik ere izena emateko lekua dago. Horretarako, deitu 943 76 70 49 zenbakira.



Jon Mirena Leturia, harategian.

MONIKA BELASTEGI

Jon Mirena Leturia &gt; Harakina

## "Gisatu lehiaketan 12 elkarte eta partikularrek hartuko dute parte"

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Okela promozionatzeko ahaleginan, Debagoieneko I. okela gisatu lehiaketa antolatu dute bailarako hainbat harakinek. Bergarako kanporaketa izango da bihar, zapatua. Lehiakideek 19:00etan aurkeztuko dute prestatutako gisatua, San Martin plazan.

### Zein helburu du lehiaketak?

Okela promozionatzea, eta, zehazki, gisatua. Saiheskiaren kasuan, esaterako, ez da erraza izan Bergarako etxeetan sartzea, baina dagoeneko egin ditugun parrillada guztiekin, bada, lortu dugu apur bat zabaltzea.

### Herriko hainbat harakinek antolatu eta lagundu duzue biharko kanporaketa.

Giokelako Rezola, Urzelai eta Leturia harategiek eta Bixain, Mari Cruz eta Sebastian Imaz harategiek antolatu dugu.

Bergaran aurretik egin izan da bost aldiz gisatu lehiaketa.

### Biharkoak, baina, hainbat berrikuntza ditu.

Bai. Orain arte egindakotan, parte-hartzaileek plazan prestatu izan dute gisatua, baina orain, elkartean edo etxean prestatu eta plazara ekarri beharko dute. Arrasaten eta Oñatin dagoeneko jokatu dituzte kanporaketak. Arrasaten plazan prestatu zuten eta Oñatin, berriz, etxean edo elkartean, eta, Oñatiren kasuan parte-hartzaile gehiago egon direla ikusita, guk ere hala egitea erabaki dugu.

### Zenbat parte-hartzaile egongo da lehiaketan?

Hamabi elkarte eta partikularrek hartuko dute parte eta egunean bertan erabakiko dira

### "Lehiaketako gisatua pintxo eran salduko du Beti Busti elkarteak San Martin plazan (20:00)"

irabazleak. Elkarteei dagokiez, hauek hartuko dute parte: Gure Ametsa, Zuloa, San Migelppe, Altzasu (bi talde), Umora Ona, Lasai Toki, Basalgo, Bordatxo eta Oillagorra. Epaimahaia osatuko dute Adrian Arreseigorrek, Inazio Beldarrainek eta Luis Ezenarrok.

### Lehiaketako gisatua pintxo moduan salduko da gero.

Bai, postua jarriko da plazan eta Beti Busti elkarteak -zoketa bidez egokitu zaio- arduratuko da lehiaketan egindako gisatua pintxo eran saltzen. Guztira 80 bat kilo haragi emango dira pintxotan, lehiakideek prestatutakoa eta Beti Bustik berak ere prestatuko duena. 20:00etan hasiko dira pintxoak banatzen.

### Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako lehiaketetako irabazleek jokatu dute finala. Non eta noiz?

Oraindik erabakitzeke daude lekua eta eguna.

## BERTAKO HARAGI GISATUAREN 1. TXAPELKETA

BERGARAKO San Martin plazan  
zapatua, 2009 - 11 - 7  
arratsaldeko 08:00etan

### Antolatzaileak

LETURIA Harategia  
Pedro Deuna, 24

URCELAY Harategia  
Ibargarai, 20

LUIS MARI REZOLA Harategia  
Matxiategi, 7



Berme osoko okela



ANTZERKIA > 'KARAKOLAREN GAUA'

# Kale gorrian bizi den gizon baten abenturak

Zurrunka taldeak emanaldia egingo du Zabalotegi aretoan gaur, 22:30ean

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA  
Kale gorrian dagoen gizon batek poliziarekin bizi dituen abenturak kontatuko dituzte Zurrunka taldekoek gaur, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. *Karakolaren gaua*

antzezlanak ikusi gura dutenek leihatilan bertan eros ditzakete sarrerak, bost eurotan, saioa hasi aurretik.

Antzezlanak 50 minutuko iraupena du eta euskaraz egingo dute. "Hitz gutxi erabiltzen dugu, mugimenduak eta musika dira nagusi; alegia, *clown* eta mimo emanaldia da", esan digu taldeko kide Eñaut Gorbeak. Bakardadea, maitasuna, miseria, zigorra eta kartzela kontzeptuak behin eta berriz erabiltzen dituzte. "Askatasuna galtzeko beldurra amesgaizto bihur daitekeela azaldu nahi dugu", diote.

#### BI AKTORE

Eñaut Gorbea gasteiztarra eta Ander Arrieta aguraindarra dira antzezlaneko aktore bakarrak. Biek ala biek esperientzia handia dute antzerki, txotxongilo eta *clown* munduan. Eñaut Gorbea Laudioko Yinde Yan antzerki taldearekin *VagaMUNDI* antzezlanarekin dabil eta Ander Arrieta Burlatako Oreak Zirko Eskolako ikasketekin dihardu.

Biek sortu zuten Zurrunka taldea 2008an, Zuian (Araba). Euren helburua zen antzerki arloan ikerketa eta hausnarketa ezberdinak egitea. "Gorputzaren keinu eta begirada landuz antzerki hizkuntza bat sortu, eta talde elkarlanean formaziorako tailer eta ikastaro ezberdinak antolatatu ditugu. Horretarako, gaur egun gizar-tean dauden arazoak hartzen ditugu aintzat", diote.



Eñaut Gorbea eta Ander Arrieta.

ZURRUNKA TALDEA



Euskal arrazen gaineko argazkiak daude; tartean, antxumea.

MARISOL YABEN

ERAKUSKETA > ERRETRATUAK

## Euskal arrazako animalien gaineko argazkiak ikusgai

Marisol Yabenek 21 lan jarri ditu kultura etxean azaroaren 10era arte

**M.B.** > BERGARA

Euskal arrazako animaliak dira protagonistak kultura etxean dagoen erakusketan; besteak beste, euskal txerria, Gorbeia txakurra, behi pireinakoak eta betizuak, euskal oiloen hainbat mota, ardi latxak eta Enkarterrietako villano arrazako txakurrak ikusi daitezke argazkietan.

Marisol Yabenek (Hernani, 1947) tamaina handiko 21 erretratu jarri ditu. Erakusketa ikusgai dago azaroaren 10era arte; hain zuzen ere, astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara.



Marisol Yaben.

M.Y.

#### ARGAZKIAK, TESTUAREKIN

Argazki bakoitzaren alboan arrazaren gaineko datuak jarri ditu. "Arraza bakoitzaren ezaguerriak, argazkia non egin duan eta euskal arraza horrek duen egoera zehaztu ditut. Ikusleak harritu egingo dira, arraza asko galtzeko arriskuan daude-eta", esan digu Yabenek.

ZINEMA > EMANALDIAK

## Azaroan 14 film zineklubean eta zinema komertzialean

**M.B.** > BERGARA

Azarorako zinema programazioa gertu dute. Guztira, 14 pelikula eskainiko dituzte zineklubean eta zinema komertzialean; hain justu ere, Zabalotegin bederatzi film eta gaztetxean lau.

#### ASKOTARIKO GENEROAK

Zinema komertzialeko lehen emanaldia hilaren 14an egingo dute: umeendako *Bolt* eta helduendako *La duda* emango dituzte. Ondorengo emanaldiak dira *Un chihuahua en Beverly Hills* eta

*007 Quantum of solace*; eta *La montaña embrujada* eta *Mi nombre es Harvey*. Bestalde, Zabalotegiko zineklubean *25 kilates* (azaroak 12), *Still walking* (azaroak 25) eta *Tres monos* (azaroak 26) emango dituzte, 20:00etan.

Azkenik, gaztetzeko zineklub emanaldiak domeketan dira, 18:00etan. *Bagdad rojo* (azaroak 8), *El método* (azaroak 15), *El sargento de hierro* (azaroak 22) eta *Concursante* (azaroak 29) emango dituzte.

trinmer  
telecomunicaciones

t d t  
televisión digital terrestre

### Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

#### TRINMER 20 urte antenetan

LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxes: 943 20 73 60  
[antenas@trinmer.com](mailto:antenas@trinmer.com) | [www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



**Gosari bereziak**  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



## Labegaraieta

## EMAITZAK

|                                    |           |
|------------------------------------|-----------|
| Komando Piperrak-LSJ               | 7-0       |
| Los Latinos-Internacional          | 11-3      |
| Internacional-CM Errotagail        | 0-2       |
| Niu Tim-Monte Taberna              | 9-1       |
| Zigalikitis-Diego Valor Ileapaind. | 4-15      |
| Irish Pub-UD Akabaoak              | 0-12      |
| Alytis-CM Errota-gain              | Atzeratua |

## PARTIDUAK

|                                 |                 |
|---------------------------------|-----------------|
| <b>Azaroak 8, domeka</b>        | <b>EPAILEAK</b> |
| 10:00 Irish Pub-CM Errota-gain  | Diego Val.      |
| 11:00 Diego Valor II.-LSJ       | Alytis          |
| 12:00 Alytis-UD Akabaoak        | LSJ             |
| 16:30 Los Latinos-Monte Taberna | Niu Tim         |
| 17:30 Niu Tim-Internacional     | Los Latinos     |
| 18:30 Zigalikitis-Komando Pip.  | Internac.       |

## SAILKAPENA

|                          | P  | J |
|--------------------------|----|---|
| 1. UD Akabaoak           | 15 | 5 |
| 2. Los Latinos           | 12 | 5 |
| 3. CM Errota-gain        | 12 | 5 |
| 4. Niu Tim               | 12 | 5 |
| 5. Diego Valor Ileapain. | 9  | 5 |
| 6. Alytis FK             | 6  | 5 |
| 7. Internacional         | 4  | 5 |
| 8. Komando Piperrak      | 4  | 5 |
| 9. LSJ                   | 3  | 5 |
| 10. Irish Pub            | 3  | 5 |
| 11. Zigalikitis          | 0  | 5 |
| 12. Monte Taberna        | 0  | 5 |

Itzuli da  
Labegaraieta  
txapelketako  
zutabea

Txapelketa hasi zenetik ez dugu Labegaraietako zutabea argitaratu, baina hemendik aurrera astero-astero txapelketaren gaineko informazioa izango duzue hemen. Horrekin batera, sarean ere eskura duzue informazioa <http://bergarakotxapelketa.iespana.es> webgunean.

## SASKIBALOIA &gt; SORALUCE BKE

Klubak aurtengo  
denboraldia  
aurkeztuko du bihar

Senior mailako taldeak Astigarragaren kontra jokatu du domekan, 17:00etan

## XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Bergarako saskibaloitako taldeak aurtengo denboraldiaren aurkezpena egingo du bihar, 12:00etan. Liga txapelketak, baina, hasita daude eta iaz lortutako kategoriari eusteko lehian Astigarragaren kontra garaipen bila kantxaratu dira Unai Iñarraren mutlak domekan (17:00). Hori lortzea ez da, baina, erraza izango, Astigarraga lehenengo postuan dago eta: "Orain dela bi urte euren kontra jokatu genuen, eta badakigu

zelako talde indartsua duten. Gogor jokatzeko gustatzen zaie, bronka-zale samarrak dira eta zerbaitengatik doaz lider...", adierazi du taldeko entrenatzaile Unai Iñarrak.

## GARAIPEN BAT GUTXIAGO

Liga gogorra da Gipuzkoako senior mailakoa, baina hor Soraluce BKE taldeko mutilek ez dute sorpresarik hartu: "Hasiera ez da txar-txarra izan. Uste genuen orain baino garaipen bat gehiago izatea, baina denboraldia luzea da, eta espero dugu poliki-poliki gora egitea".

Bestalde, kadete mailako emakumezkoek derbia izango dute domeka eguerdian Aloña Mendiko nesken kontra, 12:15ean.



Jon Beitzegi, Alde Zaharraren kontrako partiduan (61-84).

JOSETXO ARANTZABAL



GOIENKARIA

## Ibai Linazisoro, eskiatzen onena

Eski denboraldia hastear, Ibai Linazisorok iaz denboraldi biribila egiteagatik saria jaso berri du Aragoiko federazioaren partetik. Bergarako eskiatzaile gazteak infantil mailako kopa irabazi zuen, eta baita Espainiako txapelketa ere. Aurten iazkoa errepikatu nahi du, baina nazioarteko txapelketetan ere esku hartu nahi du.

## &gt; ZIKLOTURISMOA

## Bergarako zikloturisten arropak eskatzeko azken eguna azaroaren 15a da eta afaria 21ean izango da

Datorren denboraldia bizikletan ibiltzeko trajea estreinatuz hasi nahi duenak azaroaren 15a baino lehen eman beharko du izena. Traje osoa dago aukeran, eta Igartua bizikleta dendan eman behar da izena.

Horrekin batera, denboraldia behar den moduan agurtzeko afaria egingo dute datorren hilaren 21ean Torrekua jatetxean. Afaria egin aurretik, Zuloa elkartearen elkartuko dira batzarra egiteko, 19:00etan, eta ondoren joango dira afaltzera. Afarira joateko izena eman nahi duenak Ibi eta Igartua bizikleta dendetan eman ahal izango dute izena.

TOKI-ONA  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53

## CAMACHO

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

## GOIERRI

## Autogidarien Eskola




Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu  
Informa zaitetz

Fraskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

GURIA  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

## MIZPILDI



## OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BEHEKO  
TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

Mujika  
gozotegia

Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



**bergararrak kanpoan**

**Florica Rebeles** > Errumaniarra  
Bergaran bizi da

# "Errumanian ez dago lentejarik, eta ezustea izan dira niretzat"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Florica Rebeles errumaniarra da eta orain dela hiru hilabete heldu zen gurera. Lanerako gogoarekin etorri zen, eta, integratzeko asmoz, Helduen Heziketa Eskolan dihardu espainola ikasten. Ahizparekin bizi da Bergaran.



Florica Rebeles.

Errumaniako hegoaldetik Bergarara egin zuen jauzi oporren aurretik Florica Rebelesek. "Errumaniatik alde egin behar nuela garbi nuen, eta, ahizpeta-ko batzuk Bergaran zeudenez, hona etortzea erabaki nuen", esan digu. Ordutik, herria eta hemen-go ohiturak ezagutzeko aukera izan du. Gustura dagoela esan digu. "Ahizparekin bizi naiz eta elkarrekin errumanieraz egiten dugu berba, baina espainola menderatzeko eskolak hartzen ditut Helduen Heziketa Eskolan. Egutero joaten naiz", esan digu. Irakasleek diote asko aurreratu duela hiru hilabetetan. Oraingoan, euskara ikasteko asmorik ez duela aurreratu digu.

teko, ondo dagoela iruditzen zait". Errumaniara bueltatzeko asmorik ez duela esan digu. "Hango egoera ez da ona, eta gauzak nik espero moduan badoaz, hemen geratuko naiz".

**EGURALDIA ETA JANARIA**

Bergaratik eta Debagoienetik gehien harritu duenaz galdetuta, oso garbi dauka: "Paisaia ikaragarria da. Mendi asko dago eta gustatu egiten zait". Bestalde, lagunek esan diote neguak gogorrrak direla Bergaran, baina ez du beldurrik: "Errumaniako eguraldiaren antzekoa da. Dena den, badakit neguan euria, hotza eta elurra direla nagusi".

Poliki-poliki hasi da hemen-go jakiak probatzen, baina etxean, batez ere, Errumaniako platerak prestatzen dituzte. "Hemen-go jakiak gozoeziak direla iruditzen zait. Dena den, jaki batzuk probatu ditut, eta lentejak oso goxoak dira. Errumanian ez daude eta ezustea izan dira niretzat".

**"Hemengo eguraldia Errumaniakoaren oso antzekoa da"**

**CARITASEN LANEAN**

Lan egiteko asmoz etorri zen, eta lanean dihardu Caritasen. "Pieza batzuk egiten ditut. Egutero ordu batzuk egiten ditut lan. Has-

**hau be badaukogu**



ARANZADI IKASTOLA.

**Aranzadi ikastolako ikasleek ETBko 'Sut&Blai' programan parte hartu dute**



Aranzadi ikastolako batxilergoko bigarren mailako ikasleek ETBko *Sut&Blai* programan parte hartu zuten urriaren 29an. Saioan zientziarekin eta teknologiarekin lotutako atal bat dute, eta hori grabatzen egon ziren Aranzadin. Hain zuzen ere, zuntz optikoaren gaineko esperimendua grabatu zuten. Ikasleek eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten. Oraindik ez dakite Aranzadi ikastolan grabatutako irudiak noiz emitituko dituzten.



**IRURAK MARGOAK**

**DISEINUAK, S.L.**

**Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua**

**Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua**

**Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara**

**Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16**

**Faxa: 943 76 09 32**



HIRIGINTZA &gt; TXARAPEA AUZOA

# Kirol etxean hasi eta Lausittaraino joango den bidea estrategikoa izango da herrian

Ibaiaren beste aldeko etxeetara, Markolera, Loramendira eta Belorrietara joateko izango da

Ibilbidea 2010eko abendurako bukatuta izatea aurreikusita dute, azken etxe tasatuekin batera

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETAKO

Auzo berria izango du laster Aretxabaletak Deba ibaiaren beste aldean: Txarapea, hain zuzen. Bruesa enpresa eraikitzailea egiten dabilen lehen etxebizitzaren giltzak –etxe tasatuak– banatuta daude eta poliki-poliki betetzen joango dira etxeok. Auzo berriak ibilbide luzea izango du, kirol etxean hasi eta Lausitta kaleraino joango dena. Eta Udalaren esanetan, "estrategikoa" izango da hori herrirako.

BABES OFIZIALEKOAK, HASITA

Deba ibaiaren beste aldean eraikitako etxeetara joateko izango da Txarapea ibilbidea, baita Markole auzora ere, eta Belorrietan dagoen zubi berriarekin Belorrieta auzunera eta Loramendi kalera.

Etxeak eraiki ahala dabilta kalea egokitzen, iparraldetik hegoalderantz; hau da, Lausitta kaletik kirol etxerantz. Lan horien barruan, biribilgunea egin dute Lausitta kale hasieran. Aurreikusitako epeak betez gero, 2010eko abendurako bukatuta egongo dela jakinarazi dute Udaleko Hirigintza Saileko arduradunek. Izan ere, orduantxe bukatuko dituzte kirol etxe alboan egiten dabiltzan azkeneko etxebizitzak tasatuak.

Ibilbide horren inguruan hiru eratako etxeak egongo dira: tasatuak, bi etxebizitzak dituztenak eta babes ofizialekoak. Azken horien lanak hasita daudela jakinarazi dute Hirigintza Sailean, nahiz eta mugimendurik ez ikusi, "ez dutelako behar aparteko lur mugimendurik".



Kirol etxeraino joango den Txarapea ibilbide berriaren hasiera, Lausitta kaletik bueltan.

M.A.

LAUSITTAKO ARAZOAK

Etxe horien eraikitze lanak direla-eta –autobideko eta zaharren egoitzako lanak gaineratuta– eragozpen eta arazo asko jasan behar

izan dituzte Lausitta auzoko bizilagunek azken urteotan. Eta Udaleko ordezkariak jakinean daude: "Lanok hobekuntzak lortzeko izan arren, ulertzekoa da bizilagunen

haserrea". Horregatik, behin lanak bukatuta, Lausittako jolas parkeko ziburuak aldatu eta inguruko lorategiak berritu eta txukuntzeko asmoa daukate.



Martitzenean jausi zen Iralabarri plazako horma zatia.

GARBIÑE BEITIA

GERTAKARIA &gt; EZBEHARRA

## Iralabarri plazako horma zati bat jausi egin zen espalora

Suhiltzaileei deitu zieten horma jaustean, baina ez zen aparteko arriskurik egon

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Martitzen arratsaldean, 16:00 inguruan, Iralabarri plazako etxebizitzaren horma zati bat jausi egin zen espalora. Industrialdera begira dagoen hormako zatia zen eta berehala itxi zuten espaloi tarte hori udaltzainek. Horma harro-

tu egin zen, eta, zati asko zebiltzanez jausten, suhiltzaileei deitu zieten. Hala ere, ez zen aparteko arriskurik izan eta hurrengo egunean hasi zen konpontzen horma etxeen sustatzailea.

Bigarren aldiz jausi da horma zati bat Iralabarri plazan, eta biak hegoaldera ematen duten hormakoak ziren. Udaleko Hirigintza teknikariak uste du horrek zerikusiren bat izango duela, "eguzkiak ematen dion lekua da-eta". Baina "ez dela batere ohikoa" gaineratu du; izan ere, etxeok bost urte inguru dituzte.

INGURUMENA &gt; MENDIA

## Argazki lehiaketa deitu du Murruxok egutegirako

Azaroaren 18a bitartean aurkez daitezke argazkiok, gehienez lau

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Murruxok Mendizale Elkarteak argazki lehiaketa deitu du egunotan. Aurreko urteetan egin duen legez, argazki irabazlea 2010eko egutegia egiteko erabiliko du. Horren egileak, gainera, 100 euroko diru-saria jasoko du.

Bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkez ditzake eta horiekin batera egilearen datuak adieraziko ditu –izen-abizenak, helbidea eta telefonoa–. Gainera, aurkeztutako argazki bakoitzaren deskribapen txiki bat egin beharko du –lekua, egoeraren azalpena...–.

Lanak paperean edo disko batean eroan daitezke Murruxok Durana kalean duen egoitzara, martitzenetan (19:00-20:00). Edo, gurago izanez gero, Aretxabaletako 34 posta-kutxara bidali. Epea azaroaren 18an bukatuko da.



Iazko lehiaketa irabazi zuen argazkia, Iker Altuna aretxabaletarrarena. MURRUKIXO

GIZARTE ZERBITZUAK

## Gabonetako egonaldiak eskatzeko epea zabalik

Eskaera asko egonez gero, lehentasuna dute egonaldietan egon ez direnek

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Nagusiak etxean zaintzen dituztenek aldi baterako egonaldiak eska ditzakete haiendako. Abenduko egonaldiak antolatzen dabilta egunotan eta eskaera egiteko epeak jakinarazi dituzte. Abenduko lehen hamabostaldian gura dutenek egonaldia edo hila-bete osoa azaroaren 23rako jakinarazi behar dute. Abenduko bigarren hamabostaldiko egonaldia eskatzeko azaroaren 30a arte dute epea.

Eskaera kopurua libre dauden lekuak baino handiagoa bada, lehentasuna izango dute orain arte halako egonaldirik egin ez dutenek. Eskerak faxez bidal daitezke 943 11 31 42 zenbakira edo posta elektronikoz [mibarreta@gipuzkoa.net](mailto:mibarreta@gipuzkoa.net) helbidera.



MONDRAGON LINGUArekin



%82k

Cambridgeko azterketak gainditu dituzue

- |              |                                   |             |                               |           |                            |
|--------------|-----------------------------------|-------------|-------------------------------|-----------|----------------------------|
| EDURNE       | AGIRRE USANDIZAGA                 | LEIRE       | FERNANDEZ SORIANO             | RUBEN     | SAENZ ESTEBAN              |
| ANE          | AGUIRRE BIKUÑA                    | RUTH        | FONTECHA RUBIO                | GARAZI    | SAGASTA URRUTIA            |
| BEÑAT        | AGUIRRE SANTA MARÍA               | ASIER       | GALARZA TORRE                 | MARKEL    | SAINZ ORUNA                |
| MIKEL        | AGUIRREGABIRIA BASAGUREN          | LEIRE       | GAMITO GOMEZ                  | AITZOL    | SALABERRI MERINO           |
| JONE         | AGUIRREGABIRIA BELTRAN DE GUEVARA | ANE         | GARAYAR ITURRIZA              | MAIALEN   | SALIDO MUÑOZ               |
| OSCAR        | ALARCIA RODRIGUEZ                 | ADRIAN      | GARCÍA LÓPEZ                  | IRUNE     | SALTERAIN BELINCHON        |
| MARÍA        | ALFONSO BARREÑA                   | AMAIA       | GARMENDIA ALDASORO            | ALAIN     | SANCHEZ RUIZ               |
| MAITE        | ALONSO CANTERO                    | JOSEBA      | GOIKOETXEA MONASTERIO         | ASIER     | SIMANCAS VAQUERO           |
| MAIDER       | ALTUBE LEITES                     | SARA        | GOMEZ CONDE                   | IKER      | SOBRON POLANCOS            |
| LEIRE        | ALTUNA MONGELOS                   | LEIRE       | GONZÁLEZ BERECIBAR            | IBAI      | SOLOZABAL BLAZQUEZ         |
| UGAITZ       | AMUZARRAIN PEREZ                  | LOREA       | GORROTXATEGI MARTÍNEZ         | ITSASO    | UGARTE EROSTARBE           |
| AINHOA       | ANDUAGA MOYUA                     | BORJA       | HEBRERO ARNAIZ                | MALEN     | UGARTE IRIZAR              |
| AINHOA       | ARANA MURUAMENDIARAZ              | ANE         | HERNÁNDEZ BENGEOA             | ENERITZ   | UMEREZ ALTUBE              |
| ALEX         | ARANBURU GOIRICELAYA              | NEREA       | HERNÁEZ FRANCES               | HARITZ    | URCELAY ARENAZA            |
| JON ANDER    | ARRASATE DIAZ DE ULZURRUN         | IÑAKI       | IGLESIAS MARTÍN               | MIKEL     | URIBARREN MARTÍNEZ         |
| JONE         | ASCORBEITIA BILBATUA              | PAULA       | IREGI CARRASCO                | ALAIN     | URONES GOIKOETXEA          |
| ANE          | ASPE ETXABE                       | ERIK        | ISASMENDI MATA                | IBAI      | URRUTIA ARREGI             |
| ZASKUN       | ASTIGARRAGA NATIVIDAD             | MIKEL       | ITURBE URRETXA                | UNAI      | URRUTIA GASTAÑAGA          |
| JON          | ATXA ORTUONDO                     | AINHOA      | ITURRIOZ ARREGI               | BEÑAT     | URRUTIA GASTAÑAGA          |
| MERITXELL    | AYALA OLMEDO                      | MONICA      | JURADO PABLOS                 | JUAN JOSÉ | VALGAÑON ARCONADA          |
| AITOR        | AZCARATE IGLESIAS                 | ESTHER      | JURADO PABLOS                 | ALAZNE    | VALLADARES RUIZ DE AGUIRRE |
| OLATZ        | AZKARATE LAZKANOITURBURU          | MADDI       | LABAYEN IRAETA                | ANDREA    | VAZQUEZ ESCOBALES          |
| CLAUDIA      | BADAS ALDECOA                     | IMANOL      | LARRAÑAGA ODIOZOLA            | GORKA     | VELA ISASMENDI             |
| JON          | BALZATEGI LASA                    | OIER        | LARRAÑAGA URIBE ECHEBARRIA    | NAIARA    | VERA GUERES                |
| AINARA       | BARBA ESTEBAN                     | IMANOL      | LASA BALZATEGI                | ANDER     | ZARKETA ASTIGARRAGA        |
| JON          | BARRENECHEA CARRASCO              | LOREA       | LEGAZPIA MILLAN               | ITZIAR    | ZELAIA BOLINAGA            |
| MARIA        | BAS CALZADA                       | AMAIA       | LETONA ERIZ                   | IBONE     | ZIMARRO ZALBIDEA           |
| JOKIN        | BEASAIN ACHABAL                   | ANDER       | LIZASO ARANBURUZABALA         | MAIALEN   | ZUBIZARRETA ARREGI         |
| NAGORE       | BELOQUI MERINO                    | PABLO DAVID | LOMBARDO PAPI                 | ANDER     | ZUBIZARRETA GARCIA         |
| ANE          | BENITO BLANCO                     | UNAI        | LOPEZ BENGOCHEA               |           |                            |
| HECTOR       | BLAZQUEZ GARCÍA                   | IGNACIO     | MALAXEHEBARRIA ZABALGOGEASCOA |           |                            |
| OLATZ        | BUSTINZA HARDCASTLE               | NEREA       | MEABE ITURBE                  |           |                            |
| BORJA        | CARNEROS PECHARROMAN              | JAVIER      | MENDIETA GOYACHE              |           |                            |
| IMANOL       | CECIAGA GOYENA                    | IÑIGO       | MERINO TOMÉ                   |           |                            |
| LOREA        | CHURCH ITURBE                     | ALBERTO     | MILLA MORENO                  |           |                            |
| RUBEN        | CRISPIN DE LA CRUZ                | IÑIGO       | MONGELOS MARTÍNEZ             |           |                            |
| JANIRE       | DAVILA RUIZ DE AUSTRI             | NEBAI       | MORENO URIBARRI               |           |                            |
| GARAZI       | ECHEBARRIA ZUBIZARRETA            | ZURIÑE      | MUGICA ITURBE                 |           |                            |
| NAROA        | ELORTZA GORROTXATEGI              | GARAZI      | NAVAS MUNDIÑANO               |           |                            |
| AINHOA       | ELORZA ITURBE                     | MAITANE     | NIETO ERRASTI                 |           |                            |
| MAIDER       | ELORZA ITURBE                     | PELLO       | OCHANDIANO CAMPO              |           |                            |
| IÑIGO        | ERAUSKIN USABIAGA                 | AITOR       | OREJA GARCIA                  |           |                            |
| IDOIA        | ESNAOLA MARTÍNEZ                  | BEÑAT       | PEÑA ARREGUI                  |           |                            |
| AIERT GUNTER | ESTEBAN LOBATO                    | OIHANE      | PEREZ ESTRADA                 |           |                            |
| UNAI         | EUBA VIDAL                        | OIHANE      | PILDAIN ETXANIZ               |           |                            |
| IONE         | EZKURRA AGUIRREURRETA             | MAIALEN     | REGUEIRO ARAMBURU             |           |                            |

ZORIONAK!  
CONGRATULATIONS!

Cambridgeko agiria lortu duzuen gure ikasle guztioi



join us! únete! zatoz!

Zatoz hiru hizkuntzatan bizi eta komunikatzen den erkidegora!

¡Únete a la comunidad trilingua!

Join MONDRAGON LINGUA!

Comunidad

LINGUA

www.mondragonlingua.com

BILBAO  
Buenos Aires, 7  
94 661 34 67

DONOSTIA  
Zubieta, 26  
943 43 31 02

VITORIA-GASTEIZ  
Florida, 8-A  
945 15 01 55

ARRASATE  
Avda. Alava, 4  
943 71 20 55

OÑATI  
Olakua, 14  
943 71 60 00

Europa mailan hizkuntza-irakaskuntza zentro bakarra gara. Kalitatearen urrezko O-a duena.







Ekuadorko Salineritoko kooperazio proiektuaren alde egingo du elkarteak; perretxikoen ekoizpenaren gainekoa da hori.

NEREA ZUBIETE

JENDARTEA > ELKARTASUNA

## Hiruatzek esku artean duen proiektua aurkeztuko du gaur

Aurkezpen ekitaldiarekin batera jaialdia gertatu du iluntzerako: 20:00etan musika eta dantzak izango dira Durana kalean eta 20:30ean, bertso afaria

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Hiruatz gobernuz kanpoko erakundeak esku artean duen proiektu berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, herriko udalaxe zaharrean. Aurkezpen ekitaldiarekin batera, baina, jaialdi txiki bat ere gertatu du.

Elkarteak dagoeneko bukatu du azken lau urteotan Ekuatore Gineako (Afrika) nekazari-proiekturako eman duen laguntza, eta orain hastear dagoen proiektu berriaren berri emango du gaur. Kontinentea aldatuz, baina ekua-

torean jarraituko du; hain justu ere, Ameriketako Ekuadorko Salineritoko kooperazio proiektuaren alde egingo du lan.

**ONDDOAK PAKETATZEKO MAKINA**

Egitasmo hori perretxikoen ekoizpenaren gainekoa da. Elkar-teko kide Iñigo Truebak horren gaineko azalpenak eman dizkigu: "Asmoa da onddoak paketatzeko makina baten erosketan laguntzea". Azaldu du Andeetako zona hartan urte asko daramatzate onddoekin lan egiten. Emaku-

meak mendira joaten dira perretxikoak jasotzera eta batutakoa kooperatibetara eramaten dute produktua saltzeko; han sailkapena egin ostean, perretxikoak garbitu, moztu eta sikatzen uzten dituzte.

Azkenik, produktua paketatzen egiten dute. Orain arte, emakumeek eskuz egin izan dute lan hori. Truebaren esanetan, paketatze makina horrekin orain arte han lan egin izan dutenak beste lanpostu batera joan ahal izango dira. Egitasmo horren

bitartez, 10 lanpostu zuzen eta zeharkako beste 225 eratuko direla aurreikusi dute. Hasieran, urtebete iraungo du Ekuadorko Salineritoko kooperazio proiektuaren aldeko lana.

**EKITALDIA**

Proiektu horren berri emateko, Hiruatzek hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurko. 20:00etan, Jalki dantza taldearekin batera, herriko plazatik irtengo dira eta, musika eta dantza uztartuz, Durana kalerantz abiatuko dira. Eki-menak geldiunea egingo du udalaxe zaharrera iristen denean, hango atarian proiektua aurkeztuko dute-eta.

Jarraian, Murualde elkartera joko dute, han bertso afaria egingo dute-eta; Jon Maia eta Jokin Labaien bertsolariek parte hartuko dute. Sarrerak salgai daude Arlutz eta Gurean tabernetan, 25 euroren truke. Afarian, bidezko merkataritzako produktua batzuen zozketa ere egingo da.

KIROLA > KARATEA

## Gipuzkoako txapelketan ederto ibili ziren Vazquez eta Irusta

Vazquez kata eta kumite modalitateetan bigarren geratu zen; Irusta, berriz, kumitean hirugarren

M.B. > ARETXABALETA

Joan den domekan, azaroak 1, Gipuzkoako karate txapelketa jokatu zen Azkoitiko Zubiarre kiroldegian. UDA karate elkartetik bi aretxabaletarrek parte hartu zuten esandako txapelketan: kadete mailan, Ekaitz Irustak; eta 21 urtetik beherakoetan, Odei Vazquezek. Lan ona egin



Aretxabaletarrak, garaikurrak eskuan dituztela.

GOIENKARIA

zuten biek, herrira garaikurrekin bueltatzea lortu zuten-eta.

Ekaitz Irusta kumiteko 70 kilotik beherako modalitatean lehiatu zen eta hirugarren geratu zen. Odei Vazquezek, berriz, kata eta kumite kategorietan jokatu zuen; azken horretan, 61 kilotik beherako mailan. Esandako bi modalitateetan bigarren geratu zen: Gipuzkoako txapel-dunorde, hain justu ere. Esandako bi finaletan Alvaro Rivas izan zuen aurrean aretxabaletarrak. Vazquezek lehiakideak Espainiako selekzioarekin parte hartuko du azaroaren 13tik 15era bitartean, Marokon jokatu den munduko txapelketan.

> KZGUNEA

### Azaroan asteleheneetik egubakoitzera egongo da zabalik, goizetan

KZgunea asteleheneetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik azaroan. Ohikoa den moduan, IT txartelak lortzeko azterketak egongo dira honako egunetan: astelehenean, azaroaren 9an, 11:00etan; eta hilaren 16an, 18an eta 26an, 09:00etan.

Bestalde, Ona txartela eta Izenpe eskuratzeaz gain, hainbat ikastaro egiteko aukera ere egongo da; tartean, *Sinadura elektronikoa* eta *Osasun txartel elektronikoa* ezagutze-koak eta *Ikaserraz* atalaren barruan daudenak.

> XAKEA

### Arlutz taldeko kideak gustura, Arrasateko txapelketan

Arrasateko txapelketako laugarren jardunaldian Arlutzeko Miguel anaiek elkarren aurka jokatu zuten, eta berdindu. Aitor Alcaidek irabazi egin zion Imanol Segurari eta Mikel Alcaidek galdu egin zuen Juan Manuel Salinerorekin. Aste bukaeran, Fran Miguelek Holden Hernandez izango du aurrean; Andoni Miguelek, Josu Tornay; Aitor Alcaidek, Carlos Nava; eta Mikel Alcaidek, Francisco Javier Alvarez.

### oharrak

ARKUPE

> Hainbat ekimen asteburuan

Arkupeko egitarauaren barruan, bihar, Lur Kortak *Aurorita beti polita* haur ikuskizuna aurkeztuko du liburutegian, 11:00etan. Bestalde, filmak ere egingo dira datozen egunotan: helduendako, *Asalto al tren Pelham*; eta umeendako, *Hannah Montana*.

ERLIJIOA

> Aurten hil diren herritarren aldeko meza astelehenean

Astelehenean, hilak 9, urtean hil diren herritar guztien aldeko meza esango dute parrokian, 19:00etan.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA





Kapera txikiko zorua jaso egin dute, eta arkeologoaren bisitaren zain daude lanekin jarraitzeko.

MIREIA BIKUÑA

LANAK > ELIZA

# Parrokiako kapera txikia eraberritzen dihardute

Dagoeneko argindarra berritu eta paretak margotu dituzte; orain, zorua aldatuko dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

San Migel parrokiako koroaren azpian dagoen kapera txikia eraberritzen dihardute azken asteotan. Askotariko lanak egiten dihardute: dagoeneko argindarratu aldatu eta parteka margotu dituzte. Orain, zorua aldatuko dute. LKS enpresak egin zuen eraberritze proiektua eta hark du lanen ardura.

Irail bukaeran hasi zituzten eraberritze lanak, baina une honean gelditu daude. Zorua kendu egin

dute, eta lur azpian aztarnaren bat dagoen ikusteko, arkeologoaren bisitaren zain daude. "Foru Aldundikoek esan digute hurrengo astean etorriko dela arkeologoa. Haren

ikerketen arabera, lanak atzera-tu egin daitezke", esan digu Joxan Larrañaga erretoreak. Aztarna aipagarriak ez badago, lanok hila-bete barru bukatuko dituzte; bestela, nahikotxo atzeratuko dira. Oraingoz, argindar instalazioa berritu, foku berriak jarri eta paretak margotu dituzte.

## UNIBERTSITATEKO KAPERAN

Kapera txikia eraberritzeko lanak parrokiak ordainduko ditu. "Diru dezente da, baina egin beharreko lanak dira. Kapera txikia egunero erabiltzen dugu, eta egoera eskasa zuen: paretak eta berogailuak zikin zeuden, eta argiek indar txikia zuten", dio Larrañagak.

Lanek diharduten bitartean, 09:00etako elizkizuna parrokiako Unibertsitateko kaperan egingo dute.

## BEROGAILURAKO DIRU-BILKETA

Urtero legez, parrokiako berogailurako erregaia ordaintzeko diru-bilketa egingo dute parrokiako arduradunek. Bi modutara egingo dute: alde batetik, bilketa berezia egingo dute azaroren 21ean eta 22an parrokiaren egingo dituzten elizkizunetan; beste alde batetik, *Goi Argi* aldizkariarekin batera gutun-azalak banatu dituzte. Horiek parrokiako kutxetan sar daitezke.

## Mikel Aozaratz, Balangako zaindaria

Mikel Aozaratz santu oñatiarra Filipinar Uharteetako Baatan probintziako Balanga elizbarrutiko zaindaria izendatu gura dute. Oñatiko erretore Joxan Larrañagak esan digu maiatzean jaso zuela izendapenaren berri. "Domingotar batek gutun bat bidali zidan izendapenaren berri emateko. Ordutik, baina, proposamena egin zuen gotzaina aldatu egin dute, eta ez dakigu ziur ze erabaki hartuko duten".

Mikel Aozaratz misiolari egon zen Balangan 1636tik 1637ra. Handik beste domingotar eta laiko batzuekin (besteak beste, Errezilgo Domingo Erkizia), Japonia aldera abiatu zen. Hara heldu orduko, atxilotu, torturatu eta burua moztu zioten.

ETXEBIZITZAK > TASATUAK

## San Martingo etxeak arazo barik zozketatu dituzte

M.B. > OÑATI

Eguaztenean zozketatu zituzten San Martin auzoko 20. zenbakiko 12 etxe tasatuak.

Izenemate epean eskaera egin zuten 47 eskatzaileen artean egin zuten zozketa. Lehenen-

go, bi etxe zozketatu zituzten Etxebiden lau urteko antzintasuna zutenen artean. Gainerako hamar etxeak kupo orokorrean zozketatu zituzten. Bukeraren, etxe bakoitzeko dokumentazioa banatu zuten.

## San Martingo etxe tasatuak

| ADJUDIKAZIODUNAK          | ETXEBIZITZA* | ADJUDIKAZIODUNAK          | ETXEBIZITZA* |
|---------------------------|--------------|---------------------------|--------------|
| Anduaga Markuleta, Itziar | 20-1-A       | Bardon Elgezabal, Ainhoa  | 20-2-C       |
| Kortabarria Ugarte, Iñaki | 20-1-B       | Lizarralde, Elvira        | 20-2-D       |
| Intxausti Jaio, Ainhoa    | 20-1-C       | Urtzelai Ugarte, Juan     | 20-3-A       |
| Otxoa-Aizpurua, Alberto   | 20-1-D       | Sologaistoa Agirre, Aitor | 20-3-B       |
| Ugarte Ugarte, Edurne     | 20-2-A       | Altube Gartzia, Saioa     | 20-3-C       |
| Zumalde Gantxegi, Julen   | 20-2-B       | Guridi Aranburu, Asier    | 20-3-D       |

\*ATARIA-SOLAIRUA-ATEA

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

> KIROLA

## Spinning saioa, mahai ingurua eta bazkaria egingo du Markelen lagunartek azaroaren 21ean

Denboraldia bukatzeko egun osoko festa antolatu du Markelen lagunartek azaroren 21erako. Zubikoa kiroldegian spinning saioa egingo dute 10:00etan. 12:00etan, mahai ingurua egingo dute Santa Ana antzokian. Bi ekitaldietan profesional mailako txirritulariek parte hartuko dute; hain justu ere, Mikel Astarlotzak, Haimar Zubeldiak, Ivan Velascok eta Markel Irizarrek. Bazkaria 14:30ean egingo dute Zotz jatetxean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Oñati eta Izarraitz tabernetan. Izena ematerakoan 10 euro aurreratu beharko dira, eta gainerakoa bazkari bukaeran.

> ZERBITZUAK

## Gaztelekuko sotoa zabalik dago aste bukaeretan eta jaiegunetan haurrendako eta gurasoendako

Iaz bezala, aurten ere zabalik egongo da udazkenean eta neguan gaztelekuko sotoa. Hain zuzen ere, aste bukaeretan eta jaiegunetan zabalduko dute, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gaztelekuko sotoa zabalik dagoen artean, umeez gurasoekin egon beharko dute. Sarrera udaltzainen egoitza aldera ematen duen atetik egingo dute. Gaztelekuko sotoan daude, besteak beste, haurrendako koltxonetak, mahaiak eta eserlekuak, jostailuak, DVDa eta gurasoendako kafe-makina.



MIREIA BIKUÑA

## Gaur bukatuko da Kontsumo Astea

Kontsumo arduratsua bultzatzeko Kontsumo Astea egiten dihardute Oñatin astelehenean. Gaur bukatuko dute, magia ekitaldiarekin. Santa Ana antzokiaren sarreran izango da, 18:30ean. Eguaztenean egin zuten kanpainaren aurkezpena, eta ekitaldian egon ziren Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaria Ana Collija eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga.

EGURRA  
SALGAI

Pagoa eta haritza  
Prestatuta

699 86 16 19



UDALA &gt; ARAUA

# Uraren gaineko ordenantza indarrean dago, behin betiko onartu ostean

Araudiak, guztira, 53 ekarpen jaso zituen, pertsona bakar batek aurkeztuta; proposamen horietako batzuk kontuan izatea erabaki du udalbatzak

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak uraren gaineko ordenantza behin betiko onartu zuen urriaren 28an egindako osoko bilkuran, eta, hortaz, dagoeneko indarrean dago. Herriko alkate Pedro Lasagabaster pozik dago, kostata bada ere, araudi berria udalbatzako kideen "erabateko adostasunarekin" aurrera ateratzea lortu dutelako. Horren harira, gaineratu du "ziur" daudela hori aplikagarria izango dela.

Uraren ordenantzari uztaillaren 29ko osoko bilkuran eman zioten aho batez hasierako onarpena. Jarraian, bi hilabeteko epea zabaldu zen araudia aztertzeko eta egoki irizitako iradokizunak egin ahal izateko; urriaren 13ra arte egon zen alegazioak aurkezteko aukera.

Guztira, 53 ekarpen jaso zituen; guztiak, pertsona bakar batek aur-



Txorrotetan gailuak jarri beharko dira uraren emaria txikitzeko.

MIRIAN BITERI

keztuta. Urriaren 22an egindako Hirigintza batzordean aurkeztutako ekarpen guztiak banan-banan aztertu eta batzuk onartu ziren. Lasagabasterren esanetan, "esker-tzekoa da lagun horrek egindako

lana; ekarpen asko, gainera, oso interesgarriak dira eta, hortaz, ordenantza aberasteko balio izan du". Urriaren 28ko osoko bilkuran, azkenik, Hirigintzako txostena onartu zuten.

HIRU ZATITAN

Ordenantzak hiru arlo nagusi ditu: eraikinetako txorrotak, dutxak eta komunak; euri urak; eta ur grisak. Lehenengoari dago-kionez, araudiak dio ur kontsu-

moa duten eraikin eta eraikuntza berrietan eta eraberritze oso-koetan ura murrizteko eta zarrastelkeria ekiditeko hainbat neurri aplikatu beharko direla derrigorrez. Uraren emaria txikitzeko jarri beharreko gailuak ere zehazten ditu.

Bestetik, euri ura batu eta biltzea bermatzen duten tresna edo instalazioak ere aurreikusten ditu. Esaterako, 1.000 metro karratutik gorako lorategietan euri ura aprobetxatzea eskatuko da.

UR GRISAK

Azkenik, ur grisaren kasuan, zehaztu dute zeintzuek egin behar duten ur horien aprobetxamendua. Erabilitako urak, bereziki bainuontzi eta dutxetakoak, batu eta gero beste erabileretarako egokitze helburua duten tresnak jartzera behartuta egongo dira. Erabilitako ur horien artean ez dira sartzen koipeak edo eduki fekalak dituztenak.

Azken horretan ere, mugak jarri dira. Lasagabasterrek horren berri eman digu: "Promozio txiki bati ezin zaio exijitu horrelakoa aplikatzea, larregi izan daitekeelako. Baina 24 etxebizitza baino gehiago batera egiteko baimena eskatzen denean, derrigor-tuta daude ur grisak (dutxak eta bainerak) aprobetxatzera".

EKONOMIA &gt; ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA

## Dagoeneko ordaindu dute salerosketaren lehen zatia

Urriaren 29an kontratua sinatu zuten Debagoieneko Industrialdearekin

M.B. &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako Industrialdea SAREN ondasunak Debagoieneko Industrialdeari saltzeko eta Eskoriatzako Udala azken industrialde horretan sartzeko prozesuak aurrera segitzen du.

Debagoieneko Industrialdeak Eskoriatzakoari Torrebason oraindik saltzeke dauden garaje, pabiloi eta lurzorua erosiko dizkio. Guztira, 2.600.406 euro ordainduko dizkio. Urriaren 29an, esandako bi industrialdeetako aldeek kontratu pribatua sinatu zuten, salerosketaren lehenengo zatiaren gainekoa. Hain justu ere, 812.000 euro jaso zituen Eskoriatzako Industrialdeak.

Sortu zenetik, Eskoriatzako Industrialdean sozio bakarra egon da, Udala, eta bertako kontseilua honako hauek osatzen dute: Pedro Lasagabaster, Edorta Barandiaran, Dorleta Lezeta, Iñaki Pierrugues eta Karmelo Lezetak (guztiak zinegotziak). Lasagabasterrek jakinarazi digunez, urriaren 29an sinatutako kontratuko diru kopuru horrekin Eskoriatzako Industrialdeak Udalarekin duen zorraren zati bat kenduko du.

AKZIOAK EROSI

Aldi berean, Udalak Debagoieneko Industrialdeko akzioak ere erosiko ditu. Jakina denez, azken horrek kapital-handitzea onartu du eta Udala Debagoieneko Industrialdean parte hartzea erabaki du.

Abenduaren 15ean salerosketaren bigarren zatia ordaintzea aurreikusi dute; hau da, falta diren 1.295.054 euroak.



Olazar auzoan falangearen sinbologia duten plakak daude.

M.B.

POLITIKA &gt; UDALA

## Kutsu frankista duten ikurrak kenduko dituzte herriko kaleetatik

Lehenengo, ikurrak non dauden aztertuko dute eta jarraian, brigadakoek kendu egingo dituzte

M.B. &gt; ESKORIATZA

Urriaren 28an izandako osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen herrian dauden frankismo garaiko sinboloak identifikatzea eta kentzea. Lehenengo, ikurrak non dauden eta zenbat diren identifikatzeko azterketa egingo da, eta jarraian, brigadakoek horiek guztiak kenduko dituzte.

Memoria Historikoaren Legeak erakunde publikoei eskumena ematen die 36ko gerrako eta diktaduraren garaikoa den sinbologia kentzeko. Herrian ere badaude horrelakoak, gehienak 60ko hamarkadan Etxebizitzako Institutu Nazionalak egindako auzoetan; esaterako, Dorletan, Olazarren eta San Pedron. Plaka horietan falangearen sinbologia agertzen da.

AZKEN ATXILOTUEI ELKARTASUNA

Bestalde, esandako ohiko bilkuran, urriaren 10eko ezker abertzaleko kideen kontrako operazioaren harira, Pedro Lasagabaster alkateak atxilotuei eta senideei elkartasuna helarazi zien. Horrelako ekimenekin Euskal Herriak bizi duen arazoa "nekez" konponduko dela esan zuen.





Iratxe Arrese eta Leire Etxenautia, Tortolis ludotekan.

MIRIAN BITERI

Iratxe Arrese eta Leire Etxenautia > Tortolis ludotekako begiraleak

## "Azarorako festa bereziak antolatu ditugu ludotekan, bazkide ez direnak erakartzeko"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Iratxe Arrese eta Leire Etxenautia gazte eskoriatzarrak Tortolis ludotekaz arduratzen dira. Datozen lerrotan, hasi berri den ikasturteaz hitz egiteaz gain, bazkide egiteko jarraitu beharreko pausoez ere berba egin digute. Bazkide berriak erakartzeko egingo dituzten ekimenen berri eman digute.

**Ikasturtea hasi berri duzue. Zenbat ume dituzue orain ludotekan? Normalean, ikasturte osoan, zenbat neska-mutiko izaten dituzue?**

Ikasturte hasieran gaudenez, 35 bazkide inguru daude; dena den, bazkide berrien zain gaude. Gutxi gorabehera, 70 eta 80 bazkide artean izaten ditugu ikasturtero, 3 eta 12 urte bitartekoak.

**Izenematea zabalik dago urte osoan. Zenbat kostatzen da hori egitea?**

Tortolisko kuotak 30,5 euro balio du; irailetik ekainerako kuota da hori. Uztailean, berriz, udaleku irekiak daude.

**Izena emateko interesa dutenek zer egin behar dute?**

Interesatuak Santa Ana kaleko 19. zenbakian dagoen ludotekara etor daitezke eta bertan emango zaie kontu korronteko zenbakia eta baita umeen datuekin bete behar duten fitxa ere. Gainera, zalantzaren bat izanez gero, bi ludotekariak gaude edozertan laguntzeko prest.

**Umeak adinaren arabera banatuta dituzue, ezta? Zergatik?**

Askotariko arazoak daude; nagusia da lokala txikia dela eta denak batera ibiltzeko espazioa

ez dela nahikoa. Jolas, eskulan edo dena delakoa antolatzen bada, denok batera parte hartzeko aukera ematen du txandaka egoteak. Hain lokal txikian ume guztiak nahastuta egongo balira, zalagoa izango litzateke giro aproposa lortzea. Txandaka egiteak aukera gehiago ematen du gauzak egiteko, txikiek eta nagusiek berdin parte har dezaketelako.

Horretaz aparte, antolatzen diren jolasak edo ekintzak ere adinaren arabekoak izaten dira, neska-mutikoen interes eta gaitasunen arabekoak dira eta horiek. Ez da posible 3 urteko ume batekin eta 10 urte beteta dituen beste batekin gauza berak egitea.

**Txanda bakoitzean, zeintzuk dira neska-mutikoen artean harrera onena duten ekintzek?**

Harrera onena izaten duten ekintzak eskulanak dira, hala nola buztina moldatzea edo eskumuturrekoak edo gatz poteak

**"Gutxi gorabehera, 70 eta 80 bazkide artean izaten ditugu, 3 eta 12 urte bitartekoak"**

**"Neska-mutikoen artean harrera onena izaten duten ekintzak eskulanak dira"**

**"Bazkide ez direnek ere ludotekaz gozatzea nahi dugu eta egubakoitzetan ekintza bereziak ditugu"**

egitea. Horretaz gain, marrazkiak egitea ere oso gustuko dute; baita antolatzen diren lehiaketetan parte hartzea ere. Gainera, asko gustatzen zaie eurek egindako gauzak etxera eramatea edo ludotekan bertan itsatea apaingarri moduan, erakusgai.

**Eguneroko jolasez gain, egubakoitzetan ekintza bereziak antolatzen dituzue...**

Bai, hala da. Ez dugu nahi ludoteka bazkideendako bakarrik izatea. Bazkide ez direnek ere ludotekaz gozatzeko aukera izatea nahi dugu eta horregatik, egubakoitzetan, bigarren txandakoekin ekintza bereziak egiten ditugu eta bazkide bakoitzak lagun bat ekarri ahal du. Ekintza bereziak antolatzen dira eta bazkide ez direnei ere ludotekan parte hartzeko aukera ematen zaie horrela.

**Azarorako zer-nolako ekintzak gertatu dituzue?**

Honako ekintzak antolatzen asmoa dugu datozen asteotarako: PlayStation, buztina, arropa margotu eta film emanaldia.

**Egubakoitzetan ez ezik, orain eguenetan ere ekintza bereziak antolatzen hasi zarete. Zergatik?**

Azarorako festa bereziak antolatu ditugu, bazkide ez direnak ludotekara erakartzeko eta bazkide berriak egiteko. Joan den astean Halloween eguna egin genuen eta asteon, udazken festa prestatu dugu. Hil osoan, eskulanez, mozorroez eta hainbat sorpresaz gozatzeko aukera egongo da eguenetan.

KULTURA > LIBURUTEGIA

## Datorren urtean erabiliko den orri-puntuaren gaineko lehiaketa deitu dute

Abenduaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak; irabazten duenak 250 euroko saria jasoko du

kin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak jakinaraziko dira.

Esan bezala, abenduaren 14an itxiko da orri-puntuak jasotzeko epea. Jarraian, saria zeini eman erabakiko du epaimahaiak. Azken hori zeintzuek osatzen duten jakinaraziko da lan saritua ezagutarazten den egun berean.

M.B. > ESKORIATZA

Udalak datorren urtean Udal Liburutegian erabiliko den orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa deitu du egunotan. Lanak liburutegira eraman beharko dira abenduaren 14a baino lehen. Lehiaketa irabazten duenak 250 euroko saria jasoko du.

Udalak jakinarazi duenez, lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte, inolako mugarik gabe; eta norberaren esku utzi dute teknika eta gaiaren aukeraketa. Aurkeztutako lanek, dena den, neurri zehatza izan beharko dutela azaldu dute: 21x5,5 zentimetrokoa, hain zuzen ere.

Orri-puntuak egilearen izenik gabe aurkeztuko dira, atzeko aldean leloa dutela. Horre-

**URTARRILAK 25: LANAK JASO**

Saritzen den orri-puntuak Udalen esku geratuko da eta hark izango du hura argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak 30 eguneko epean jaso ahal izango dira, datorren urteko urtarrilaren 25etik kontatzen hasita. Esandako epea amaitu ondoren egileek jaso ez badituzte, jasotzeko asmorik ez dutela edo behar ez dituztela ulertuko da eta Udalak horiekin zer egin erabakitzeke ahalmena izango du. Kasu horietan ez da erreklamazio edo kalte-ordain eskubiderik onartuko.

Egoki ikusten bada, gainera, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egiteko gaitasuna ere izango du Udalak.

### oharrak

GAURKO EKIMENAK

**> Argazki irteera eta Oihulari Klowen, gaur gauean**

Argazkizaleek irteera dute gaur, 22:00etan, plazan. Ordu erdi geroago, 22:30ean, Oihulari Klowen eskutik ipuin kontaketa hasiko da Inkernu tabernan.

KIROLA

**> Asteburuko hitzorduak**

Bi partidu daude bihar: 16:00etan, Euskal Ligako areto-futboleko, etxekoek Sasoikoa Durango izango dute aurrean; 18:00etan, senior mailako saskibalo partidua dago, Eskoriatza eta Andraitz taldeen artean. Etzi, berriz, areto-futbola dago berriro. Gazte mailakoek Goierrri hartuko dute, 10:30ean.

GAZTEAK

**> Sexologia tailerra eta Itxungi irrati bisita gaztelekuan**

Bihar sexologia tailerra dago gaztelekuan, 18:00etan, Mirari Arando sexologoaren eskutik. Tailerra 12-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Domekan, berriz, Arrasateko gaztetxera joango dira, Itxungi irrati libre berria ikustera.

ZERGAK

**> Zabor tasa, azaroaren 12ra arte**

Bigarren seihilekoari dago-kion etxeko zabor bilketa tasa ordaindu behar da. Borondatez ordaintzeko epea zabalik dago; azaroaren 12a baino lehen ordaindu behar da, aurrezki kutxan edo banketxean.





UDALBATZARRA &gt; ORDENANTZA FISKALAK

# Udal tasa guztiak izoztu egingo dituzte 2010ean

IBIa %5 igoko da; ibilgailuen zerga %4; IAE %5 eta hiri lurren balioen gehikuntza zerga, berriz, dagoenetan utziko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA  
Eguaztenean, azaroaren 4an, Udalbatzarrak izan zen eta, beste gai batzuen artean, 2010erako Ordenantza Fiskalei hasierako onspena emateko proposamena izan zuten mahai gainean.

Proposamen horren arabera, besteak beste, zergetan hainbat egoera egingo dituzte: ondasun

higiezinaren gaineko zerga, IBIa, %5 igoko da datorren urtean; ibilgailuen zerga %4; ekonomia jardueren gainekoan, IAE, %5eko igogara egongo da; eta, azkenik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eta hiri lurren balioen gehikuntzaren zerga dagoenetan uztea erabaki zuten.

## UDALAREN EGOERA HOBETU

Bestalde, udal tasa guztiak izoztea proposatu zuten: ur hornidura tasak; estolderia zerbitzuarena; zabor tasak; agiriak emategatik; hilerri zerbitzuarena; negozioak zabaltzeagatik, udal jabari publikoaren aprobetxamenduetatik edo lurzorua publikoa mahai eta aulkiekin oku-

patzeagatik ordaindu beharrekoak; auto-taxi tasa; edo hirigintza baimena, besteak beste.

Udalaren finantza egoera da erabaki horiek hartzeko arrazoi nagusia. "Azken urteetan egindako inbertsioen ondorioz, finantziario plan bat adostu zen Foru Aldundiarekin, eta horrek, neurri handi batean, baldintzatu egin gaitu. Udalaren egoera hobetu beharra dago, baita hurrengo urteetan inbertsioak egiteko baldintzak prestatu beharra ere", esan zuen alkateak.

## JENDAURREAN

Proposamena aho batez onartu zuten zinegotziek; PSE-EEko Paco Morcillo izan ezik, beste guztiak zeuden. Orain jendaurrean ipiniko dute eta, alegaziorik ezean proposamena buletinean kaleratuko da hurrengo urtean neurriok indarrean jartzeko.

OSPAKIZUNA &gt; MENDEURRENA

## Hitzaldia eta omenaldia Antzuolako EAJ-PNVren 100. urteurrenerako

Liburua banatuko diete udal hauteskundeetan Antzuolako EAJko zerrendetan joan direnei

ko bandera margotu zuten. Urte asko ganbara batean pasa eta ia zabortegira bota bazuten ere, 2007an Sabino Arana Fundazioak berritu egin zuen teloa eta Antzuolako EAJk esan digunez, "teloia oso egoera txarrean zegoen, baina merezi izan du berreskuratzea".

## EGIBARREN HITZALDIA

Azaroaren 14an, berriz, alderdiko kideak eta laguntzaileak omenduko dituzte. 11:00etan meza izango da alderdiko kideen omenez, eta gero txistularien agurra Olanaren. 11:15ean *EAJ-PNV Antzuolan (1909-2009)* liburua aurkeztuko dute, Antzuolako Uri Batzarrak egin. Ondoren, hitzaldia egingo du Joseba Egibarrek eta gero udal hauteskundeetan, Antzuolako EAJ-PNVko zerrendetan joan direnei liburua banatu ostean, otordu txiki bat izango da.

Ekitaldi horiekin nahi dute eskerrak ematea afiliatuei, laguntzaileei eta udal hauteskundeetan EAJren izenean aurkeztu direnei.

I.A. &gt; ANTZUOLA

Antzuolako EAJ-PNV sortu zela aurten bete dira 100 urte, eta menduurrena ospatzeko, azaroaren 12rako eta 14rako hainbat ekintza gertatu dituzte.

Azaroaren 12an, eguenean, Simon Arrietaren teloiaren zaharberitzeaz hitzaldia eta tertulia egingo dute 18:30ean Olanaren.

Antzuolako EAJren Batzokia orain Ongi Etorri taberna dagoen tokian zegoen eta oso ezagunak ziren han egiten zituzten antzerkiak. Simon Arrieta margolari bergararrak propio egin zuen harako teloi bat. Jatorrian ikurrina bazuen ere, gerra ostean, haren gainean Espainia-



Mendizaleak iazko finalista egunean.

ARROLA

AISIALDIA &gt; MENDIA

## Arrolakoek jende berria behar dute zuzendaritzarako

I.A. &gt; ANTZUOLA

Arrola mendizale elkarteak zuzendaritzak jardunean bi urte egin ostean, zuzendaritza batzordea berritu nahi du. Norbait zuzendaritzan parte hartzeko gertu balego, Arrolakoekin kontaktuan jartzeko 943 76 64 94 zenbakira deitzea edo [arrolamendi@euskalerrria.org](mailto:arrolamendi@euskalerrria.org) helbidera idaztea dira bideak.

Arrolakoek diote, zuzendaritza berritu ezean, aurrerantzean ez dela irteerarik antolatuko eta federatu nahi dutenek beste elkarre batera jo beharko dutela.

Azaroaren 10ean 19:00etatik 20:00etara Olanaren egongo dira Arrolakoak federatu edo estaldura aldaketak egiteko eta orixolerako azaroaren 22ko irteerara joan nahi dutenen izenak hartzeko.

&gt; MUSIKA

## Los viernes al ron antzuolarrak Aiherran martitzenean

Antzuola eta Aiherraren senidetzearen 25. urteurreneko hurrengo ekitaldia Aiherran izango da. Azaroaren 10ean Los viernes al ron talde antzuolarrak han egingo du kontzertua. 21:00etan hasiko da Gau Beila, eta Watson (P. Dumora), Jean-Michel Bedaxagar, Mixel Arotze eta Mixel Etxecopar kantariak; Ekhi Erramundegi, Maddalen Arzallus eta Patxi Iriart bertsolariak eta Ugutz istorio kontalaria ere izango dira. Gau Beilara joan nahi duenak Udaleko kultura zerbitzura jo dezake.

&gt; AISIALDIA

## 'Ate joka' antzerki lana azaroaren 13an Torresoroan

Azaroaren 13an, egubakoitzean, Txalo produktioak-ent eskutik *Ate joka* antzezlanak ikusteko aukera izango da 22:00etan Torresoroan. Neil Simonen *La extraña pareja* komedian oinarritutako lana ekarriko dute Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar, telebistatik ezagunak diren aktoreek. Bi lagun elkarbizitza izango da ardatza. Egoera komiko eta barregarriak ez ezik tristeak eta mingarriak ere azalduko dituzte.

## OHARRA

Joan zen astean, kaleratutako Ugaitz Iturberen irizartikuluaren harira azalpen bat egin behar dugu. Testua ulertzeko nahiko zaila izan arren, hainbat hitz azpimarratu beharra zegoen, hitzen segida joku bat eginez, ulergarriago izan zedin. Hitz horiek markatu ez eta ulergaitz egin zitzaion bati baino gehiagori, hortaz, barkamena eskatzen diegu irakurleei eta idazleari.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*  
**Zoruen kutxilatua  
eta  
bernizatzea**  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*  
**Apainketarako eta  
industriarako pinturak**  
•  
**Paper margotzak**  
•  
**Moketak eta tapizatuzak**  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA



HIRIGINTZA > ANTOLAKETA

# Ibilgailuen erabilera murrizteko arautegia aurkeztu du Udalak

Salbador, Lasao eta San Roke kaleetan eta Espaloirako sarrera bidean izango du eragina 2010ean indarrean jarri nahi duten araudiak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Udalak Salbador, Lasao, San Roke eta Espaloirako sarrera bidean ibilgailuen erabilera murrizteko arautegia landu ostean, azaroaren 4an, udaletxean, oinezkoek lehenetsuna duten kaleetarako ibilgailuen arautegia aurkeztu zuten.

BAIMENAK

Araudiak dio baimendu gabeko ibilgailuek debekatua dutela kale horietan ibiltzea eta ibilgailu guztiek aparkatzea; lau tonatik gorako ibilgailuak baimen berezirik gabe ezingo direla ibili, ezta aparatu ere; eta barikuko 16:00etatik asteleheneko 08:00etara Espaloirako bidea eta San Roke kalea (elizatik behera) itxita egongo direla, larrialdietarako edo kasu berezietarako izan ezik.



Araudiaren arabera, ibilgailuek debekatua izango dute Salbador kalean aparkatzea.

GOIENKARIA

Baimenak jaso ahal izango dituzte Elgetan erroldatuek eta autoa erregistratua dutenek eta Salbador, Lasao eta San Rokeko bizilagunek eta lokal jabeek. Baimen bereziak egongo dira haurdun edo osasun ezintasunak dituztenentzako; denden hornitzaileentzako; larrialdietarako; eta lau tonatik gorako ibilgailuentzako.

Arauk bete ezean ipiniko dituzten isunak ere zehaztu dituzte: 60 eta 500 euro artekoak izan daitezke kasuaren arabera.

EKARPENAK ETA FOROA

Araudiaren berri eman ostean, azaroan herritarrek horren gaineko galderak eta ekarpenak egin ahal izango dituzte udaletxean

propio ipinitako buzoian; [dano-nartian@elgeta.net](mailto:dano-nartian@elgeta.net) helbidean; edo [www.elgeta.org](http://www.elgeta.org) webgunean. Foro bat ere sortu da gai horretaz eztabaidatzeko. Bide horiek erabil daitezke izena emateko. Abenduan Hirigintza batzordeak ekarpenak aztertu eta udalbatzak arautegia onartu ostean, 2010ean abian jartzea da asmoa.

AISIALDIA > IKASTAROKAK

## GAP-Stretching saioak izan dira arrakastatsuenak aurtengo kirol eskaintzan

Spinning eskolek ere oso harrera ona izan dute: bi talde osatu dira eta baliteke beste bat sortzea

I.A. > ELGETA

*Elgetan sasoiari. Martxan jarri* lelopean kirol eskaintza egin zuen Udalak. Urriko lehenengo hamabostaldian ikastarotetan proba egiteko aukera izan zuten elgetarrek, gero gustuko zituztenetan izena emateko.

Kirola egiteko askotariko aukera dago herrian. Umeendako oinarrizko heziketa fisiko eskolak ematen dituzte astelehenetan, 16:30etik 17:30era bitartean; 2 eta 9 urte bitarteko umeendako psikomotrizitate eskolak daude, horiek ere astelehenetan; eta martitzen eta egunetan, karate eskolak.

Eskola kirolerako astelehena eta eguaztena ipini dituzte benjamin eta alebin mailetak neska-mutikoentzako; astelehenetan, 17:30etik 19:00etara bitartean; eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara.

HELDUAK

Umeendako ez ezik, helduendako ere badaude kirol ikastarok. Arrakastatsuenak GAP-Stretching eskolak dira, ipurmasailak, sabelaldea eta hankak lantzen direlako. Bestalde, spinningerako bi talde osatu dira eta baliteke beste bat sortzea. Horietaz gain, yoga eta tai txi (astelehen eta eguaztena), sasoiari egoteko gimnasia eta hirugarren adinekoentzako gimnasia (martitzen eta eguna) ikastarok ere abian dira.

Bestalde, gazteendako talde bat sortu nahi izan zuten, besteak beste, batuka, dantza eta kirola egiteko aukera emanez, baina ez da talderik sortu eta bertan behera geratu da.

> AISIALDIA

### Domekan hasiko dira umeendako zinema emanaldiak

Zinema emanaldiak antolatu ala ez zalantza izan dute, baina azkenean, beste urteotako esperientziari eutsi eta aurrera egitea erabaki dute. Apirilera bitartean, domekero, 17:30ean, Espaloian egingo dituzte Maala Guraso Elkarteak antolatutako zinema emanaldiak. Astero bina gurasok, txandaka, izango dute saio horien ardura eta filmak Guraso Elkarteak ipiniko ditu. Gurasoendako ekimen interesgarria da, neguko domeketan eskertu egiten dena.

> AISIALDIA

### Adimen emozionalaren gaineko hitzaldia izango da azaroaren 9an

Bizikasik antolatuta hitzaldia eta ikastaroa izango dira datozen asteotan Elgetan. Azaroaren 9an, astelehenean, Elena Iraolagoitia psikologoak adimen emozionalaren gaineko hitzaldia egingo du kultura etxean, 17:00etan. Bestalde, azaroaren 10ean, 12an, 17an, 19an, 24an eta 26an marmelada eta likore ikastaroa izango da Arantxa Azurmendiren eskutik Ozkarbi elkartearen, 16:30etik 18:30era. Ikastarorako izenematea zabalik dago udaletxean.

## 4 t'erdiko pilota txapelketa

### Zabaldurako tarteak txapelketako lehenengo norgehiagokak jokatu ostean

I.A. > ELGETA

Aurrera doa herriko pilota txapelketa eta, lehenengo hiru jardunaldien ostean, sailkapenean tarteak zabalduz doaz. Gaur, barikua, 19:30ean hasiko dira partiduak; domekan, berriz, 10:00etan.

EMAITZAK:

|   |       |
|---|-------|
| 1. Larrea-Belamendia / Arbulu-M. Elkoro                 | 13-22 |
| 2. Zubiaurre-Ugarteburu / Morales-Zenitagoia            | 17-22 |
| 3. Al. Arantzabal-Goenaga / Ibarluzea-Telleria          | 20-22 |
| 4. Ramos-Etxeberria / Ar. Arantzabal-K. Erostarbe       | 21-22 |
| 5. Gorrotxategi-Atorrasagasti / Retolaza-Larrañaga      | 8-22  |
| 6. Calleja-Arkarazo / L.A. Alkorta-Gorka Bolinaga       | 12-22 |
| 7. G. Bolinaga-Igor Irazabal / Ormaetxea-Jon Irazabal   | 11-22 |
| 8. Sergio Bouzas-Asier Osoro / Etor Garate-Unai Alkorta | 17-22 |

BARIKUKO PARTIDUAK:

|   |
|---|
| 1. Larrea-Belamendia / Morales-Zenitagoia                   |
| 2. J. Bolinaga-I. Izagirre / Luis A. Alkorta - G. Bolinaga  |
| DOMEKAKO PARTIDUAK:   |
| 1. G. Arizmendiarieta-O. Erostarbe/Enrike Elkoro-Oier Billa |
| 2. Zubiaurre-Ugarteburu/Ibarluzea-Telleria                  |
| 3. A. Arantzabal-Goenaga/Arbulu-Elkoro                      |
| 4. Satur Ramos-Gaizka Etxeberria/Unai Alkorta-Etor Garate   |
| 5. D. Peñalver-T. De Vega/H. Gallastegi-Kepa Odriozola      |

bere ustez



Beatriz Zabalondo

## Eredu onen arrastoan

**B**adira hilabete batzuk azkenekoz hemen idatzi nuela. Orduan iluna nuen gogo eta idazkera ere halakoxea atera zitzaidan: trinkoogia aukeran, esan zidaten. Oraingo hau idazterakoan, etxean gogorazi didate: "Idazkera samurra erabili".

Idazkeren harira, eskualde honetako idazle eta itzul-tzaile oso fin bat aipatu nahi dut, haren dohainak goraipatuta. Itzulpengintzako Euskadi sarietan finalista geratu da bi libururekin. Juan Martin Elexpuru uberarras ari naiz.

### "Barkamena eskatu nahi diet hiztegia eskuan lanean jarri nituen irakurleei"

Gozamen hutsa izan dut haren azken lanak irakurtzea. Prosa dotorea, handiustertik ez duena, akatsik apenes, jario eta hitz-konbinazio naturalak dakartzana, diskurtsoaren haria etenik gabe garraiatzen dakiena, euskal fraseologiaren gogorazlea, esaldi bakoitzean antzinako hitzunen sena berritzen diguna. Labur esanda: trabarik gabeko testuak sortzen dituen. Jarraibiderako eredugarria, inondik ere.

Ikasteko berandu izango ez dudalakoan, barkamena eskatu nahi diet hiztegia eskuan lanean jarri nituen irakurleei, eta bihotzez esker-tu idatzi ulerterrazagoa egiteko eskatu didazueno. Zuek gozatutakoan besterik ez baitu zentzurik nire lanak.





Udalak ez du autorik nahi herriko plazan eta kateak oztopo arkitektonikoa direla diote.

ARRITXU BARRUSO

UDALA &gt; HIRIGINTZA

## Udalak jakin gura du aramaioarrek nolako herriko plaza nahi duten

Autoak herriko plazatik ateratzea da Udalaren nahietako bat; kateekin ere ez daude pozik

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Udala aspalditik dabil herriko plazan zenbait aldaketa egin nahian. Proiektu bat landu gura dute horretarako, eta herritarren kezka eta proposamenak jaso nahi dituzte. Udalaren asmetako bat da autoak herriko plazatik ateratzea. "Herrian zehar hainbat aparkaleku egokitu ditugu azkenaldian, baina, oraindik ere, askok eta askok plazaraino sartzen dute autoa. Herriko plazatik autoak ateratzea da gure proposamena, baina hori nola egin jakiteko herritarren kezka

eta proposamenak jaso nahi ditugu lehenengo", azaldu du Asier Agirre alkateak. Irisgarritasuna ere bermatu egin nahi du Udalak; izan ere, uste dute gaur egun dauden kateak oztopo arkitektoniko handia direla eta ez dutela inolako funtziorik betetzen. "Kate horiek autoak ez sartzeko ipini ziren hasiera batean, baina jendeak katearen pareraino eramaten du autoa, eta listo. Gainera, argi dago oztopo arkitektonikoa direla", dio Agirre alkateak. Horrez gain, plazako lurzorua ere aldatu nahi dute, gaur egun

dauden baldosak errazegi apurtzen direlako eta egoeran txarrean daudelako.

NARDEAGA KALEA

Nardeaga kalearen goi partean ere laster zenbait aldaketa egin beharko direla uste du Udalak. Kafetegi bat zabaldu berri dute eta laster beste taberna bat irekiko dute. Hori horrela, metro gutxi batzuetan lau taberna eta erretiratuaren egoitza egongo dira. Horrek zirkulazio handia sortuko du eta, eskola ere aldamenean dagoela kontuan izanda, arriskuak izan daiteke umeendako.

Bi gai horien gaineko proposamenak udaletxean aurkeztu beharko dira, idatziz.

GAZTEAK &gt; BILERA

## 14 eta 18 urte bitartekoekin eta gurasoekin bilera irekia

Gazte lokala eta aisialdia izango dira eguneko bileran landuko diren gaiak

A.B. &gt; ARAMAIO

Gazteekin akordiora iritsi ezinda, Udalak orain dela urtebete pasatxo gazte lokala ixtea erabaki zuen. Udalak azaldu zuen gazteek ez zituztela errespetatzen Udalak ipinitako neurriak eta arauak; horrez gain, gazteek lokalean bertan hainbat kalte eragin zituztela ere adierazi zuten. Udalak, orain, gaiari berriro heldu nahi dio. Gazte lokala zabaltzeko, baina, gazteekin eta gurasoekin zenbait

akordio lortu nahi ditu. Udalaren asmoa da batzorde bat eratzeari; batzorde horretan, gazteen, gurasoen eta Udalaren ordezkariak egongo lirarteke eta bertan zehaztuko lirarteke gazte lokalaren erabilpena eta jarraitu beharreko arauak. Horrelakorik lortu ezean gazte lokalak itxita jarraituko dela azaldu du Udalak. Hori horrela, 14 eta 18 urte bitarteko gazte eta gurasoekin bilera egingo du Udalak datorren egunean, hilak 12, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Gazte lokalaz gain, aisialdiaren inguruan ere hitz egingo dute egun horretan; izan ere, gazteen aisialdia antolatzeke haien iritzia jakin nahi du Udalak.

&gt; PLAN OROKORRA

### Jarraituko diren pausoak azaltzeko bilera martitzenean

Plan Orokorraren lehenengo proposamenak jasotzen du Ibarrarako etxebizitza kopurua murriztea; horixe erabaki zuen Plan Orokorreko Aholku Batzordeak orain dela hilabete batzuk. Murrizketa horiek egiteko aukerak aztertzeke enpresa batek azterketa egin du, eta azterketaren emaitzak azaltzeko bilera egingo da martitzenean, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Etxebizitza kopuruaren gaiak gain, planaren egoeraren eta kudeaketaren inguruan hitz egingo da bileran eta aurrera begira jarraituko diren pausoen berri emango dute. Azterketa horrek egoera "desblokeatu" egingo duela azaldu du alkateak.

### barikuetako filmak

#### Azaroak 6

*Che. El Argentino*

> Zuzendaria: Steven Soderbergh.

> 13 urtetik gorakoendako.

#### Azaroak 13

*La ola*

> Zuzendaria: Dennis Gansel.

> 16 urtetik gorakoendako.

#### Azaroak 20

*Gran Torino*

> Zuzendaria: Clint Eastwood.

> 13 urtetik gorakoendako.

#### Azaroak 27

*Mi nombre es Harvey Milk*

> Zuzendaria: Gus Van Sant.

> 14 urtetik gorakoendako.

Emanaldi guztiak 22:15ean izango dira, kultura etxean. Filmak ikusteko euro bat ordaindu beharko da.

# Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik  
•  
sagardotegiko menua  
•  
karta

eguneko menua  
•  
ospakizunak  
•  
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95



UDALA > OSOKO BILKURA

# Tasek eta zergek inolako igoerarik ez izatea erabaki du udalbatzak

Ur Kontsortzioak aplikatuko duen igoera, %3,96, Udalak bere gain hartuko du

Santa Kolunba ermitako lehen faseko lanak bukatzeko dirulaguntza jasoko du

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen martitzenean, hilak 3, udalbatzak. Hainbat gai zituzten eztabaidatu eta onartzeko; tartean, ordenantza fiskalak.

Gatzagako udalbatzak erabaki zuen udal tasarik eta zergarik ez igotzea datorren urtean. Egungo egoera ekonomikoa ikusita, halako igoerarik ez dela komeni egitea jakinarazi zuten. Iaz ere oso tasa gutxi igo zituzten, ondusun higiezinaren gaineko zerga eta potentzia handiko ibilgailuei dagozkienak bakarrik; hortaz, zerga eta tasa gehienak orain dela bi urtekoak bezalakoak izango dira datorren urtean.

Udalak kudeatzen ez dituen tasak ere ez igotzea erabaki zuen udalbatzak. Mankomunitateak kudeatzen duen zaborraren tasak



Udalbatzako kideak martitzen ilunkaran ordenantza fiskalak onartu bitartean.

M.A.

ez du igoerarik izango 2010ean –aurten %24 artekoa izan du–, baina bai Ur Kontsortzioaren eskuetan dagoen urarenak: %3,96ko igoera, hain zuzen. Alka-

teak jakinarazi zuen igoera hori bere gain hartzea erabaki duela Udalak, eta herritarrei ez aplikatzea, nahiz eta ondorioz diru apurren bat galdu.

Bestetik, Udalaren eraikinak –udaletxea, eskola eta kultura etxea– garbitzen dituen Hemen Garbiketarako enpresari kontratua luzatzea erabaki zuten. Lau urte-

rako kontratua dauka, baina, bi urte pasatu eta gero, urtero berri- tu behar du udalbatzak. Halaxe egin zuten eta beste urtebetez, behintzat, Hemen Garbiketarako enpresak egingo ditu eraikin horien garbitasun lanak.

OLAUNGO SARRERA, 14.770 EURO

Santa Kolunba ermitako lehen faseko lanak bukatzeko 30.000 euro behar direla jakinarazi zuen alkateak. Teilatua konpondu zioten udaberriaren Estatu Fondoko dirulaguntzari esker –44.000 euro–, baina lehen fasea oraindik bukatu barik dago. Dirulaguntza baten zain daude aurrera egiteko eta beste zati bat Udalak berak jarriko du; lanok egunotan esleituko dituzte.

Hainbat baserriara doazen bide sarreren konponketa lanak, ostera, dagoeneko guztiz bukatuta daude. Landagipuzkoa egitasmoari esker egin dituzte eta Aldundiak oniritzia eman die lan horiei egunotan. Lau bide sarrera izan dira, eta horietatik hiruren gastua Landagipuzkoak hartu du bere gain –Gatzagain, Arrate eta Asteisol. Udalak bakarrik ordainduko du: Olaun baserrira doan sarrera egokitzea, hain zuzen. Horren gastua 14.770 euro izan da eta martitzenean egindako osoko bilkuran oniritzia eman zioten ordainketa horri.

INTERNET

## Gaur arratsaldean zabalik dago KZgunea

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 6, etorriko da KZguneko dinamizatzailer Aitor Madrid herritarren zalantza argitu eta Interneten gaineko ikastaroak eskaintzera. Arratsaldean egongo da zabalik (16:00-20:00).

Azken hilabeteotan egin duen legez, bi orduko ikastaroak eskainiko ditu, gehienak Interneten arrakasta duten programen gainekoak. Sare sozialak zer diren eta zelan erabili erakusteaz gain, hona beste batzuk: *Blogger*, *Youtube*, *Gmail*, *Picnik*... Gainera, software librea zer den eta zelan erabili jakinaraziko diete interesa duten gatzagarrei, eta Interneten iragarkiak argitaratzen eta artikulatuak bilatzen erakutsiko diete.

GIZARTE ZERBITZUAK > EMAKUMEA

## Berdintasun plana egiteko batzarra

Martitzenean da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta udal ordezkariak eta herritarrek gonbidatu dituzte

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak osatuta daukaten Bideberri Mankomunitatea –gizarte zerbitzuei dagozkien gaiak kudeatzeko– Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana egiten dabil. Iaz abian jarritako prozesuari jarraipena emango dio eta plan horren diseinua egingo du. Hiru herrietan landuko dute parte-hartzean oinarrituta dagoen sistema

bitartez eta herritarren iritzia jaso gura dituzte egunotan. Hala, batzarrak egingo dituzte eta Gatzagan datorren martitzenean izango da, hilak 10, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:00-20:00).

LANTALDEAK OSATU

Elhuyar Aholkularitza dabil bideratzen Berdintasunerako Plana. Eta antolatutako batzarraren helburua da emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunen inguruan hausnartzea herriko ordezkari politikoek, udal teknikariek eta herritarrek. Gainera, egungo egoera hobetzeko ekintzak proposatzeko aukera izango dute guztiek. Lehenengo batzar horren ostean lantaldeak osatuko dituzte eta beste bi batzar egingo dituzte gero.

OSPAKIZUNA > SAN MILIXAN FERIA

## Eskoriatzatik egongo da autobusa

Azaroaren 15ean San Milixan feriara automobil barik joateko eskatu dute udal ordezkariak

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Hilaren 15ean, domekan, egingo duten San Milixan feriara gertatze lanak aurrera doaz. Hala, antolatuta dauzkate ikuskizuna, artisauroak, erakusketa... Eta horrek guztiak arrakasta izan dezan, bisitariak gura dituzte. Gatzaga, baina, herri txikia da eta automobilendako oso leku gutxi dago; horregatik, autobusa antolatu izan dute azken urteotan herritik aldentuta, Dorleta Santutegi inguruan, uzteko autoa. Hala ere, beti izaten ziren arazo txikiak eta, halakorik ez gertatzen, beste era batera antolatzea erabaki dute Kultura Sailak eta Jai batzordeak.

ESKORIATZATIK GATZAGARA

Autobus zerbitzua egongo da, bai, baina Eskoriatzatik Gatzagara joateko. Hala, bada, inguruko herritarrek datozen bisitariari gomendatu diete automobila etxean utzi eta autobusean etortzeko, edo bestela, automobila Eskoriatzan utzi eta Gatzagara joango den autobusa hartzeko. Feriak iraun bitartean (10:00-14:30) joan-etorrian ibiliko da Goierrri Bus enpresako autobus txikia –24 leku. Eskoriatzan bi geltokitan hartu ahal izango da autobus hori.

Hala, Gatzagan ez da egongo trabarik eta lasai ibiltzeko aukera izango dute bisitariak, bai plazan, bai gatz museon.



ATLETISMOA &gt; MARATOI ERDIA

# Euripeko Behobia domekan

Aurten ere parte-hartze errekorra gaindituko du probak, 18.444 korrikalari izango dira-eta

Iaz ibarreko 464 lagun iritsi ziren helmugara; Ritxar Fernandez izan zen azkarrena

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Aurten ere Behobia-Donostia lasterketak izenburu berak dakarza: "Parte-hartze historikoa", "Chema Martinez faborito", "Handitzen, handitzen...". Eta baita datu deigarri bat ere, gipuzkoarrron %1,5ek proba egingo dutela -datu esanguratsua da hori, kontuan izanda 20 kilometroko lasterketa bat dela.

Horren aurrean, Debagoiena aurten ere ez da atzean geratuko, eta Donostia aldera korrikalari gehien eramango dituen eskualdeetako bat izango da, berriro ere.

CHEMA MARTINEZ, BERRIRO

Aurtengo lasterketan ere korrikalari madrildarra izango da protagonista. Lasterketa irabaztera dator Martinez, eta baita Alberto Juzdadorren 1996ko errekorra gainditzera ere, behingoz (59:19), nahiz eta eguraldia ez duen alde-

ko izango. Debagoieneko atletismozaleek, Oñatin, Corpusetako herri lasterketan ikusi ahal izan zuten azkenekoz Martinez, eta orduan, Nike etxeko korrikalaria bigarren izan zen, Peter Kiruiren atzetik. Donostian, baina, Martinez da faborito.

RITXAR FERNANDEZ AZKARRENA

Iaz Oñatikoa izan zen ibarreko azkarrena (1:07:03), baina aurten ez da lasterketan izango; ez, behintzat, korrika. Federazioak lasterketa auto barrutik jarraitzeko gonbita egin dio, eta hala, Fernandezek horrenbestetan esku hartu duen maratoi erdia beste modu batean bizi ahal izango du.

Harekin batera, baina, ibarrean hainbat korrikalari daude maratoi erdia egiteko ordu eta hamar minutu baino gutxiago behar dutenak -marka ederra da hori-, eta Fernandezek faltan, ikusteko dago aurten zein izango den azkarrena.

KORRIKALARI BAT, HELBURU BAT

Aurrealdean ibiliko direnekin itsutu barik, Behobia-Donostia maratoi erdia duen izaera herrikoiatatik da ezagun, eta bertara joango den korrikalari bakoitzak helburu propioa izango du: buruan duten marka hobetzea batzuek, amaitzea beste batzuek, eta ondo amaitzea gehienek. Sufrikarioak ahaztuta, korrikalariak azken metroetako une hunkigarriak gordetzen dituzte memorian, eta aurten, azken metro horiek are eta hunkigarriago izango dira, antolatzaileek 50 metroko luzera izango duten harmailak jarriko dituzte-eta Bulebarrean.

EURIA ETA HAIZEA

Azken urteotan eguraldia lagun izan da Behobia-Donostia lasterketan. 2004an euria bota zuen gogotik, eta helmugara iritsita, korrikalariak azkar erretiratu ziren, ez hozteko. Ordutik eguraldi ederra izan da proban, baita bero handiegia ere. Domekan, baina, 2004an izandako giro eskasa errepikatuko da. Egun euritsu, eta hori baino okerrago, haizetsua. Aurreikuspenek diote euria egitearekin batera ipar-mendebaleko haizea zakar ibiliko dela, eta hotz-sentsazioa areagotu.

Hori jakinda, korrikalari bakoitzak jakingo du ze neurri hartu lasterketan zehar ez hozteko, jakinda helmugan jasoko dituzten txaloengatik merezi izango duela esfortzuak.

DATUA

## 18.444


KORRIKALARI

Azken urteotan moduan, aurten ere errekor guztiak hautsiko ditu Behobia-Donostia lasterketak. 18.444 lagunek eman dute domekako probarako izena.

KONTUAN HARTZEKO

## Behobia-Donostiaren jarraipen zabala Goienako medioetan

Urtero moduan, aurten ere Goienako lankideak Donostian izango dira domekan, lasterketaren jarraipena egiten, eta ibarreko protagonisten adierazpen, argazki, irudi eta bestelakoak batzen. *Astelehenero Goienkaria*-k lau orri eskainiko dizkio Behobia-Donostia lasterketari, eta aurrerago aipatutakoekin batera ibarrekoen sailkapena ere argitaratuko du astekariak. Horrekin batera, GOITBko *Harmailatik* kirol saioan ere aparteko protagonismoa izango du maratoi erdiak (astelehena, 22:15). Eta Arrasate Irratiak ibarreko korrikalarien adierazpenak batuko ditu *Astelehenetan kirolak* saioan (11:05). Sarean ere albiste izango da domekako proba; besteak beste, argazki galeria egongo da ikusgai [www.goiena.net-en](http://www.goiena.net-en).



Domekan ere motxilaz beteko dira Donostiako Gipuzkoako plazako arkupeak.

JOSETXO ARANTZABAL



> ESKUBALOIA  
**Ford Mugarrik Portugalete hartuko du bihar Iturripen**

Ford Mugarrik lidergoa utzi eta hirugarren postura egin du salto. Bihar, Arrasatekoek Portugaleteren kontra jokatuko dute, 18:30ean.

Emakumezkotan, Verkol Aloñako neskek 18:00etan jokatuko dute bihar, Azkoagainen, Zuazoren kontra. Azkenik, territorial mailan Aloña Mendik Amenabar hartuko du bihar 16:00etan. Soraluze BKE taldeak, berriz, Ormaiztegin jokatuko du bihar (18:00).

> ARETO FUTBOLA  
**Eskoriatzak eta UDA Orly taldeek etxean jokatuko dute**

Euskal Ligan dabilen Eskoriatzak Sasikoa taldearen bisita izango du bihar (16:00) Intxaurtxuetan. Eskoriatzak puntu baliotsua eskuratu zuen joan den astean Egintza kantuan (6-6).

Gipuzkoako ligako bigarren mailan, UDA Orlyko mutilek Errexil Tabernaren kontra jokatuko dute gaur, egubakoitza, Almenen (20:30). Bi talde horiek goiko postuengatik dabilta lehian.



Bergarako Martin Ibañez jokalaria, Hernaniko jokalaritari driblinga egiteko gertu, ligako lehenengo partiduan (1-1). J. ARANTZABAL

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

## Bergarak parean dagoen Berio hartuko du bihar Agorrosinen

Mondrak ere etxean jokatuko du bihar, eta Aloñak Lesakan domeka arratsaldean

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA  
Liderraren etxean galtzea (2-0) tragedia ez dela jakinda prestatu du aste barruan Bergarak biharko norgehiagoka (Agorrosin, 15:30), orain dela 15 egun izandako sentsazio onak errekupe-

tzeko helburuarekin. Berio ligako talde indartsuenen zerrendan zegoen liga hasieran, baina donostiarrak ez dira uste bezain ondo hasi, zortzi partiduetatik lau irabazi eta beste lau galdu dituzte-eta.

**ETXEKO BIGARREN GARAIPENA**  
Mojategin hamabost egunean behin batzen diren zaleak garai-pen gosez dira, ligan etxean jokatutako lau partiduetatik zuri-moreak behin bakarrik nagusitu dira-eta, Beti Gazteren kontra, urri hasieran (2-1).

Azkargortaren taldeak oxigeno poltsa ederra jaso zuen joan den astean Zarautzi irabazita; emaitzagarri, batetik, eta egindako partidu serioagarri, bestetik. Eta bihar (Mojategi, 16:30) seriotasun itxura hori nahi dute erakutsi golak egiteko erraztasuna duen Idiazabalen aurrean.

**GOL JARIOA ETEN**

Aloña Mendik etxetik kanpora jokatuko du oraingo asteburuan ere (domeka, 17.00, Lesaka), eta Zubiaren mutilek azken bi jardunaldietan jasotako gol zaparrada amaitu nahi dute -zortzi gol bi partidutan, orain arte jasotakoaren ia erdia-. Horretarako, liga pattal hasi duen Beti Gazte izango dute aurrean.

**ARETXABALETAK, DURANGON**

Aloñak moduan, hirugarren mailan Aretxabaletak ere joan den asteko erreposoa ahazteko asmoz egingo du bidaia, oraingoan Durangora (zapatua, 17:00). Etxetik kanporako partiduetan puntuak batzea erronka bada ere, Gordobilen eta Arenazaren mutilek hori egiten dute errazen. Durango sailkapenaren erdialdean dago, UDAk baino hiru puntu gutxiagorekin.

Zu zara protagonista, gure **6. URTEURRENEAN**

## Eramazu KUTXA GOTORREKO SARI HANDIA

PARTE HAR EZAZU AZAROAREN 4tik 14ra, eta eraman itzazu milaka ZUZENEKO SARI. Eta zorterik handiena dutenetakoa baldin bazara, sar zaitez GURE KUTXA GOTORREAREN BARRURA, hantxe dituzu zain 50etik gora OPARI HANDI (kontsolak, LCD pantailak, kamera digitalak, eta abar). Ez ahaztu zeure kupoia betetzea.

**NEW YORKERA JOATEKO BIDAIA  
ZOZKATZEN DUGU!**

Sariz beterik, ZUTAZ beterik.



www.el-boulevard.com  
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



AUTO LASTERKETAK &gt; RALLYA

# Bizkaiko rallya gurean jokatu dute zapatuan

Durangalde Racing Elkarteak Elgeta inguruko errepideak aukeratu ditu bihar arratsaldeko tramuak egiteko

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Bihar, zapatua, goiz eta arratsalde korrituko dute III. Bizkaiko Behatokitiko Rallya, eta arratsaldeko tramuak Elgeta inguruan egingo dituzte. Durangalde Racing elkartetik adierazi dute 80 autok hartuko dutela esku. Hala, goizeko tramuak Muxika inguruan egingo dituzte eta arra-

tsaldekoak, Debagoieneko errepideetan. Arratsaldean bi tramu izango dira, eta bakoitzean bi pasada egingo dituzte. 15:00etan egingo dute lehenengo tramu: Elorrio-Elgetako industrialdea. 15:45ean, berriz, Angiozar-Kanpanzar tramu.

17:00etan bigarren pasada egingo dute Elorrio-Elgetako industrialde tramu, eta amaizteko, 18:00etan hasiko dute Angiozar-Kanpanzar tramuko bigarren pasada.

## RALLY GUTXI EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian oso rally gutxi antolatzen dituzte, lan handia delako, eta errepide askotan moztu behar delako zirkulazioa. Auto igoerak errazago antolatzen dira,

eta baita ralliesprintak ere, tramu bakarra izaten dutelako.

Horregatik dira rallyak ikusgarri, tramu asko dituztelako, eta pilotuen erregulartasuna saritzen delako. Baina bihar oso zaila izango da tramu biak jarraitzea: "Errepidea moztu egingo dugu; hortaz, hobe da tramu bat edo bestea aukeratzea", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Oier Gonzalezek. Eta bietako bat aukeratzeko eman ditu: "Erorriotik Elgetara bidean askok paellen alde egingo dute, baina niretako Angiozartik Kanpanzar arterako tramu ere ederra da. Estua, kurba askorekin, batez ere Elgetako bidegurutzetik Kanpanzarreraino".



Santi Artetxe (argazkian) lasterketan izango da, baita Vilariño ere. Albedrik azken unean ezetz esan du.

JOSETXO ARANTZABAL

## > SASKIBALOA

### Eskoriatzako neskek ez dute Andraitzen kontra kalerik egin nahi

Eskoriatzako senior mailako neskek sailkapenean azkeneko lekuan dagoen Andraitzen kontra jokatu dute zapatuan Intxaurtxuetan (18:00). Baina bi jardunaldi baino ez dituztenez jokatu, liga hasieran ezin da sailkapenari begira balorazio handirik egin.

Ligako lehenengo partiduan Eskoriatzako neskek ondo hartu zuten mendean Tecnun taldea (58-37), baina joan den astean ezin izan zuten etxetik kanpora bigarren garaipena jarraian eskuratu (47-43). Eskoriatzako lehenengo helburua, baina, etxean indartsu ibiltzea da; oraingoan, Andraitzen aurrean.

## > XAKEA

### Hernandezen eta Francoren arteko lehia parra amaitu zen

Arrasate Hiria torneoko partida interesgarriena parra geratu zen joan den egubakoitzean. Laugarren jardunaldian, Holden Hernandez eta Alejandro Franko izan ziren aurrez aurre, eta, partida azkarra izan bazen ere, berdinketan amaitu zen partida. Jardunaldiko ezustekoa, berriz, Aramaioko Juan Manuel Ruiz gazteak -14 urte- eman zuen, Iñigo Argandoña nazioarteko maisua estututa; berdinketa egin zuten.

Torneoko txapelketa erabakitzeko dago oraindik, eta azkenurreko jardunaldia jokatu dute gaur, egubakoitza (19:00). Oraingoan, hamar jokalaririk daude torneoa irabazteko aukerarekin.

## > ERRUGBIA

### Errugbi Eskola Txapelketa egingo dute domekan Mojategin

Oraingo asteburuan hainbat hitzordu izango dira Mojategiko errugbi zelaian. Domekan Errugbi Eskola Txapelketa egingo dute, 10:30ean hasita, baina zapatuan ere izango da hitzordurik, 10:30ean hasita Debagoieneko ikastetxeekin adostuta zazpiko errugbia egingo dute-eta.

Arrasateko taldeek, berriz, etxetik kanpora jokatu dute. Senior mailako Kanpanzar ART taldeak Gamarran jokatu du bihar (16:00) Gasteizen kontra. Emakumezko seniorrek, berriz, domekan jokatu dute Unben (10:30) Eibarren kontra. Gazte emakumezkoek, berriz, bihar jokatu dute Donostian (12:15).

## asteburuko hitzorduk

### FUTBOLA

#### Bigarren maila

Real-Recreativo de Huelva  
Zapatua. 16:00. Anoeta.

#### Hirugarren maila

Cult. Durango-Aretxabaleta  
Zapatua. 17:00. Tabira.

#### Gazteen liga nazionala

Aretxabaleta-Cult. Durango  
Domeka. 16:30. Ibarra.

#### Gazteen euskal liga

Lengokoak-Bergara  
Zapatua. 16:00. Donostia.

#### Ohorezko erregiona maila (lehenengo preferentea)

Beti Gazte-Aloña Mendi  
Domeka. 17:00. Mastegi.

Bergara-Berio  
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

Mondra-Idiazabal  
Zapatua. 16:30. Mojategi.

#### Erregional preferentea

Mutriku-Antzuola  
Zapatua. 18:45. Errotazar.

Aretxabaleta-Anaitasuna  
Zapatua. 16:30. Ibarra.

#### Lehen erregionala

Mondra-SBB Mutrikuarrak  
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Eibarrak-Bergara  
Zapatua. 15:30. Unbe.

#### Gazteen ohorezko maila

Lazkao-Mondra  
Zapatua. 11:30. Arizti Handi.

Aloña Mendi-Lagunak  
Domeka. 16:30. Azkoagain.

#### Gazteen lehen maila

Urki-Arizmendi  
Zapatua. 19:00. Unbe.

Bergara-Soraluze  
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Eibart-Aretx. Arizmendi  
Domeka. 18:30. Unbe.

#### Ohorezko kadeteak

Bergara-Zumaia  
Domeka. 11:30. Ipintza.

Eibar-Aretx. Arizmendi  
Domeka. 17:00. Unbe.

Aloña Mendi-Zarautz  
Domeka. 12:00. Azkoagain.

#### Kadete gizonetako

Urki-Bergara  
Domeka. 11:30. Unbe.

Arizmendi-Arrasate  
Zapatua. 11:30. Almen.

Aloña Mendi-Aretxabaleta B  
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

#### Infantil ohorezko maila

Ilintxa-Bergara  
Domeka. 11:00. Bikuña.

Aloña Mendi-Arrasate  
Domeka. 10:00. Azkoagain.

Aret. Arizmendi-Lagunak  
Domeka. 11:00. Ibarra.

#### Emakumezkoen liga

Aloña Mendi-Elgoibar  
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Arizmendi-Amiak Bat  
Zapatua. 15:30. Almen.

Eibar-Mondra  
Domeka. 13:30. Unbe.

#### Emakumezkoen F11, kad.

Zumaiako-Arizmendi  
Zapatua. 11:00. Zumaia.

Mondra-Beasain  
Zapatua. 12:00. Mojategi.

#### Emakumezkoen F8, kad.

Zestoa-Bergara  
Zapatua. 10:00. Iraeta.

Ordizia-Aloña Mendi  
Domeka. 10:00. Altamira.

Domeka. 10:00. Altamira.

### ARETO FUTBOLA

#### Euskal liga

Eskoriatza-Sasikoa  
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

#### Bigarren maila

UDA Orly-Errexil Tab.  
Gaur. 20:30. Almen.

### SASKIBALOA

#### Lehenengo maila

Lagunak-MU  
Zapatua. 18:00. Barañain.

#### Senior autonomikoa

Krafft Atco.SS-Aloña Mendi  
Domeka. 12:00. Donostia.

#### Gipuzkoako senior gizona.

Soraluze BKE-Astigarraga  
Domeka. 17:00. Bergara.

MU-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Musakola.

Soraluze BKE-Gabi Jatetxea  
Domeka. 18:30. Bergara.

#### Senior emakumezkoak

Eskoriatza-Andraitz  
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

#### Gazte gizonetako, erren.

Hernani-MU A  
Domeka. 12:00. Hernani.

#### Gazte gizonetako, partai.

Aloña Mendi-MU B  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Take Tolosa-Soraluze BKE  
Zapatua. 12:00. Tolosa.

#### Gazte emakumezkoak

Carnicas SM-Eskoriatza  
Domeka. 10:00. Irun.

#### Kadete giz. errendimendua

Hernani-MU A  
Zapatua. 16:15. Hernani.

#### Kadete giz. partaidetza

Aloña Mendi-Aurrera  
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Mutriku-MU B  
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

#### Kadete emak. partaidetza

Colchones-Eskoriatza  
Zapatua. 10:00. Ordizia.

Andraitz-Arizmendi Eskoriat.  
Zapatua. 11:00. Legazpi.

Soraluze BKE-Aloña Mendi  
Domeka. 12:15. Bergara.

#### Infantil gizonetako

Soraluze BKE-Ordizia  
Zapatua. 09:30. Bergara.

LEK Ointxe-Goierribus  
Zapatua. 10:30. Musakola.

Goierri-Aloña Mendi  
Zapatua. 10:45. Urretxu.

Servimasa BKE-Take Electr.  
Zapatua. 10:45. Bergara.

LEK-Hotel Castillo OKE  
Zapatua. 12:00. Musakola.

#### Infantil emakumezkoak

BKL-LEK Arrasate  
Zapatua. 09:00. Beasain.

Ambolo-LEK Eskoriatza  
Zapatua. 13:00. Elgoibar.

Comercial Zabala-Soral. BKE  
Zapatua. 12:15. Azpeitia.

### ESKUBALOA

#### Euskadiko seniorrak

Ford Mugarrri Arr.-Portugale.  
Zapatua. 18:30. Iturripe.

#### Euskadiko senior mailako emakumezkoak

Verkol Aloña-B.Zuazo  
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

#### Euskadiko gazte mailako emakumezkoak

Verkol Aloña-Grupo Eibar  
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

#### Euskadiko kadete mailako emakumezkoak

Verkol Aloña-IMH Elgoibar  
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

#### Lehen territorial maila

Ormaiztegi-Soraluze BKE  
Zapatua. 18:00. Zubipe.

#### Izarraitz Aloña-Amenabar

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

#### Bigarren territorial maila

Arrasate-Rotula Studio  
Zapatua. 16:30. Iturripe.

#### Gazte gizonetako

Rotula Studio-Bergara Sora.  
Domeka. 10:30. Ordizia.

Tolosa-Aloña Mendi  
Domeka. 10:30. Tolosa.

#### Kadete gizonetako

Egia Servi-Chap-T. Chapime  
Zapatua. 17:30. Donostia.

Berezo Aloña-Egia Servi  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Citroen Chapime Ar.-Irun  
Domeka. 10:30. Iturripe.

#### Gazte mailako emakum.

Bergara Soraluze-Ereintza  
Domeka. 11:00. Labegari.

JM Amaña-Citroen Chapime  
Zapatua. 16:30. Eibar.

#### Kadete emakumezkoak

CD Leizaran-Verkol Aloña  
Zapatua. 17:30. Andoain.

### XAKEA

#### Arrasate Hiria torneoa

Gaur, 19:00. Altamiran.

### ERRUGBIA

#### Senior gizonetako

Gasteiz-Kanpanzar ART  
Zapatua. 16:00. Gamarra.

#### Senior emakumezkoak

Eibar-Kanpanzar ART  
Domeka. 10:30. Unbe.

#### Gaztetxoak

Zapi errugbia: zapatuan  
10:30ean Mojategin.

Gipuzkoako errugbi eskola:  
domekan, 10:30. Mojategi.

### ATLETISMOA

#### Behobia-Donostia laster.

Domeka, 11:00. Behobia.



Arrasateko neskek Eibarren jokatu dute domekan Arrasateko eta Durangoko taldeak batuta osatu dute aurtengo senior mailako taldea (argazkian). Etzi 10:30ean jokatu dute.





> **LEHIAKETA**  
Gipuzkoako Kantu Txapelketako kanporaketa Arrasaten > 38



> **MUSIKA**  
Bide Ertzean taldearen zuzeneko bihar Bergaran > 39

> **JON ARTEAGA**  
Bergara KEko senior mailako saskibaloitaldean dihardu eta, horrez gain, infantil mailako nesken taldea zuzentzen du. DJ ere aritzen da > 42



# Bertsozale mordoa Txapelketa Nagusiko lehen finalaurrekoan

## BERTSOLARIAK

Gaztelumendi, Lujanbio, Paia, Mendiluze, Martin eta Lekue izango dira

## SARRERAK

Zapatuan 250 sarrera salgai izango dira Labegaraietan

### IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko *errusiar mendia* den horretan buelta bat gehiago egingo dute bidaiariek, bertsolariak eta zaleek, zapatuan Bergaran. 17:30ean hasita Labegaraietako kiroldegian izango den lehen finalerdian, Aitor Mendiluze, Fredi Paia, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin eta Etxahun Lekue bertsolariak jardungo dute Alaitz Rekondo gai jartzailearen esanetara, 1.350 lagunengatik.

Hori da Labegaraietako edukiera eta Internet bidez salgai ipinitako sarrera guztiak martitzen goizerako salduak ziren. Egunean bertan, txarteldegian 250 sarrera salduko dituzte. 16:00etan.



Beñat Gaztelumendi Uztaritzeko final-laurdenean sailkatu zen finalaurrekorako.

ALBERTO ELOSEGI/BERTSOZALE ELKARTEA

Jendaurrean daukaten onena emanez bertsolariak honako ariketak egin beharko dituzte: ofiziala zortziko handian hiruna bertso; beste hiruna txikian; hiruna punturi erantzun; beste hiruna bertso seiko motzean ofiziala; eta kartzelako gaiari erantzunez azken hiru bertsoak.

### BIGARREN ITZULIA

Saio puntuagarria amaituta, lehenengo sailkatzen denak finalerdietako bigarren itzulian Donostian jardungo du azaroaren 29an. Aurrez, finalurreko lehen itzulian hiru saio gehiago jokatu behar dira: Gasteizen azaroaren 8an, Tolosan hilaren 14an, non

Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak kantatuko duen; eta Hendaian 15ean. Finalurrekoen lehen itzulian jokatu sei bertsolari txapelketatik kanpo geldituko dira eta gainontzekoek Gernikan, Iruñean eta Donostian jokoan izango dute finalerako pasea.

## TOKI ALDAKETA

### Saioa, frontoitik Labegaraietara

Labegaraietako kiroldegian toki handiagoa egongo delako lekuz aldatu dute Bergarako saioa. Hala ere, kanpotik datozenendako modu egokian seinalatuta egongo da harako bidea eta aparkatzeko toki ere; industrialdean egongo dena. Labegaraietan, rokodromoaldean ipiniko dute agertokia; hortaz, alde horretako harmailak ez dira erabiliko. Kantxan 1.000 aulki inguru ipiniko dituzte; baita kantxaren bi aldeetara dauden pasabideetan eta agertoki pareko harmailen atzeko aldean ere. Agertokia goizean goiz muntatuko dute eta ondoren, gainontzekoak egokitzen Bergarako Bertso Eskolakoek, Bertsozale Elkarteak langileek eta soinu teknikariek jardungo dute.

Guztia ez da lehia, baina, eta bertsoez gozatu eta *errusiar mendian* bezala doinu eta errimen emozioetan murgildu nahi dutenek zapatuan Bergaran hasita badute, bidaiaren amaierara, BECeko abenduaren 13ko finalean bitartean bertsolariak entzuteko nahiko aukera.

## BERTSOLARIAK TXAPELKETAN



**Aitor Mendiluze**  
Andoain, 34 urte

1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea eta 2001 eta 2005eko Txapelketa Nagusietan finalista. Zuzenean sartu da finalurrekoetako lehen itzulira.

**Fredi Paia**  
Algorta, 28 urte

Bost aldiz Bizkaiko txapelketan finalista eta azken Txapelketa Nagusi bietan finalurrekoetan kantatu du. Laudioko final-laurdenean lortu zuen Bergarako finalerdietako txartela.

**Maialen Lujanbio**  
Hernani, 33 urte

2003an Gipuzkoako txapeldun izan zen. Laugarren Txapelketa Nagusia du eta 2005ean finalista izanik, Bergarako finalerdia izango du estreinako saioa aurtengo txapelketan.

**Beñat Gaztelumendi**  
Añorga, 22 urte

Gipuzkoako txapelketan bigarren egin zuen 2007an. Lehenengoz kantatzen du Txapelketa Nagusian. Uztaritzeko final-laurdenean lehenengo eginda sailkatu zen finalerdietarako.

**Jon Martin**  
Oiartzun, 28 urte

Bigarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Laudioko final-laurdenean hirugarren egin zuen eta puntukako sailkapenaren arabera zortzigarren izanik jardungo du Bergaran.

**Etxahun Lekue**  
Larrabetzu, 29 urte

Bizkaiko txapelketan azken lau edizioetan finalista. Txapelketa Nagusian bigarrenez izango da. Final-laurdenean, Leitzan, lehena izanik Bergarako finalerdietako zuzenean sailkatu zen.



MUSIKA &gt; LEHIAKETA

# Kantu Txapelketako azken finalerdia, Arrasaten

Bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian jakingo da zein abeslari joango diren Donostiako finalera hilaren 15ean

IKER BARANDIARAN / AITZIBER ARANBURUZABALA > ARRASATE  
Bihar, zapatua, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako azken finalerdia egingo dute Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 18:00etan.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak da lehiaketaren antolatzailea eta 2006a ezker urtero egiten dute. Urriaren 24an Beasainen egin zuten finalerdietako bat, hilaren 31n Zumaian beste bat eta hirugarren eta azkena Arrasaten izango da. Horren ostean, finala egingo dute Donostian hilaren 15ean.

## IBARREKO ABESLARI ASKO

Lehiaketak gero eta harrera hobea dauka eta aurten ia 40 parte-hartzaile dabilta lehian. Horietatik sei dira Debagoienekoak.

Lehiaketaren koordinatzaile Juan Luis Aranbururen esanetan, "aspaldian Debagoieneko



Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutia arrasatearrak, kantu txapelketako beste edizio baten.

GOIENKARIA

abeslariak gogor dabilta eta sari bat baino gehiago ere eskuratu izan dute, besteak beste".

Hain zuzen ere, ibarreko abeslariak behin baino gehiagotan izan dira Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean. Hala, 2007an Eneritz Urrutiak, Ainhoa Baltzategik eta Bea Asurmendik taldeen sailkapenean lehen saria eskuratu zuten; eta

2008ko edizioan Bea Asurmendik bigarren saria lortu zuen bakar-lari moduan, besteak beste.

Eta aurten ere, gehienek errepikatu egingo dute; baina badira abeslari berriak ere: esaterako, Arrasateko Eneritz Urrutia Maialen Arratibekin batera aurkeztuko da aurten, eta alban izango dute Andoni Markaide trikiti-jolea.

## Debagoiendarrak

|                     |              |
|---------------------|--------------|
| Amy Kerkhof         | Bergara      |
| Bea Asurmendi       | Arrasate     |
| Maddi Iregi eta     |              |
| Maite Galdos        | Aretxabaleta |
| Eneritz Urrutia eta |              |
| Maialen Arratibel   | Arrasate     |

ITURRIA: EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA

Bergararik Amy Kerkhofek esku hartuko du; Arrasatek Bea Asurmendik alde batetik, eta Eneritz Urrutiak eta Maialen Arratibek bestetik; eta Aretxabaletatik Maddi Iregik eta Maite Galdosek.

## KANTU PROPIOAK

Arrasateko finalerdien ostean emango dira ezagutzera hilaren 15ean Donostiara joango diren finalistak.

Juan Luis Aranburuk azaldu du lehiaketaren helburua ez dela parte-hartzaileen artean "lehia" piztea: "Gure nahia da kantuzaleek jendaurrean abesteko lehenengo probak egitea eta urrats bat gehiago egitea". Hala, abeslariak elkar ezagutu, taldeak eratu eta trapolin moduan hartzen dute txapelketa hori.

Bestalde, epaimahaiak irizpide asko ditu abeslarien lana neurterakoan, baina Aranburuk nabarmendu du gero eta gehiago direla kantu propioak idatzi eta plazaratzen dituztenak. Arrazoi horregatik, finalean, sortze lan onenari sari berezia emango diote.

Horrez gain, antolatzaileek aurkeztutako kantuekin disko bilduma egin zuten iaz eta dagoeneko kalean dago, *Kantagintza-ren olatu berria* izenpean.



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



1200 b/min  
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

465  
-105  
360 €

FAGOR (Renove plana)



1200 b/min  
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2712

420  
-105  
315 €

FAGOR (Renove plana)



1000 b/min  
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WM 10E 321

425  
-105  
320 €

SIEMENS (Renove plana)



1000 b/min  
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

335  
-105  
230 €

FAGOR (Renove plana)



1000 b/min  
5 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-110

280  
-105  
175 €

aspes (Renove plana)



1000 b/min  
5 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA TS-50100

295  
-105  
190 €

Balay (Renove plana)



185

x

60

x

60

A Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA DREAM G-185

490  
-85  
405 €

edesa (Renove plana)



144

x

55

x

60

A Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

295  
-85  
210 €

aspes (Renove plana)




A Sailkapen energetikoa

INDUKZIOA IF-3S/X

475 €

FAGOR (Renove plana)



A Sailkapen energetikoa

LABEA ETA BITROZERAMIKA

360  
-75  
285 €

aspes (Renove plana)

**RENOVE PLANA**  
GARBIGAILUAK  
ONTZI-GARBIGAILUAK  
HOZKAILUAK  
IZOKAILUAK

A -85 €  
A+ -105 €  
LABEAK -75 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren arabera energia aurreztea.

A+ >>> 70%  
A >>> 45%  
B >>> 25%

## Biltegioko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.





Fran Iturbe, Karlos Arantzegi, Ubeda anaia eta Joserra Senperena, iaz urtarrilean Leidorren eman zuten kontzertuan.

BIDE ERTZEAN

MUSIKA > BIDE ERTZEAN ZABALOTEGIN

# Bide Ertzean taldearen zuzeneko bihar Bergaran

Taldeak 10 urte bete ditu eta hori ospatzeko zuzeneko grabatu zuten Tolosan, etxean

Birako hirugarren hitzordua da Bergarakoa

A. BARRUSO/E. MENDIBIL > BERGARAN Hamaika urteko ibilbidearen ostean, musika talde erreferenteetako bat bilakatu da Bide Ertzean; ez dira ez bide ertzean geratu tolosarrak. Bai, dagoeneko hamaika urte igaro dira Ube-

da anaiek eta Karlos Arantzegi bateria-joleak bost kantuz osatutako lehen CD hura kaleratu zutenetik. Ordutik hona euren estiloari eutsi diote. Eta, kantuz kantu, euren proposamena findu, euren estiloa zehaztu eta euren ibilbidea sendotzea loritu dute. Zapatuan, kaleratutako azken lanarekin, *Leidor sessions* zuzenekoarekin etorriko dira Bergarara.

Zabalotegi aretoan izango da emanaldia, 22:30ean, eta sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.

Kontzertu horren eta taldearen ibilbidearen gainean berba egiteko Imanol Ubeda kantaria eta gitarra-jolea eta Fran Iturbe gitarra-jolea GOITBko estudioetan izan genituen eguaztenean.

## FRAN ITURBE, ETXEAN

Hain zuzen ere, zapatuko kontzertuko beste pizgarrietako bat Fran Iturbek *etxean* jotzea izango da. AEBetan bizi da azken urteotan, baina ia hasieratik jotzen du tolo-

sarrekin. Imanol Ubedak hitz onak besterik ez du Iturberendako: "Betitik miretsi izan dugu Franen lana, eta, halako baten, gurekin joko ote zuen galdetzeko balentria izan genuen. Musi-

## Leidorko gau magikotik Zabalotegira

Taldearen hamargarren urteurrenean, 1998an, zuzeneko diskoa prestatzen hasi ziren Bide Ertzeaneko kideak, eta, azkenik, grabazioa Tolosako Leidor aretoan egin zuten 2009ko urtarrilaren 16an. Aspaldiko doinuak berreskuratuz zituzten, eta, horrez gain, kantu berriak ere aurkeztu zituzten emanaldi hartan. Eszenografia zainduak berebiziko garrantzia izan zuen, eta Leidor bete zuten ikusleek bat egin zuten taldearekin. CD nahiz DVD euskarrietan erregistratu zuten gau magiko hura, *Leidor sessions* izenburupean: bi orduko emanaldi dotorea. Raul Lopez errealizadorearen aginduetara, taldeari buruzko dokumental modukoa ere osatu dute.

kalki nortasun berezia eman dio taldeari, nortasun berezia duela-ko gitarra jotzen. Sendotasunean eta errekurtsioetan asko irabazi dugu harekin. Joserrak eta Franek gurera ekarri dute kanpoan ikasitakoa, eta guretako aberasgarria da hori". Franen arabera, betiere berezia da herrian jotzea, nahiz eta aspalditik kanpoan bizi. Azken aldiz Bergaran Gozategi anaiekin jo nuen, San Martin jai batzuetan, oker ez baldin banabil".

## LAUKOTEA BERGARAN

Ubeda anaiekin eta Fran Iturberekin batera, Karlos Arantzegik bateria joko du zapatuko kontzertuan. Laukotea izango da, beraz, taula gainean, Joserra Senperena piano-jolea ez baita Zabalotegin izango. Birako hirugarren hitzordua izango da Bergarakoa, martitzeneko Bilboko Kafe Antzokiko kontzertuaren eta gaurko Andoainen iragarritakorekin ostean.

Pop estilo dotorea, ausarta, eta kantuen letra zainduak dira taldearen ikurretako bi. Imanol Ubedak zera dio: "Bilakaera handia egin dugu hasi ginenetik hona eta barruan daramaguna taula gainean islatzen saiatzen gara oraindik. Eta argi dago taldea bilgune bat dela guretako. Agenda arazoak direla-eta, lagunek beti egiten dute elkartzeko ahalegina, eta, zorionez, hor segitzen dugu".



MUSIKA > IÑIGO ZUBIZARRETA, SA TALDEAN

# "Urte askotako lanaren fruitua da SA taldean jotzea"

Iñigo Zubizarreta arrasatearra, Soziedad Alkoholika taldeko gitarra-jole berria

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE Soziedad Alkoholika taldeak azken lana aurkeztu berri du Txilen, Argentinan eta Kolonbian. Eta disko berri horren aurkezpenean, Iñigo Zubizarreta arrasatearra ibili da gitarra jotzen. Zubizarretak Madrilgo eta Zaragozako hiruzpalau taldetan dihardu gitarra jotzen, baina lehentasuna SAko proiektuak izango duela dio.

Gitarra-jole profesionala da Iñigo Zubizarreta, eta AEBetan egin zituen gitarra ikasketak.

Gaur egun, Julian Kanevsky Andres Calamaroren gitarra-jolearekin batera ikasten dabilela dio. "Ikuspuntu ezberdinak ezagutzea atsegin dut, eta, esaterako, Arrasate Musikaleko Jose Barrio jazz gitarra-jolearekin ere pare bat aldiz egon naiz. Betiere, aberasgarria izaten da estilo diferenteak lantzea". Gitarra irakasle ere bada gaur egun, Madrilen.

Gustura dago gitarra-jolea SA musika talde ezagunak *fitxatu* duelako. Lehenengo mailan jokatzea bezala dela dio. Aspaldik izan da, gainera, Zubizarreta SA taldearen jarraitzailea; orain, baina, taularen azpitik gora igo da. "Bitxia da, adibidez, orain 20 urte grabatutako diskoa berriro editatu eta laster kaleratuko dutela. Beraz, garai baten kontzertuetan entzundako abesti haiek jotzea tokatuko zait orain, eta ilusioa egiten dit. Hainbeste urtetan egindako lanaren kontentsazioa izan da SArekin fitxatzea". Uztail bukaeran jarri ziren SAkoak harekin harremanetan eta proba abuztuaren 31n egin zioten; "Dena ondo atera zen, eta aurrera". Irailean hasi zen entseguetan eta Hego Amerikan egin berri duten biran hartu du parte Zubizarretak.

Taldekideak ere gustura omen daude Zubizarretak dituen dohainekin. "Gogoa neukan SA bezalako talde baten aritzeko, eta, egia esan, primeran hartu naute. Oso giro ona dago taldean, eta eskertzekoa da. Profesionalki zein musikali aurrerapauso handia da", dio gitarra-jole arrasatearra.



Gorka Zubizarreta (bigarrena ezkerretik) SAko gitarra-jole berria da.

GOIENKARIA



## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainu-gela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lur-sailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Eguzkitsua, bi komun, hiru logela, jantzigela, sukaldea eta egongela handia. Guztiz berriztua. Aukera ezin-hobea. 658 72 09 87.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zabaletegin. 5. solairuan. 3 logela, sukaldea, jangela, komuna, balkoia eta trasteleku txiki bat. 20 m<sup>2</sup>ko sotoarekin. 607 41 14 44.

## 102. EROSI

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. 677 42 52 05.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelarekin. Oso ondo kokatuta dago eta berokuntza zentrala dauka. 659 44 86 79.

**Bergara.** 80 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai erdigunean. Justo Garate plaza. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. 650 79 28 63 edo 626 11 55 14.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 €. 645 71 98 84.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 09 33 34.

**Arrasate.** Bikotea urtarilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. 665 72 79 38 edo 635 70 96 43.

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko, konpartituz edo bakarrik. Edurne naiz eta 33 urte dauzkat. 653 38 56 12.

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 €. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Unibersitatetik oso gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 647 41 93 34.

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrentzat. 943 03 62 00 edo 696 03 80 07.

## 2/ GARAJEAK

## 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64.

## 3/ LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 677 05 39 06.

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

## BERGARA

**Arrandegian esperientziadun pretsona euskalduna behar da.**  
607 66 02 44

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERA  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarki bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 402. ESKAERA

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsalde lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79 edo 943 08 14 25.

**Arrasate.** Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. 659 55 27 16.

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketarako egiteko. Deitu 649 30 13 60 telefonora.

**Bergara-Arrasate.** Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47.

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lan egiteko. Orduka lan egiteko nuke. Deitu 671 33 75 54 telefonora.

## LORAMENDI KIROLAK

**Neska bat behar dugu arratsalde eta zapatuetan dendan lan egiteko. Euskara ezinbestekoa. Ekarki datuak San Andreseko dendara.**

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lan egiteko. 622 60 84 68.

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 650 17 74 87 telefono zenbakira.

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Aste bukaeretan, jaiegunetan eta gaueetan lan egiteko nuke. 630 88 54 46.

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18.

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaille lanetarako. Baita publizitate banatze ere. Autoa daukat. Deitu 691 79 53 34 telefonora.

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Orduetegi arazo barik. 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egiteko luke helburuak zein umeak zaintzen. Orduetegi malgua eta lanerako prestasuna. 669 02 91 30.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lan egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. Deitu 676 28 87 84 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lan egiteko ere. 639 88 64 13.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadeten zein haurren zainketa lan egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lan egiteko. Orduka edo gauez. 678 23 54 93.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zainzeko gertu. Etxean bertan ere bizi nintzateke. Bost urte daromatzen hemen eta legezko paperak dauzkat. 646 78 81 40.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lan egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informaek ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Garbiketa lan egiteko edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. Deitu 697 88 35 62 telefonora.

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59.

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lan egiteko eta pertsona edadetuak zainzeko. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Jantzi-dendan saltzaile lan egiteko nuke. Urte askotan denda ibilitakoa. 627 96 19 22.

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zainzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95.

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zainzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71.

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketarako, konponketarako eta abar. Merke. 686 99 23 94.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabai-mena daukat. Jhony. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketa lan egiteko. 610 95 79 79.

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. 639 86 96 76.

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu edozein motatako lanetarako. Egunez zein gauez. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. 618 14 71 34.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zainzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak... 636 05 36 18.

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. 679 17 11 35.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zainzeko zerbitzari lanetan aritzeko. 660 56 65 58.

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta dauzkan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketa lan egiteko gertu. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lan egiteko nituzke. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsalde eta baita aste bukaeretan ere. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Garbiketarako lan egiteko edo pertsona edadetuak zainduko nituzke. 649 83 08 82 edo 943 76 44 27.

## 403. BESTELAKOAK

**Zugatik egiten dut.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekeak ere bai. 605 74 52 19.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo teknologikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 669 63 52 25.

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lan egiteko eta abarretarako. Kristina. 617 36 67 96.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86.

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. Deitu 943 76 16 42 telefonora.

**Debagoiena.** EHUKO psikopedagogia ikaslea naiz eta "Ikertaketa Diseinua" ikasgaietako eskola partikularrak jasoko gura nituzke. 686 20 31 35.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza Industrialaren ikasten ari naiz eta DBH, LH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, fisika, kimika, teknologia eta abar. Deitu 659 72 73 59 zenbakira.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrak emateko gertu nago. 654 94 87 26.

**Komunikazioa.** Ingelesko nahiz euskarazko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut ('one to one'), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñati edo Arrasaten. Deitu 656 74 29 49 telefono zenbakira.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika eta abar). Deitu 678 27 27 57 telefonora.

**Diseinu Industrialeko** ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo nikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Toyota Previa** monobolumena salgai. 7 plaza. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Kanarioak** salgai. Interesatuek deitu 635 75 53 zenbakira eta galdutu Mikelenegatik.

**Lau untxi** salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera 665 74 91 27 telefono zenbakira.

## 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. Deitu 685 79 07 61 telefonora.

## 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegarietan. Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. Deitu 943 76 33 78 telefonora.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahai eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein bana-bana. Ooreretan. Informazioa eta argazkiak ikusi nahi badituzu: [mikel\\_muebles@live.com](mailto:mikel_muebles@live.com) edo. 943 00 23 11.

**Bideokamera.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztietan. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. 636 43 85 40.

**Dendarako altzariak** saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. 627 96 19 22.

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztietan. Roca modelo. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserriko egokia. Prezio negoziagarria. 943 79 34 74 edo 616 23 81 74.

**Hitzegia.** 'Lur hitzegi entziklopedikoa' salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. 625 83 84 13.

**Ibiltzeko zinta** elektrikoak salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41.

**Liburu zaharrak.** 1953. urteko liburuek saltzen ditut. Deitu 696 84 19 51 telefonora.

**Monozikloa** saltzen dut. Monty etxekoa. Pare bat aldi bakarririk erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77.

**Nokia 6124** telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 €. Deitu 617 13 17 51 telefonora.

**PlayStation 2** saltzen dut: 50 joko, memoria-txartela eta urrutiko kontrolarekin. 150 euro. 659 68 06 06.

**Sofa-oha.** Kanpoko neurriak 1,97x1,92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzeko. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. 616 09 46 34.

**Stokke kuma** eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urte arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

## 802. EROSI

**Debagoiena.** Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Zuriñe. 627 22 45 79.

**Zilarra** erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98.

## 806. GALDU

**Eraztuna Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidean artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 943 78 06 34 edo 656 74 53 90.

**Jertsea galdu.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta Erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 Pommese etxekoa. 649 05 39 68.

**Neskatilaren jertsea** galdu nuen urriaren 10ean Arrasaten, Erdiko kale eta San Andres artean. Berde iluna da eta IKKS etxekoa. Mariasun. 676 03 22 71.

## 807. AURKITU

**Bergara.** Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. 943 76 26 57.


## 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali SMS bat hona. Nire aldetik, diskretzio osoa. 665 75 58 74.



# Debagoieneko GREMIOAK



## AROTZEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak

- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa  
Salmenta eta konponketa

- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

### OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 007 369

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

### TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
- Galdarak aldatzea
- Obra integralak
- Zaharberitzeak

Bolibar doktorea 5, behea C

Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

F: 943 77 17 13

### URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

### VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

### ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

### YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehi eta ate isolatzaileak

- PVC leihoak

- Aluminio termikoko lehiok

- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

### IZBAR

BERGARA

- Lehi eta ate isolatzaileak

- Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak

- Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak

- Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.

San Lorentzo industrialdea,

Urarte kalea 20

Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean

- Pareztatzeak

- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Jon Arteaga &gt; Saskibaloia jokalaria eta entrenatzailea

# "Zaleen laguntza faltan igartzen dut etxean jokatzeko ditugun partiduetan"

Bergara KEko saskibaloia sailean esan digutenez, mutil fina da Jon Arteaga. Senior mailako

taldean dihardu eta, horrez gain, infantil mailako nesken taldea zuzentzen du. Entrenamen-

du saioak eta partiduak kontuan izanda, asteko ordu asko eskaintzen dizkio saskibaloitari. Musi-

kazalea ere bada, eta orain dela pare bat urte, DJ aritzeko ekipoa eskuratu zuen.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Jon Arteaga bergarar gaztearekin egin dugu hitzordua. Miguel Altuna ikastetxean dihardu eta eguerdiko atsedena aprobetxatu dugu solasaldia izateko. Eurria barra-barra ari du eta argazkiak ateratzea ez da erraza gertatzen. Aurrez aurre ez da telefonoz antzemanda-ko bezain lotsatia. Bat-batean erantzuten du, segurtasunez. Kantxan taldea zuzentzeko erantzukizuna ere bada; senior mailakoan antolatzaile postuan jokatzeko du eta, horrez gain, infantil mailako nesken zuzentzen ditu.

## Noiz hasi zinen saskibaloian jokatzeko?

Txikitan. Ikastolatik irten dakoan nahiago izaten nuen saskibaloian jokatu futbolekin baino, nahiz eta koadrilako lagun gehienak futbolekoak izan. Hala ere, futbolekin ere ibili nintzen, infantil mailara arte. Atezain jokatzeko nuen. Baina aspertu egin nintzen futbolekin eta saskibaloira itzuli nintzen, kadete mailan. Orain, senior mailako taldean nabil. Antolatzaile postuan jokatzeko dut.

## Eta entrenatzailea ere bazara, azpiko kategorietan?


Bai, infantil mailako nesken taldea zuzentzen dut. Joan den urteko denboraldian bi hilabetez jardun nuen Aimar Julianen laguntzaile, probatzeko gehienbat, eta gustura ibili nintzen. Aurten taldea entrenatzea proposatu zidaten eta pozik nabil.

## Zelan ikusten duzu Bergarako saskibaloia egoera?

Ondo. Zaletasuna badago eta horren lekuko dugu Bergara KEren barruan dagoen saskibaloia talde kopurua: hiru talde infantil mailan; bi kadete mailakoak; bakararra gazte mailan; eta bi senior mailan. Jende asko gabilta saskibaloian jokatzeko eta alde horretatik saskibaloia saila indartsu dago. Pena bakarria zera da: oso jende gutxi etortzen da partiduetara. Zaleen laguntza faltan igartzen dugu etxeko partiduetan. Alde horretatik, giro nahiko hotza egoten da kiroldegiko partiduetan. Baina ulergarria izan daiteke; neguan haraino joatea ez zaio jendeari erraza gertatzen, are gehiago kiroldegian egiten duen hotza kontuan izanda.

## Zer moduz zabiltzate aurten denboraldian?

Bost partidu jokatu ditugu eta bakarria irabazi, oraingoz.



GOIENKARIA

### PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Proiektu Mekanikoen Garapeneko modulua egiten nabil Miguel Altuna institutuan. **Zaletasunak:** Saskibaloia, ordenagailua eta musika. **Gomendatzeko moduko filma:** *El secreto de sus ojos*. **Musika talde bat:** Rage Against

The Machine. **Liburu bat:** *El símbolo perdido* (Dan Brown) irakurtzen nabil orain. **Saskibaloia talde bat:** Baskonia. **Jokalaria bat:** Larry Bird. **Bidaiatzeko leku bat:** Asia aldera joango nintzateke gustura; Kanbodiara, adibidez. **Bergarako txoko bat:** Zabalotegi.

Hala ere, azken partiduan, Hernanin, nahiko joko ona egin genuen; galdu arren, egindako partiduekin pozik atera ginen. Oraingo domekan Astigarraga liderraren bisita izango dugu Labegarietan eta ez da partidu erraza izango...

## Ezberdintasunik antzematen duzu mutilen eta nesken taldeen artean?

Infantil mailako mutilak ere entrenatu izan ditut eta mutilek kasu handiagoa egiten dutela esango nuke. Nesken lehentasuna ez da kirola izaten, ondo pasatzera etortzen dira. Mutilek, beharbada, konpetitiboagoak dira. Gauzak ikasi eta partiduak irabaztea gehiago baloratzen dute neskek baino.

## Eta zer moduzko taldea duzu aurten?

Talde polita da, denboraldi ona egiteko modukoa. Dena dela, saskibaloian jokatzeko ikastea eta ondo pasatzea dira helburuak. Eta hortik aurrera partiduak irabazten baditugu, askoz hobeto.

## Zein dohain dira beharrezkoak entrenatzaile izateko?

Lehenik eta behin, formazioa izatea, saskibaloia ezagutzea eta gustuko izatea. Hortik aurrera, gogoia eta pazientzia. Nahiz eta gauzak ondo ez atera, pazientzia izan behar da jokalariekin. Nola-ko entrenatzailea naizen? Beharbada, ez dut pazientzia handirik, baina ondo konpontzen naiz jokalariekin. Hori garrantzitsua da taldeko giroa ona izan dadin.

## Saskibaloiaz aparte, musika-zalea ere bazarela esan digute. DJ aritu izan zara, ala?

Bai; duela bi urte erosi nuen ekipoa, mahaia eta bi plater, musika *pintxatzeko*. Probatzen joan naiz eta gustura ibiltzen naiz. Gaztetxean eta Ziripot tabernan egin dut saioen bat edo beste; house, minimal..., musika hori atsegin dut gehien. Ezizen artistikoa? Buda. Lagunek aspaldi jarri zidaten, ile motza dudalako eta beltzarana naizelako, ziurrenik.

## Etorkizunari begira, zer?

Ba, ikusi behar... Aurten amaituko ditut ikasketak Miguel Altunari, baina, agian, beste zerbaitekin ikasiko dut ondoren. Musikan zerbaitekin ere nahiko nuke... Eta atzerrira joan, urtebete-edo etxetik kanpo ibiltzea ere ondo legoke.



# Herri txikien berdintasun plana 'Magazinea'-n

'Alkateak zuzenean' atalera, berriz, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga etorriko da

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE  
Debagoieneko herri txikien berdintasun planaz jardungo dute astelehenean *Goiena magazinea* programan. Hain zuzen ere, Leintz Gatzagak, Elgetak eta Antzuolak elkarrekin kudeatuko duten berdintasun planaz. Elhuyar ari da plan hori egiten eta

Elhuyarko eta hiru herri txiki horiek osatzen duten Bideberri Mankomunitateko ordezkari bana etorriko dira GOITBko estudioa astelehenean gai horretaz berba egitera.

Bestalde, eguaztenean, Debagoienari buruzko galdera orokorrak egingo dituzten lehiaketa estreinatuko dute eta eguenean, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkate joango da kazetarien eta herritarren galderak erantzutera.

**GOITB, 'Goiena magazinea'**  
> Aste barruan, 19:45



Gatzaga da Bideberri Mankomunitatea osatzen duten herrietako bat. GOIENKARIA

## Zarzuclara joateko sarrerak

**O.E.** > ARRASATE  
*La corte del Faraón* zarzuclarako sarrerak zozketatuko dituzte datorren astean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. Hain zuzen ere, azaroaren 21ean eta 22an egingo duten emanaldietarako sarrerak zozketatuko dituzte. Guztira lau emango dituzte; irabazle bakoitzak bi sarrera eskuratuko ditu. Bestalde, Arrasateko 3 aretoan hilaren 13an eta 14an egingo dituzten kontzertuetarako sarrerak ere izango dituzte banatzeko.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**  
> Aste barruan, 10:00



GOIENKARIA

## Behobia-Donostia lasterketaren laburpen zabala

Behobia-Donostia herri lasterketaren laburpen zabala eskainiko dute astelehenean Xabi Urtzelaik aurkezten duen *Harmailatik* saioan. Domekan Donostiara joango da kazetariz, argazkilariz eta kameralariz osatutako Goienako lantalde bat eta talde horrek jasotako irudi eta adierazpenak emango dituzte astelehenean. Beste behin, arreta berezia jarriko dute lasterketa egingo duten debagoiendarrengan.

**GOITB, 'Gipuzkoa kultura'**  
> Astelehena, 22:15

### telebegi

**Edorta Arana**  
'edorta.arana@ehu.es'

### Galderak

**T**elebistaren audientzia neurtzeko Hego Euskal Herriko ia 400 etxetan audimetroak jarrita dauzkate. Zein kanal ikusten dugun, noiz ixotu eta noiz itxungi egiten dugun telebista omen dakite horrela. Hurrengo eguneko lehen orduan, arrakastaren ala porrotaren datuak dituzte programatzaileek. Gosaririk goxoa garratzeko moduko datuak izaten dira batzuetan. Esaterako, ETBn pozik ez dardela garbi dago. Kanal bietan behera egin du audientzia. Baina hori ez da beldur gehien ematen didana. Audientzia datuak aldakorrak dira eta egun batean behera egiten dute eta hurrengokoa, agian, baita ere. Gehiago kezkatzen nau ETBk zeukan lekua (handia edo txikia) galtzea eta jendeak beste kanalera jotzea informazio bila, umeentzako entretenimendua lortu guran edo kirolak ikusteko. Horrelako zerbait gertatzen ote den jakiteko, audimetroak baino interesgarriagoak dira ikerketa kualitatiboak; ikusle-nahiak eta espektatibak zeintzuk diren argitzen dituztenak.

### arrasate irratia

FM 107.7

#### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

#### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

#### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa) Astelehenetan Kirolak Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin) Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin Udal Gazte Bulegoa Sexologia Zerbitzua Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak... Astearen errepaso (Goienkariarekin) Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak Zozketak (egubakoitzean) Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 ([irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

### astea GOITBn

| Egubakoitza, 6            | Zapatua, 7                | Domeka, 8                 | Astelehena, 9             | Martitzena, 10            | Eguaztena, 11             | Eguena, 12                |
|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|
| 13:15 Marrazki bizidunak  | 08:00 Marrazki bizidunak  | 08:00 Barrebusa           | 13:15 Marrazki bizidunak  | 13:15 Marrazki bizidunak  | 13:15 Marrazki bizidunak  | 13:15 Marrazki bizidunak  |
| 13:45 Kantari.            |                           | 09:00 Marrazki bizidunak  | 13:45 Kantari.            | 13:45 Kantari.            | 13:45 Kantari.            | 13:45 Kantari.            |
| 14:15 On ein.             | 10:30 Barrebusa.          |                           | 14:15 Eltze beroa.        | 14:15 On Ein.             | 14:15 Udazken loreak.     | 14:15 Eltze beroa.        |
| 14:45 Berriak.            | 11:30 Kantari.            | 11:30 28 klip.            | 14:45 Berriak.            | 14:45 Berriak.            | 14:45 Berriak.            | 14:45 Berriak.            |
| 15:15 Ur eta Lur.         | 14:00 On ein.             | 12:00 Itsasoari begira.   | 15:15 Sakonduz.           | 15:10 Harmailatik.        | 15:10 Ilunpean.           | 15:15 Gipuzkoa kultura.   |
| 15:45 Itsasoari begira.   | 14:30 Udazken loreak.     | 12:30 Wazemank.           | 15:45 Ikusmira.           | 15:50 Ikusten.            | 15:50 Sakonduz.           | 15:45 Kalekanto.          |
| 16:15 Ikusten.            | 15:00 Barrebusa.          | 13:00 Erreportajea.       | 16:15 28 Klip.            | 16:20 Itsasoari begira.   | 16:20 28 Klip.            | 16:15 Ikusmira.           |
| 16:45 Berriak.            | 16:00 Marrazki bizidunak. | 13:45 Ur eta Lur.         | 16:45 Berriak.            | 16:45 Berriak.            | 16:45 Berriak.            | 16:45 Berriak.            |
| 17:15 Marrazki bizidunak. | 18:30 Gipuzkoa Kultura.   | 14:15 Puntuz Puntu.       | 17:15 Marrazki bizidunak. | 17:10 Marrazki bizidunak. | 17:15 Marrazki bizidunak. | 17:15 Marrazki bizidunak. |
| 18:00 Ilunpean.           | 19:00 Kale kanto.         | 14:45 Kale kanto.         | 17:45 Kalekanto.          | 17:35 Wazemank.           | 17:35 Harmailatik.        | 18:00 Sakonduz.           |
| 18:45 Berriak.            | 19:30 Itsasoari begira.   | 15:15 Gipuzkoa Kultura.   | 18:15 Ilunpean.           | 18:15 Gipuzkoakultura.    | 18:15 Ur eta lur.         | 18:45 Berriak.            |
| 19:15 Marrazki bizidunak. | 20:30 28 Klip.            | 15:45 Marrazki bizidunak. | 18:45 Berriak.            | 18:45 Berriak.            | 18:45 Berriak.            | 19:15 Marrazki bizidunak. |
| 19:45 Goiena Magazinea.   | 21:00 Ilunpean.           | 18:15 Barrebusa.          | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:45 Goiena Magazinea.   |
| 20:45 Kantari.            | 21:45 On ein.             | 19:15 Kantari.            | 19:45 Goiena Magazinea.   | 19:45 Goiena Magazinea.   | 19:45 Goiena Magazinea.   | 20:45 Kantari.            |
| 21:15 Goiena Magazinea.   | 22:15 Ikusten.            | 21:15 Wazemank.           | 20:45 Kantari.            | 20:45 Kantari.            | 20:45 Kantari.            | 21:15 Goiena Magazinea.   |
| 22:15 Sakonduz.           | 22:45 Ikusmira.           | 22:00 Erreportajea.       | 21:15 Goiena Magazinea.   | 21:15 Goiena Magazinea.   | 21:15 Goiena Magazinea.   | 22:15 Puntuz Puntu.       |
| 22:45 Udazken loreak.     | 23:15 Wazemank.           | 22:45 GipuzkoaKultura.    | 22:15 Harmailatik.        | 22:15 Ilunpean.           | 22:15 GipuzkoaKultura.    | 22:45 Erreportajea.       |
| 23:15 Kale kanto.         | 00:30 28 klip.            | 23:15 Ilunpean.           | 23:00 Gipuzkoakultura.    | 23:00 Wazemank.           | 23:00 Kalekanto.          | 23:20 Itsasoari begira    |
| 23:45 Magazinea           | 01:00 Emisio amaiera.     | 00:00 Itsasora begira.    | 23:30 Goiena Magazinea.   | 23:30 Goiena Magazinea.   | 23:45 Goiena Magazinea.   | 23:45 Goiena Magazinea.   |
| 00:45 Emisio amaiera.     |                           | 00:30 Emisio amaiera.     | 00:30 Emisio amaiera.     | 00:30 Emisio amaiera.     | 00:45 Emisio amaiera.     | 00:45 Emisio amaiera.     |



## herritarrak galdezka

BERGARAKO SAN MIGEL-PE  
ELKARTE PAREKO ESPALOIA

**Bergarako Zubiaurre auzoko bizilagun batek idatzi digu zera esanez: "Udal langileek Zubiaurre auzoko San Migel-Pe elkartearen parean zeuden bi zulo tapatu dituzte orain dela gutxi, baina San Migel-Pe elkartetik beste aldera gurutzatzeko zebrabidean altuera handiko espaloia dago". Lan horien harira auzotar horrek egin digun galdera honako hau da: "Behin zuloak tapatu dituztenean, zergatik ez dute udal langileek aprobetxatu eta espaloia altu dagoen zebrabidearen alde hori kendu, herriko beste toki batzuetan egin duten moduan? Badu Udalak, aurrerantzean, Zubiaurren horrelako konponketarik egiteko asmorik?"**



Argazkian, Arrasateko enplegu bulegoa.

GOIENKARIA

Udaleko Hirigintza Sailera jo dugu herritar horren zalantza argitzeko asmoz, eta zera esan digute: "Udal brigadako langileek momentuko konponketa txiki bat egin dute herriko gunehorretan: bideko zuloak estali egin dituzte, hain zuzen ere. Oraingoz, ez dago aurreikusita espaloian moldaketarik egitea, baina horrek ez du esan nahi herritar horren eskaria kontuan hartuko ez dugunik, eta baliteke aurrerago lan horiek egitea".

## LANGABEZIA

**Langabezian dagoen irakurle batek honako galdera egin digu: "INEMeko bulegoan inskribatuta nago eta lan eskaintza jaso dut erakunde horren bitartez. Behartuta nago eskaintza hori onartzera?"**

INEMen azaldu digute kontuan hartu behar dela pertsona hori INEMen kargura langabezia-saria jasotzen ari den ala ez. Langabezia-saririk jasotzen ez badu ez dago derrigortuta lan hori onartzera, baina, behin

eta berriz gauza bera eginez gero, baja eman diezaioke INEMek. Langabezia-saria jasotzen badu, aldiz, sari horren ordainketa eten ahal izango du INEMek eskaintza jakin batzuk baztertu baditu; besteak beste, gizarte-lankidetzako lanak edo enplegu-programak, enplegua sustatzeko programak...

## Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## IRUÑEARA AUTOBUSEAN

**Autobusean izandako gorabehera baten harira honako galdera egin digu irakurle batek: "Bergatik Antzuolarako autobusa hartu nuen eta gidariak esan zidan ezin nuela Lurraldebus txartelarekin ordaindu, dirutan ordaindu behar nuela. Zergatik, Lurraldebus autobusa izanik ez dute Lurraldebus txartela erabiltzen uzten? Gainera, kontuan hartu behar da Gipuzkoako bi herriren arteko bidaia dela".**

Lurraldebusen jakinarazi digute autobusak Lurraldebusen irudia edo logoa izan arren eta txartelendako makina badauka ere, linea hori ez dela Lurraldebusen kompetentzia eta horregatik ez dutela onartzen Lurraldebus txartela. Ez dago autobus bat zehazki Iruñerako dena, horregatik Lurraldebus logoa du autobus horrek, beste ibilbide batzuetan ere erabiltzen delako. Dena dela, erabiltzaileak mezu bat bidaltzea da onena, [info@lurraldebus.net](mailto:info@lurraldebus.net) helbidera, eta handik bideratuko dute Diputazioa.


## eguraldia

## DEBAGOIENEAN



## Zapatua, 7

Goizean euria egin ostean, eta eguerdian ostarte batzuk zabalduko diren arren, euritan jarraituko dugu; euri gehien, gaez.



## Domeka, 8

Goiza euritsu esnatuko da eta eguna aurrera joan ahala tenperaturak apur bat gora egin arren, egun bustia eta hotza izango da.

## EUSKAL HERRIAN

Zapatua eta domeka euritsuak izango dira oso. Goizetik gauera, oro har, euri-laino ilunak agertuko dira zeruan. Zapatuan tenperaturak mantendu arren, domekan jaitsi egingo dira.



## TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

| MINIMOA         | 9°C  | Max.            | Min. | Euria            |   |
|-----------------|------|-----------------|------|------------------|---|
| Eguaztena, 28   |      | °C              | °C   | l/m <sup>2</sup> |   |
| Eguaztena, 28   | 25   | 9               | -    | -                |   |
| Eguena, 29      | 25   | 10              | -    | -                |   |
| MAXIMOA         | 25°C | Egubakoitza, 30 | 25   | 12               | - |
| Egubakoitza, 30 | 25   | 11              | -    | -                |   |
| Zapatua, 31     | 25   | 11              | -    | -                |   |
| Domeka, 1       | 24   | 10              | 22,4 | -                |   |
| Astelehena, 2   | 15   | 10              | 0,6  | -                |   |
| Martitzena, 3   | 20   | 10              | 9,1  | -                |   |

ASTEKO  
EURIA  
(l/m<sup>2</sup>)

32,1 L

## bono fotoa



**AHT gure bailaratik pasatzen da. Zein herritan egiten dihardute argazkiko lanak?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko Haritz Iñurritegi.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena: Martzial Agirre



Garmendia Ardoek emandako

**Ardo botila packa\***

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

## ARRASATE

|                 |            |                      |              |
|-----------------|------------|----------------------|--------------|
| Zapatua, 7      | Fernandez  | Maisu Aranbarri, 1   | 943 79 22 26 |
| Domeka, 8       | Irizar     | Erguin, 11           | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 9   | Amezua     | Santa Marina, 32     | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 10  | Español    | Araba Etorbidea, 14  | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 11   | Ruiz       | Nafarroa Eorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 12      | Etxeberria | Zarugalde, 42        | 943 79 16 30 |
| Egubakoitza, 13 | Azkoaga    | Ferrerias, 1         | 943 79 15 15 |

## BERGARA

|                 |               |                |              |
|-----------------|---------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 7      | Zabala        | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 8       | Zabala        | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 9   | Guallar       | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 10  | Estella       | Matxiategi, 5  | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 11   | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 12      | Camacho       | Oxirondo 4     | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 13 | Zabala        | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

## OÑATI

|                 |             |                 |              |
|-----------------|-------------|-----------------|--------------|
| Zapatua, 7      | Anduaga     | San Lorenzo, 3  | 943 78 21 16 |
| Domeka, 8       | Anduaga     | San Lorenzo, 3  | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 9   | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 10  | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 11   | Garate      | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 12      | Garate      | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 13 | Juldain     | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |

## ARETXABALETA

|                 |        |                        |              |
|-----------------|--------|------------------------|--------------|
| Zapatua, 7      | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Domeka, 8       | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 9   | Anitua | Belorrieta, 1)         | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 10  | Anitua | Belorrieta, 1)         | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 11   | Anitua | Belorrieta, 1)         | 943 08 11 43 |
| Eguena, 12      | Anitua | Belorrieta, 1)         | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 13 | Anitua | Belorrieta, 1)         | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.





Quintana de la Serenako **Diego Trejo** eta **Maria Horri-illo** 1959ko urriaren 31n ezkondu ziren. Zapatuan, azaroaren 7an, ospatuko dituzte urrezko ezteiak Arrasateko Bitxori erregian familiarekin. Seme-alaben, biloben eta familia guztia- ren partetik, zorionak, bikote!



**Tatiana** eta **Oscar** arrasatearrak, bihar, azaroak 7, Eskoriatzan ezkonduko dira eta Gure Ametsa jatetxean egingo dute ospakizuna. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagunuen partetik. Sekulako parranda egiteko prest gaude!




**Alberto** eta **Erika** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Mondragoeko San Isidro elizan. Ondoren, Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute bazkaria. Zorionak, bikote, egun zoragarria izan eta ondo ibili Argentinan, familiakoen eta lagunuen partetik.

ESKER ONA

## Eugenio Txintxurreta Jauregi

Oñatin hil zen 2009ko azaroaren 4an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko senditarkeoen izenean.



Oñatin, 2009ko azaroaren 6an.

URTEURRENA

## M. Jesus Egiguren Alberdi

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### hildakoak

- **Jorge Askasibar Iturrikastillo.** Bergaran, urriaren 23an. 64 urte.
- **Jose Luis Txintxurreta Etxeberria.** Aretxabaletan, urriaren 30ean. 64 urte.
- **Concepcion Costa Diaz.** Arrasaten, urriaren 30ean 62 urte.
- **Leonardo Garcia Martin.** Oñatin, azaroaren 2an. 83 urte.
- **Andres Gonzalez Lapeña.** Bergaran, azaroren 3an. 81 urte.
- **Patxi Zubizarreta Zabala.** Aretxabaletan, azaroaren 4an. 98 urte.
- **Ruperto Garcia Gomez.** Bergaran, azaroaren 4an. 74 urte.
- **Eugenio Txintxurreta Jauregi.** Oñatin, azaroaren 4an. 91 urte.

ESKER ONA

## Andres Gonzalez Lapeña

Gasteizen hil zen 2009ko azaroaren 5an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko azaroaren 6an.

URTEURRENA

## Juanita Maiztegi Elkoroberezibar

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 10ean, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Ramon Osinaga Leibar

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 8an, 11:30ean, Aretxabaletako Ama Jasokundearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**





# Azaroak 6-13

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



### OÑATI

#### > Nick Oliveri gaur gauean Oñatin, Gaztemaniak!-eko zirkuituaren barruan

Kyuss eta Queen of the Stone Age taldeetan ibilitako Nick Oliveri bakarrik eta formatu akustikoan dator Oñatira, *Death acoustic* diskoa aurkeztera. Dirty Akustik Brothersek punk-rocka egiten dute. Gaztelekuan, 22:30ean. 5 euro.

## Musika



### BERGARA

#### > Bide Ertzean taldearen emanaldia zapatu gauean Zabalotegin

Biraren hirugarren kontzertua emango dute tolosarrek zapatuan Bergaran. Ubeda anaiekin batera, Karlos Aranzegi bateria jolea eta Fran Iturbe gitarra jole bergararra izango dira Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. 5 euro.

## Musika



### ARRASATE

#### > Gipuzkoako Kantu Txapelketako hirugarren kanporaketa bihar Amaian

Gipuzkoako Kantu Txapelketaren hirugarren kanporaketa jokatu da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etan. Debagoieneko hainbat partaide izango dira; tartean, Bergarako Musika Eskolako Amy Kerkhof (goian).

## Ikastaroak

### BERGARA

#### > Argazkilaritza ikastaroa Photoshop bitartez

Azaroaren 16tik 26ra (sakontze maila).

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 telefonon.

### ARETXABALETA

#### > Dantza afrokaribearrak Jaiki elkarrearen eskutik

Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Abendura arte. Plaza mugatuak.

Izenematea 653 70 50 68 telefonon edo [jaikielkartea@yahoo.es](mailto:jaikielkartea@yahoo.es) helbidean.

### ARETXABALETA

#### > Hainbat ikastaro Arkupen

Pintura, bainika, eskulan eta zeramika ikastaroak izango dira azaroan.

Argibideak Arkupen: 943 08 10 01.

### ARRASATE

#### > Mendekotasuna duten adinekoen zaintza ikastaroa

Azaroak 16, 18, 23 eta 25, 15:30etik 18:30era.

Argibideak: 943 76 93 94 telefonon (Miren) edo [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com) helbidean.

### ARRASATE

#### > Arrisku handiko elikagaien manipulazioa

Azaroaren 9an eta 11n, 16:00etatik 19:00etara. Doaneko ikastaroa.

Argibideak 943 76 93 94 telefonon edo [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com) helbidean.

## Musika

### ARRASATE

#### > Ganbara Gazte abesbatzaren emanaldia gaur

Goikobaluren urteurren ospakizunen barruan.

Gaur, egubakoitza, San Juan Bataiatzaile elizan, 20:00etan.

### ARRASATE

#### > Ez! taldearen disko aurkezpena gaur arratsaldean

Oñatikoa da Ez! taldea.

Gaur, egubakoitza, Etxoste tabernan, 19:30ean.

## Erakusketak

### OÑATI

#### > Gorka Salmeronen 'Erretratoak' ikusteko azken aukera gaur

Formatu handiko 25 argazki ikusgai jarri ditu argazkilari legazpiarrak.

Azaroaren 6ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

### BERGARA

#### > Marisol Yabenen argazkiak kultura etxean

*Euskal arrazako animaliak* erakusketa ikusgai jarri du

Marisol Yaben Villaverde argazkilaria.

Kultura etxean, azaroaren 10era arte. Astelehenerdik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan goizez, 12:00etatik 14:00etara.

### ARETXABALETA

#### > Xabier Iturraranen margo erakusketa

Hainbat koadro ikusgai jarri ditu Xabier Iturraranek Arkupeko aretoan.

Azaroaren 30era arte egongo da erakusketa zabalik. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, goizez bakarrik.

### ARRASATE

#### > Naturaren argazkilaria

Naturan egindako argazkien bilduma ikusgarria.

Kulturaten, gaurtik abenduaren 6ra.

### BERGARA

#### > Joxan Izaren erakusketa, domekara arte zabalik

*Panoptik.com* izenburupean, panpina elektrikoak, formatu panoramikoko koadroak eta koadro txikiagoak ikusgai.

Domekara arte Aroztegi aretoan.

Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

## Antzerkia

### BERGARA

#### > 'Karakolaren gaua: eskale baten istorioa' gaur

Zurrunka taldearekin.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean, 5 euro.

### ESKORIATZA

#### > Ipuin kontaketa Ernesto Agirreren eskutik gaur gauean

Oihulari Klown taldeak aurkeztuta, Ernesto Agirreren *Cuentos en fa sostenido*.

Gaur, egubakoitza, Inkernun, 22:30ean. Aitzorrotz kultura taldeak antolatuta.

### ARRASATE

#### > Iñigoren bakarrizketa lamain

Bakarrizketa jantzia eta irrazionala.

Gaur, gauerdian, lamai kafetegian.

### OÑATI

#### > 'Kika Supersorgina' zapatuan

Ambigu taldearen eskutik.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarrerak, 3 eurotan.

### ARETXABALETA

#### > 'Aurorita beti polita' haurrendako ikuskizuna

Lur Korta aktorearekin.

Bihar, zapatua, liburutegian, 11:00etan.

## PROPOSAMENA



### ARRASATE

#### > Bost musika talde zapatuan Iturripen

Ikasle Abertzaleek antolatutako Ikasle Eguneko ekitaldien barruan, kontzertua izango da bihar, zapatua, Iturripen. Karpa handia jarriko dute bertan eta ondoko taldeak igaroko dira handik: Des-Kontrol, Zea Mays, KOP, Esne Beltza (goiko argazkian) eta Beste Bat erromeria.

Sarrerak Bergaran Arranon eta Pol-Polen; Arrasaten Iratin, Etxosten, Iluntzen eta Txitxinpen; Aretxabaletan Urbaltzen, Orlyn eta Azkenan; Eskoriatzan Inkernun, Aldatzen eta Uniko tabernan; Oñatin Bogan eta Herrikoan; Antzuolan Moxen; eta Elgetan Haizean.

Bihar, zapatua, Iturripen, 21:00etan.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM

**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta:** 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

### ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ilek puntan

jarriko dizkizun esperientzia ahaztezina

Azaroak 7: 14:00 eta 16:00

Azaroak 8: 13:00 eta 16:00

**1, 2, 3 ... Matematikarekin:**

Matematikarekin ere jolas

egin daiteke!

Azaroak 7: 13:15

Azaroak 8: 14:00

### HITZALDIA:

**Pistaz kanpoko Snowboard-a Las Leñasen (Argentina). Hezkuntza, Kirola eta Zientzia.**

Gurutz Pablo eta Javier Martínez

Muñoz anaien eskutik.

Azaroak 10, 19:00tan.

Newton auditorioan.

Sarrera doan, aforoa bete arte



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78

[www.mirammon.org](http://www.mirammon.org)

**Ordutegia**

Astelehenerdik itxita.

Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00

Asteburu eta jaiegunetan: 11:00-19:00



kutxa



[www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net)



ARRASATE

> **Sendabelarren ikastaroa Ekin elkartearen eskutik**

Azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetzat bultzatzeko antolatuta. Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

ARRASATE

> **Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era. Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

ESKORIATZA

> **Gaztetxoei zuzendutako sexologia ikastaroa zapatuan**

12-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta, Mirari Arando sexologa izango da tailerra bideratuko duena. Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan. Txatxilpurdiko gazte sailak antolatuta.

ESKORIATZA

> **Larrugintza ikastaroa azaroko egunetan**

Ikastaroa 18:00etan izango da eta Ainara Kortabarria izango da ikastaroa bideratuko duena. Lau saio izango dira, azkena azaroaren 26an, eta hauetan larrua landu eta eskulan ezberdinak egiten ikasteko aukera izango da; karteratxoak, lepokoak, giltza takoak... bideratuko duena. Argibideak eta izenematea Txatxilpurdin, 943 79 54 46 telefono zenbakian.

ARRASATE

> **Komiki tailerra hurrengo asteburuan Kulturaten**

Azaroaren 13an eta 14an, Anartza Aranguena irakaslearekin. Bereziki 14 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago, marrazteko zaletasuna dutenei.

Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta. Izenematea azaroaren 10era arte zabalik. Argibideak 943 25 20 28 telefonon.

## Hitzaldiak

BERGARA

> **'Zer egin nire akatsek...' hitzaldia, Jardunen eskutik**

Batik bat, euskaraz hitz egitean egiten diren akatsekiko beldurra, autozuzenketa... landuko ditu Jürgen Wolff hizlariak, Tandem fundazioko kideak.

Martitzenean, azaroaren 10ean, kultura etxean, 19:00etan. Jardun euskara elkarteak antolatuta.

## Lehiaketak

DEBA

> **Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibide gehiago 943 19 28 40 telefonon jaso ditzakete interesatuek.



## Zorion perfektua \*\*

Zuzendaria: Jabi Elortegi.  
Aktoreak: Anne Igartiburu, Aia Kruse, Alberto Berzal. Euskal Herria, 2009. 89 min.

Azken Zinemaldian estreinatu zen *Zorion perfektua*, euskaraz filmatutako azken luzemetraia. Dena dela, Zinemaldian aurkeztu izana baino ospe handiagoa eman dio ziurrenik Anne Igartiburu *tebisiboa* filmeko protagonista nagusia izateak. Horrek, agian, hainbat ate zabaltzeko, euskalduna ez den audientziarengana heltzeko balio izango die ekoizleei. Beste kontu bat da Igartibururen interpretazio lanak filmari mesederik egiten dion. Filma ikusita, gutxienik sinesgarritasuna falta zaio haren pertsonaiari.

Anjel Lertxundiren izenburu bereko eleberrian oinarrituta, 1987. urtetik gaur egun arteko joan-etorrian kokatzen da istorioa. Ainhua (Anne Igartiburu) ETaren atentatu baten lekuko izan zen neskatilatxo (ederto Aia Kruse gaztetxo) zenean, eta gaur egun piano-jole ospetsua dela ikusten dugu. Bartzelonan bizi dela, istripu bat izango du, filmaren hasieran. Istripu horren zergatia filmaren amaieran emango digu Jabi Elortegi zuzendariak.

Bien bitartean, telesail kutsua duen film bat ikusiko dugu, ez bakarrik telebistan hamaika aldiz antzeko lanetan ikusi ditugun aktoreak agertzen direlako, baizik eta zuzendariaren kontatzeko edo narratzeko moduagatik. *Goenkale*-n edo *Balbemendi*-n ibilitakoa da Elortegi eta beharbada gehiegi nabari zaio. Txarrena zera da: istorioa ez da batere sinesgarria gertatzen, eta horren adibide dugu Ainhoaren eta Imanolen arteko amodiozko harremana, Bartzelonan zein Zarautzen ere ia ezerezetik eraikitzen dena. Amaiera erabat behartutakoa dela ematen du, istorioa kla-beetako batzuri (tar-tean atentatuak neskarengan izandako ondorioak) Elortegik, filmean, azaletik heldu izan balie bezala. Protagonistaren hasierako istripura bueltatzen da berriro, zirkulua itxi nahirik, baina hori argitzea ez da nahikoa. Mesfidantza ugari ditugu ordurako.

Edu Mendibil

# Zinema

**ARRASATE**

**AMAIA ANTZOKIA**

Zorion perfektua  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

School rock band  
Domeka: 17:00.

Frozen river  
Eguena: 20:30.

**ARETXABAETA**

**ZARAIA**

Asalto al tren  
Penhalm 1, 2, 3  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

Hannah Montana  
Domeka: 17:00.

Antichristo  
Eguena: 19:30.

**ONÁTI**

**KULTUR ETXEA**

El secreto de sus ojos  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

La montaña embrujada  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

Vals con Bashir  
Eguena: 20:00.

**BERGARA**

**ZABALOTEGI**

25 kilates  
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

Bagdad Rap  
Domeka: 18:00.

**ELGETA**

**ESPALDIA**

Resistencia  
Eguaztena: 21:30.

**ARAMAIO**

**KULTUR ETXEA**

Ché, el argentino  
Egubakoitza: 22:15.

La isla de Nim  
Domeka: 17:00.

**EIBAR**

**COLISEO ANTZOKIA**

El secreto de sus ojos  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 1**

Gordos  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

La caja de Pandora  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

This is it  
17:30, 20:00, 22:30.  
El imaginario del Doctor Parnassus  
17:00, 19:45, 22:30.

Si la cosa funciona  
18:45, 20:30.

Celda 211  
17:30, 20:00, 22:30.

Hachiko  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

El destino final  
17:00, 22:30.

Pandorum  
17:30, 20:00, 22:30.

The Box  
17:30, 20:00, 22:30.

La huérfana  
16:00 (zapatuan eta domekan).

Infectedos  
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:05.

Agora  
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

La chica que soñaba con una cerilla...  
15:30 eta 16:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:15, 20:30, 21:45, 23:00, 00:15.

Los hombres que no amaban a las mujeres  
22:00, 00:35.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.

El secreto de sus ojos  
17:30, 20:00, 22:30.



**El secreto de sus ojos**

Zuzendaria: Juan José Campanella. Argentina, 2009. 126 minutu. Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Esposito. Erretiratzaera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbaiti buruzko eleberrira gertatze-ari ekingo dio. 70eko hamarkadako urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketak eta maitasun istorio bat. Donostiako azken Zinemaldian kritika onak jaso zituen filmak, saririk eskuratu ez arren.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

**San Valentin sangriento**

AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier. Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinatutako filmaren remake hau hiru dimentsiotan ikus-teko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretoetan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonista nagusiak.

**District 9**

Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp. Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apartheid erregimena ezarriko diete.

**Hotel Woodstock**

AEB, 2009. Zuz.: Ang Lee. 1969. urtea da. Elliotek gurasoen hotela bere gain hartuko du, negozioa hondoratzen ari denean. Aldameneko herrian rock jaialdi bat egiteko baimena ez dutela eman entzungo du, eta antolatzaileei deituko die, hotelaren ondoko zelaia eskaintzeko, baina ez du inajinatu ere egiten milioi erdi lagun batuko direla han hiru asteren buruan...

## nire aukera



Joxean Iñarra  
Bergarako Shotokan  
karate taldekoa

## Taldearekin Gasteizera bihar

Joxean Iñarra bergararrak (49 urte) urte mordoia darakasle; 23 urte zituela hasi zen eskolak ematen, Bergarako Ipintza institutuan. Bi alaba dauzkate, Haizea (15 urte) eta Maddi (9 urte).

Irakasle izateaz gain, Shotokan karate taldeko entrenatzaile ere bada Joxean Iñarra. Harekin batera beste lau monitoretz dihardute taldean. 5 eta 30 urte bitarteko 100 ikasle inguru dituzte aurtengo ikasturtean. Bihar, zapatua, Gasteizera joango da Iñarra; kade-te, junior eta 21 urte azpikoena mailetak autonomia arteko txapelketa jokatu da eta taldeko hamar lagun lehiatuko dira Arriaga kiroldegian, goiz eta arratsaldez.

**Astebururako planik bai?**

Zapatua Gasteizen emango dut, taldekoekin, eta domekan, ziurrenik, bazkaria egingo dugu koadrilakook, Umore-Ona elkartearen. Hamasei lagun inguru elkartzen gara halakoe-tan, ume eta guzti.

**Sukaldari ona zara?**

Moldatzen naiz. Egia esan, etxean emazteak ez nau lagatzen sukaldian eskua askorik sartzen dit. Baina gustatzen zait sukaldian ibiltzea, eta elkartean ere saiatzen naiz.

**Behobiako lasterketa ikustera ez zarete joango, beraz.**

Ez; giro ederra egoten da eta koadrilako neska batek, Ana Agirrezabalek, parte hartuko du, gainera. Agian, domekan bertan emango digu lasterketa-aren berri, koadrilako bazkarian.

**Kirolaz aparte, beste zaletasunik?**

Musika, adibidez. Akordeoia jotzen dut, eta orain alaba txikia pianoa ikasten hasi denez, harekin ere jarduten dut ahal dudanean. Gustatzen zait.

**Zein liburu duzu esku artean?**

Dan Brownen azkena, *El símbolo perdido*. Emazteak oparitu dit aste honetan. Dan Brownen aurrekoak asko gustatu zaizkit.

Edu Mendibil



# BECera Jonas anaiei segika

**KONTZERTUA** AEBetako hiru anaiek kontzertua eskainiko dute BEC erakustazokan martitzenean

**MUSIKA** Pop erako abestiak kantatzen dituzte, gazteen estilokoak dira eta jarraitzaile ugari dituzte

**GERTU** Aretxabaletako zale batzuek eroso eserita ikusiko dute kontzertua; beste batzuek, oholtzatik gertu

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA**  
Kevin, Joe eta Nick izenak esanda, gutxi batzuek jakingo dute nortzuek ari garen; The Jonas Brothers esanda jende gehiagok, beharbada; eta, zer esanik ez, neska-mutiko gaztetxoek.

New Jersey hiriko (AEB) modako pop musika taldea da, hiru anaiek osatutakoa. Martitzenean, azaroaren 10ean, Barakaldoko BEC erakustazokan egingo dute kontzertua eta euren disko-etako kanturik ezagunenak entzuteko aukera izango da; *It's About Time*, *Jonas Brothers*, *A Little Bit Longer* eta berrireneko *Lines, Vines and Trying Times* diskoetakoak, hain zuzen. Debagoienean ere aurkitu ditugu kontzertura joango diren zaleak.

Aretxabaletan egin dugu astero hitzordua Oihane Iturbe, Maite Perez, Olatz Iriarte, Ainize Barrainkua eta Beñat Arizabaletarekin eta benetan gogotsu daude kontzerturako. Ez zituzten alferrik sarrerak ikasturte amaieran hartu, agortuko ziren beldurrez-edo.

## MUTIL "GUAPOAK"

Telebistatik ezagutu zituzten Jonas anaiek, eta, abestiez gain, hiru anaiek protagonista diren filmak ere ikusiak dituzte; *Camp rock* eta *Jonas Brothers: The 3D Concert Experience*, esaterako.

Aretxabaletako neska-mutikoen haien musika dute gustukoena, eta, aho txikiarekin esan badigute ere: "Guapoak direlako ere gustatzen zaizkigu".

Martitzenerako plana egina dute jadanik, eskolatik irten eta berehala joango dira kontzertura. Bada baten bat BECera garaiz iristeko beharbada piper egingo duena. "Guk ez dauzkagu zenbakitutako sarrerak, eta, aurrean zutik egongo garenez, oholtzatik gertu, lehen ilaran egon nahi genuke eta horretarako garaiz iritsi beharra dago", esan digu Beñat Arizabalek.

Aulkian erosoago egongo dira Aretxabaletatik doazen beste zale batzuk; sarrera garestiago ordaindu arren, hala nahiago duela esan digute Maite eta Ainize zaleek.



ZALEAK Beñat, Maite, Oihane, Olatz eta Ainize, kontzerturako gertu. I. AGIRREAZALDEGI

Oihane nahiago du zutik egotea: "beharbada abeslariak ukitze-ko aukera izango dugu. Nik *Operation Triunfo*-ko kontzertura aulki tolesgarri bat eraman nuen abeslariengana gerturatzen".

## TARTEKIA

Jarraitzaile amorratuaren pare oihu egingo dutela eta abeslariari "guapo" deituko dietela esan digute, baita eurekin batera abestu ere. Abestirik gustukoena zein den galdetuta zerrenda luzea bota digute: *When you look me in the eyes*, *Tonight*, *Paranoid*, *Hold on*, *Burnin Up*... "Asko ditugu gustuko. Kantu erromantikoak eta mugimendu gehiagokoak dituzte. Gure estilokoak", diote.

Jonas anaieen zaleak direla argi dago; kamisetak, CDak, logelak, posterrak... Orain, kontzertuan gozatu eta "espero dugu autografoak eskatzeko aukera izatea, behintzat koadernoren bat eramango dugu horretarako", diote. Hala bada pozik itzuliko dira, bai, eta abeslari gazteen kantuak abestuz, gainera.

## ahobero

"Zapaterori ez zaizkio zezenak gustatzen ez delako sekula joaten zezenketak ikustera, eta, espainiarra den neurrian, joan egin beharko luke"

F. Rivera Ordoñez > Toreatzailea

Ez ote da alderantziz? Gustatzen ez zaizkiolako hartu duela, hain zuzen ere, zezenketak ikustera ez joateko erabakia? Konturatu behar du denek ez dituztela zezenketak gogoko.

## iturri onetik

**Danbakako hiru finalisten diskoak abendurako kalean izango dira**

Danbakaren hirugarren edizioako hiru finalisten, Norman-ek, The Wet Band-ek eta Ady Holden-ek abenduan aterako dituzte diskoak. The Wet Band izan zen Danbakako irabazle eta Ady Holden Debagoieneko talderik onena; hortaz, Danbakari esker eta Gaztelupeko Hotsak-en laguntzaz aterako dituzte diskoak; Normanek ere Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kale-ratuko du lana.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Ura aurreztu

Asteon jakin dut Eskoriatzako Udalak araua onartu duela ura aurrez dadin herriko eraikinetan, egingo diren berrietan bezala zaharberrietan: etxe sarreran erregulatuak, txorrotetan difusoreak, komuneko ur tankeetan aginte bikoitza, ur grisak berrerrabiltzea, euri urak jasotzea... Neurri mordoak dauka arauak, uraren kudeaketa arrazionalagoa bultzatzeko.

Behar dugu gihar hori sendotu. Oparotasunean ohitu gara neurri gabe gastatzen, planetaren baliabideak mugagabeak balira bezala. Baina hor dago datu zirrargarria: mundu osoak xahutuko balitu baliabide naturalak mendebaldarron neurrian, hiru planeta beharko genituzke egungo kontsumoari eusteko. Horren faltan, gure ondokoen planeta ari gara jaten, lotsa gabe. Beraz, txalo Eskoriatzari.

## ai, ene!



**Tirantedun galtzerdiak, negurako proposak**

Neguan galtzerdiak beheara egin eta hotza sartzen denean... Bada, hori saihesteko tiranteekin ondo eutsi, eta kitto!

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51